



GARI GARAIALDE

"Gaiei buruz
pentsatzeko, hobeto
hausnartzeko, badut
oraindik tartea"

Amets Arzallus | Bertsolaria | 8

Gipuzkoako ziklo-kros txapelketa
egongo da jokoan etzi Oñatin | 28



Sagastiko biribilgunea
inauguratu dute | 10



Down sindromea duten gazteek
ikuskizuna egingo dute Elgetan | 31



Indarrak batu dituzte tratu txarren biktimei laguntzeko

Antzuolako, Elgetako eta Leintz Gatzagako udalek
batera jardungo dute sexu-indarkeriari aurre egiteko | 4

Leintz Gatzagako, Antzuolako
eta Elgetako alkateak,
jesarrita; goian, udaletako
beste ordezkari batzuk,
medikua eta Bergarako
ertzain-etxeko arduradunak.

IURE EIZAGIRRE

SINADURAK



Bizi nahi ditugun bizitzak | 6
AMETS BELTRAN DE GEBARA



6 | Gertu, eta kalitatezkoa
AITZIBER ARANBURUZABALA



Eskerrik asko dano! | 25
ALAITZ JAUREGI



40 | Hautsi da tabua
MIKEL IRIZAR

DanobatGroupek 103 milioiko eskaria, makina-erremintan inoizko handiena

Lana eta hornitzaileendako kontratuak ekarriko ditu horrek ingurura | 5




ARRASATE

943 71 10 11
943 71 10 12

Amuebladora Mondragonesak Gabon jai zoriontsuak opa dizkizue,
aurten inoiz baino gehiago, eta urte berriak onena ekar diezazuela.



centro hogar MUEBLES



Abenduaren 23an
Astelehenekoa,
abenduaren 27an
urtekaria, eta urtarrilaren 10ean
2014ko lehen zenbakia

Astelehenean argitaratuko dugun
zenbakiaren ondoren, hilaren 27an
Debagoiena 2013 urtekaria jasoko
duzue etxean. Hurrengo GOIENA
urtarrilaren 10ean, astelehena,

argitaratuko
dugu. Gabon
zoriontsuak
eta urte berri
on!!!

DEBAGOIENA
2013
URTEKARIA



Olabarrietan dagoen Arrazola Azpiko baserria. | JERARDO ELORTZA



Oñatiko herria 1877. urtean. | JERARDO ELORTZA

Historian atzera egin, orduko bizimodu eta bitxikeriez jabetzeko

Ikerketa bana egin dute Jose Antonio Azpiazu eta Jerardo Elortza historialari oñatiarrek

IRATI GOITIA | ARRASATE

Jose Antonio Azpiazu eta Jerardo Elortza historialari oñatiarrek ikerketa bana egin dute. Lehenak, Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatearen ingurukoa, eta bigarrenak 1805. urte inguruan euskaraz idatzitako bi liburu izan ditu oinarri. Biekin izan gara hizketan, eta, historia kontuez gain, hainbat bitxikeriaren berri ere eman digute.

Unibertsitatearen eragina

Oñatiko Unibertsitatearen gainean oso gutxi ezagutzen dela dio Azpiazuk: "Oso unibertsitate garrantzitsua izan da historian zehar, baina ez da askorik ikertu". Azaldu digu Oñatin dokumentazio

asko dagoela eta berak gehiena aztertuta duela, baina unibertsitate itxi zenean informazio asko Valladolidera eraman zela gaineratu digu eta horko asko oraindik ezkutu dagoela.

Esaterako, esan digu oso interesgarria izango litzatekeela unibertsitateak XX. mendean izan zuen eragina aztertzea. "Badira zalantzak unibertsitateak noiz arte iraun zuenaren gainekoak, baina nik aurkitu ditut 1901eko paperak. XX. mendean garrantzi handia izan zuten hainbat pertsona (alkateak, legegizonak, diputatuak, parlamentariak...) Oñatitik pasatu ziren. Hori aztertzea oso garrantzitsua izango litzatekela deritzot".

Tximinia bako industria

Lehenagoko kontuez ere jardun zaigu, baina, Azpiazu. "1750-1755 urte inguruan, unibertsitate krisian zegoenean, 16 ostatu zeuden herrian eta 300 ikasle inguru. Uneren baten 600 ikasle izatera ere iritsi ziren; 5.000 biztanleko herri hartan. Hori ikaragarria da, garai hartako pentsaera kontuan hartuta. Izan ere, ez zen egun bezala, ez zuen jende askok ikasten. Beraz, hemengo industria zen. Herritarrendako (jostunak, harakinak, bizarginak...) diru-iturria". Bestalde, zehaztu digu Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroaz gain, Burgos eta Santandertik ere etortzen zela jendea. "Iparraldeko unibertsitatea deitzen

ESANAK

"Oñatin, Euskal Herrian inon gertatzen ez zena bizi zen"

J. ANTONIO AZPIAZU | HISTORIALARIA

"Umerezek txokolatea galbidea zela dio bere lanean"

JERARDO ELORTZA | HISTORIALARIA

Pasarte bat

(...) Noblezia hidalgia egingo badau, edo egin beharko ditu papel faltsuak, edo egin biarko dau prueba egiazkua, nola bere antepasaren bizi izan zan ez argintzan, ez arotzian, ez zapateritzan, eta bai bere apelliduko urlia etxalde propioan abarka sopitia eriola, erpillak zatiketean zitubala, ituako sitsa gobernaitan ebela, eta azkenik keez eta amaraunez beterikako arkoba baten lo egiten ebela (...)

zioten. Jauntxoek semeak izaten ziren etortzen zirenak. Hala ere, gotzainak esan zuen aukera eman behar zitzaie la dirua ez zutenei ere. Hala, herriko hainbati eman zioten aukera goizean lan egin eta arratsaldean ikasteko".

Ohitura eta xeblekeriak

Aztertu dituen dokumentuetan garai hartako ohitura eta bizimoduaren gaineko datuak ere azaltzen dira. "Oñatiko herria lau mende baino gehiagoz zeremonia errituz bete zen. Ikasleren batek doktoretza lortuz gero, hainbat intsignia eman behar zitzaizkion: zilarrezko ontzia, bonetea, eraztuna, ezpata... Eta zaldian eramaten zuten alde batetik bestera. Antzerki bat zen. Oñatin, Euskal Herrian beste inon gertatzen ez zena gertatzen zen. Ondorioz, herri garrantzitsu eta ezaguna zen". Ikasleen eta herritarren artean harreman estuak eta iskanbilak ere izaten ziren.

1657ko gertakari baten berri ere eman digu Azpiazuk. "Urte hartan eskuduntza arazo bat izan zen Udalaren eta unibertsitateko errektorearen artean. Aste Santuko festetan tira-birak izan ziren dantzari eta ikasle batzuen artean. Ikasleen ardura errektoreak zuen, aguazilek edo alkateak ez zuten eskuduntzarik. Baina alkateak Valladolidera gutun bat idaztea erabaki zuen, epaitegi handietara. Bertan zehazten da ikasleak euskaraz hitz egiten zen hiru probintzietatik etortzen zirela. Horrek zehazten du euskara zela hizkuntza nagusia hemen".

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI

zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

SELEQTIA®

Produktu guztietan*

3 eraman eta ordaindu 2
Merkeena doan

3 eraman **2** ordaindu

Nahi duzun bezala konbina itzazu

* Eskaintzan "Azken aleak" gisa adierazitako produktuetan eta itxitako Eroski Seleqtia izan ezik.

**Zapatu arratsaldean
Olentzero dator gurera.**

Eskaintza baliagarria Arrasateko Eroski hipermerkatuan: Ehunkietan, azokan eta etxetresna elektrikoetan 12/31ra arte.



*Osaba baten instruccinua
ac bere Mloba Ezcondu eta Ne-
cazari batentzat bere eta bere
Familiaaren gobernu oneraco Ja-
ungoicoaren Legue santubagaz
conforme.*

JERARDO ELORTZA

*Directore Jaun baten instrue-
cinuac ezconduric vizi dan bere
Adisquide Necazari batentzat
bere eta bere Familiaaren gobernu
oneraco Jaungoicoaren Legue san-
tubagaz conforme.*

JERARDO ELORTZA



JOSE ANTONIO AZPIAZU

UMEREZEN LIBURUAK Horiek dira idatzi zituen bi liburuen izenburuak, idazkera originalean. Tituluek adierazten duten moduan, abade batek ilobari eta lagunari emandako aholkuak batzen dituzte.

ELKARTEKO KIDE Urriaren 12an egin zituzten Jose Antonio Azpiazu eta Jerardo Elortza Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide. Egun hartan egin zituzten euren ikerketen aurkezpenak.

Bi liburu oinarri

Hain zuzen, euskara da Jerardo Elortzak bere ikerketan landu duena, besteak beste. Manuel Umerezek 1805 inguruan idatzitako bi liburu izan ditu oinarri. Batek 440 orrialde dauzka eta 478 bigarrenak, [ikus izenburuak goiko zatiduran].

"Umerezen idazlanek badute balio berezia: ordura arte ia erabili gabeko euskararen aldaera batean idatziak dira, Oñatiko euskaraz. Hori bai, idazkera dotore eta jaso samarrean. Bustidurak ez ditu erabiltzen, baina aditz sistema hemengoa erabiltzen du",

dio Elortzak. Beraz, euskal filologiaren esparruan ere dokumentu garrantzitsuak dira Goribar-goitiko semearenak.

Egilearen bila

"Ez zen erraza izan liburuen egilea nor zen jakitea. Izan ere, liburuetako baten azaltzen den sinadurak (Pedro Arrazola) okerreko bidetik eraman gintuen. Pedro Arrazolaren ama Maria Ignazia Umerez zen eta Goribar-goiti baserritik Olabarrieta auzoko Arrazola Azpikora ezkondu zela jakinik, Umereztarren hariari tiraka hasi ginen, egilearen

izena aurkitu arte", azaldu digu Elortzak.

Bi lanetan batez ere erlijio gaiak jorratzen dira. Dena den, sasoi hartako ohitura eta pentsamoldeari buruzko argibide interesgarriak eta bitxiak ere utzi zizkigun.

Txokolatea galbidea

"Idazten du txokolatea garai haieran galbidea dela, benetako droga. Idazten du izugarritzko zaleztasuna dagoela txokolatea jateko. Misogino xamarra ere bada eta esaten du emakumeek ez dakitela bolau eta txokolate barik gosala

tzen. Gaixotzen direnean berriz, ez dutela botikarik hartzen txokolateaz ez bada. Familiek txokolatearengatik beraien ondasun guztiak galdu dituztela ere badio. Ahozabal xamarra da".

"Atso kontuak"

Gaiztazuloko -Aloñako horman dagoen kobazuloa- kondairak ere hartzen ditu hizpide. "Mari Anbototik Aketegira joaten zen, baina bidean bazituen geralekuak. Horietako bat zen Gaiztazulo. Etortzen zenean, zarata izaten omen zen (trumoiak, ekaitza...) eta jendea ezkutatu ohi zen.

Horrelako istorioak zeuden eta Umerezek idazten du bere ikasle garaian entzun zituela horrelako atso kontuak, horiek siniskeriak zirela, baina berak ere aipatu egiten ditu. Gaur egunera arte iritsi diren siniskeriak dira horiek".


Denon eskura

Norbaitek Umerezen testuetan interesa izanez gero, Oñatiko Udaleko webgunean du *Osaba* liburuen transkripzio osoa. Hau da helbidea: www.oinati.eu (*Udal Zerbitzuak / Euskara / Udal artxiboa / Argitalpenak*).

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com



Birziklitzeko erraztasunak ematen dizkizugu.



Zatoz eta informa zaitez!





Udal ordezkari eta langileak, Iñaki Urgoitia medikua eta Bergarako polizia-etxeke ordezkariak. IURE EIZAGIRRE

Sexu-erasoen biktimei arreta hobe emango diete Bideberriko udalek

Antzuola, Elgeta eta Gatzagako erakundeak elkarrekin koordinatuko dira

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagak osatzen duten Bideberri Mankomunitateak indarkeriaren eta sexu erasoen biktime diren emakumeei arreta hobe emateko erakundeak koordinatzeko protokoloa aurkeztu zuen martitzen goizean Antzuolako udal txetan.

Antzuolako alkate Ima Beristain, Elgetako Oxel Erostarbe eta Leintz Gatzagako Eugenio Otsoak sinatu zuten azken urteetako lanaren ondorioz garatu duten

protokoloa. Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea du helburu protokoloak eta genero indarkeria eta sexu erasoen biktime diren emakumeei arreta azkarra, koordinatua eta eraginkorra eskainiko die.

Askotariko laguntza jaso dute 2008an hasi ziren protokoloa lantzen, herri bakoitzeko egoera aztertu eta berdintasunerako plana diseinatu. Horren baitan, besteak beste, genero ikuspuntua ezartzeko prestakuntza saiok

egin dituzte udal langile eta ordezkari politikoekin.

Arlo askotako adituen laguntza izan dute udalek Daiteke berdintasun aholkularitzak garatutako protokoloa lantzeko. Eta eskerrak eman zizkieten guztiei: "Hiru herrietako gizarte zerbitzuei, osasun zentroetako ordezkariari, Debagoieneko ospitaleko larrialdi zerbitzuei, Ertzaintzari eta Daitekeri". Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeria Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak emandako dirulaguntza ere eskertu zuten.

Bi kooperatibak aparteko paga kapitalizatuko dute

Fagor Arrasate eta Electronicako bazkideek ez dute abenduko aparteko ordainsaria kobratuko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Fagor Taldeko hiru kooperatibak, Onnerak (Fagor Industrial), Fagor Arrasatek eta Fagor Electronicak, ezohiko batzar orokorra egin zuten joan den eguean, abenduko aparteko ordainsariarekin zer egin erabakitzeko. Bada, Fagor Arrasatek eta Fagor Electronicak ordainsaria kapitalizatzea erabaki zuten, eta Onnera Group-ek, berriz, kobratzea, joan den asteleheneko GOIENA paperean argitaratu zen bezala.

Fagor Arrasateko batzar orokorrera bazkideen erdiak baino gutxiago joan ziren -780 zeuden deituta eta 363 agertu ziren-, eta oso marjin txikiarekin onartu zuten abenduko ordainsaria ez kobratzea: botoen %52,25ekin, hain zuzen ere. 22 botoen aldea egon zen. Bazki-

deek ez dakite zertarako erabiliko den diru hori.

Fagor Electronicaren kasuan, marjina handiagoa izan zen: joandako bazkideen %66,2 agertu ziren aparteko paga kapitalizatzearen alde. Fagor Electronicak harreman handi samarra zuen Fagor Etxetresnekin, etxetresnendako osagarri elektronikoa egiten zituelako.

DATUA

22

BOTO

Fagor Arrasaten, 22 botoen aldearekin hartu zen erabakia.



ANE ETXEBERRIA

Grumalek, protesta-kanpaldia

Grumaleko langileek protesta-kanpaldia egin dute Arrasateko Seber Altube plazan martitzenetik eguenera, Fagor Etxetresnen konkurtsoak egindako kalteak salatzen. Gaur, egubakoitza, greba egitekoak ziren enpresan, eta kale-agerraldia Arrasaten. Gai honen harira, Frantziako Fagor Etxetresnen filialeko lantegiak martxan dira berriro, Frantziako Gobernuaren eta bankuen laguntza jaso ondoren.

First Lego Leaguetik hiru sari Arizmendik

Hiru sari ekarri zituzten First Lego Leagueko kanporaketatik zapatuan, eta benetan bikain aritu ziren Arizmendi-Ikerlan eta Arizmendi-Mondragon Unibertsitateko lau taldeak.



ARIZMENDI IKASTOLA

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

103 milioi euroko hiru kontratu eskuratu ditu DanobatGroupek

Eskari guztien %66 hemen egingo dituzte inguruko hornitzaileak erabilita

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Mondragon Korporazioko kide den DanobatGroup kooperatiba taldeak, besteak beste Bergarako Soralue lantegiak osatzen duen eta Bergarako Mekolalde auzoan lantegia ere baduen taldeak, nazioarteko hiru kontratu lortu ditu tren sektorerako. Hiru kontratuak, guztira, 103 milioi euro egiten dute, DanobatGroupek orain arte duen eskari zifrarik handiena da eta horri esker datozen urteei begira itxaropen bikainekin itxi ahal izango du aurtengo ekitaldia.

Taldeak Elgoibarren duen egoitzan eman zituzten kontratuen xehetasunak, eta bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunerako Kontseilari Arantza Tapia eta Mondragoneko lehendakaria

riorde eta DanobatGroupeko zuzendari nagusi Iñigo Uzin.

Eragina bailaran

Enpresatik aditzera eman dutenez, eskari berriek eragin handia izango dute inguruan; izan ere, "eskari guztien %66 maila lokalean

egingo dira, eta ehuneko horretatik herena inguruko hornitzaileei azpikontratatuak zaie, normalean DanobatGroupekin lan egiten duten hornitzaileei, hain zuzen ere. Honelako ezaugarriak dituzten eskariak kualifikazio handiko lanpostuak sortzea eskatzen dute normalean, hauek bezain garrantzitsuak diren proiektuak kudeatzeko gai diren pertsonen bitartez, bai hemen egiten denari dagokionez, bai Indian edo Australian egingo denari dagokionez, eta munduko edozein tokitan hornitzaile eta bezeroekin erlazionatzeko beharrezko trebetasunak dituzten pertsonen bitartez". Gaur egun, enpresako langileen %43k unibertsitateko ikasketak dituzte, enpresak "lanpostu kualifikatuen aldeko apustu indartsua egin delako".

"Betiko hornitzaileekin arituko gara eta kualifikazio handiko lanpostuak sortuko ditugu"



Elgoibarren egindako aurkezpen ekitaldia. | DANOBATGROUP

Sinatutako kontratuak

DanobatGroupek bi kontratu izenpetu ditu meatzaritzaren sektorean mundu mailan liderrak diren Australiako bi enpresa ospetsuekin. Hain zuzen ere, lehenengo kontratua bagoien bogie-a eta wheelset-a (muntatutako ardatzak) zaintzeko eta konpontzeko giltza eskurako tailer bat hornitzeko da; eta bigarrena, berriz, muntatutako ardatzak zaintzeko lerro automatiko baterako. Bada, bata

zein bestea, meategiaren eta portuaren arteko garraioa egiten duten bagoietarako dira. Era berean, DanobatGroupek hiru garren kontratu bat itxi du Indiako Ircon etxerako. Kontratu horren bitartez lerro automatiko bat hornituko da bidaiarien trenen muntatutako ardatzen fabrikaziorako. Hiru proiektu horietan, Danobatek izango du zuzendaritza eta kualifikazio handiko lanak eramanango ditu aurrera.

Aldundiak txostenak aurkeztu ditu, Deskargako bidesariaren harira

A.E | DEBAGOIENA

Aurreko astean Deskargako bidesaria zela-eta, ika-mika sortu zen. Azpiegitura eta Mugikortasun diputatu Larraitz Ugartek adierazi zuen alderdi jeltzaleak bere garaian Deskargan bidesaria jartzeko hitzartu zuela banketxeekin, erabakia Batzar Nagusietatik pasa gabe eta foru araua egin gabe. Agurtzane Oiarbidek, EAJko batzar-kideak, gezurretan aritzea leporatu zion Ugarteri.

Bada, aurreko astean Ugarterek aurreratu bezala, martitzen honetan Aldundiak hainbat autoritate finantzarioez eginiko txostenak aurkeztu ditu. Txosten tekniko eta juridikoen bitartez

aditzera ematen da Deskargan ordainsaria jartzeko Gipuzkoako Batzar Nagusien arau bidez onartua izan behar dela, izaera publikoa duen ondare prestazioa baita. Zehazten da baita kanona ez dela tarifa bat dekretu foral bidez finkatzen dena, baizik eta ondare prestazioa denez, bai edo bai, Batzar Nagusietan adostutakoa izan behar dela.

Bestalde, zehazten da, egun bi arau hauek daudela indarrean: 2010/4 foru araua, zeinaren bidez AP-8ko eta AP-1eko Gipuzkoako zatiak erabiltzeagatik finkatzen dituen prezioak; eta bestetik, 2012/8 foru araua, zeinaren bidez aurreko foru araua aldatzen duena.

2014an Euskadiko Barne Produktu Gordina %0,8 haziko dela aurreikusten du Laboral Kutxak

A.E | ARRASATE

Xabier Egibar Laboral Kutxako Negozio Garapenerako zuzendariak prentsaurrekoan adierazi duenez, "krisia hasi zenetik egon den atzeraldirik luzeena atzean" utzi dugu eta datorren urtera begira Euskal Autonomia Erkidegoko BPG %0,8 haziko dela aurreikusten du. Aurreikuspenak, ordea, ez dira egonkorak, eta "hausturarako" aukera handiak ikusten dizkio. Horregatik, berreskurapenerako bidea geldoa izango dela uste du. Edozein modutan, atzeraldi ekonomikoko azken hiru hilabeteak izango da 2013aren amaierakoa. Nafarroan BPG %1,4

txikituko dela esan du Ikerketa saileko zuzendari Joseba Madariagak eta EAEn kasuan, %1,2. 2014a, ordea, balore positiboekin amaituko omen da.

EAEn %0,8ko hazkunde egongo da, ekonomia azkartu egingo delako, eta horren ondorioz langabezia tasa aurtengoa baino

hobea izango da. Nafarroan %18,3-tik %17,6ra jaitsiko da. EAEn, %15,7tik %15,1era.

Laboral Kutxaren ustetan, euskal ekonomiaren errekuperazioaren gakoak berrikuntza datza, eta baita nazioartera salto egitean ere; izan ere, esportazioek %35eko hazkunde izan dute 2011tik hona. Hala, politikariek dei egin die Madariagak, eskatzeko ez daitezkeen zain egon "ea zer gertatzen den" horri, eta enpresei kanpora joateko laguntza eman diezaietela eskatu du, beharrezkoa baitute enpresek laguntza hori.

ARIZMENDI KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop. E-ko Estatutu Sozialetako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2013ko azaroaren 28an egotza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E.-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

EGUNA: 2014ko urtarrilaren 16a.

ORDUA: Lehen deialdia: 18:00. Bigarren deialdia: 18:30.

TOKIA: Lekua: Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onspen-txostenaren irakurtzea. Aktaren onspenerako bi bazkideren izendapena.
2. 2012-2013 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta txostena), baita kudeaketa-txostena ere, onartzea.
3. 2012-13 ekitaldiko emaitzen banaketa.
4. 2013-2014 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena.
5. Kontseilu Sozialaren berriztatzea.
6. Kontseilu Errektorea ahalduntzea Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
7. Galde-erantzunak.

Zabor bilketan eta traste zaharrek ateratzeko ordutegian aldaketak

Abenduaren 24an eta 31n ordu-tegi aldaketa izango da zaborra ateratzeko orduan; hala, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan zabor nahastua (edukiontzia berde arrunta) 13:30 aurretik atera beharko da. Antzuola, Leintz Gatzaga eta Eskoriatzako atez ateko sistema daramaten auzoetan, papera eta kartoia aipatu ordua aurretik atera beharko dute biztanleek. Oñatiarrek, aldiz, 13:30 aurretik ere atera beharko dute organikoaren edukiontzia. Traste zaharrei dagokienez, Arrasaten eta Bergaran elementu horiek ateratzeko eguna aurreratu egingo dute; hala, abenduaren 23an eta 30an (astelehena) atera beharko dira.

NARANJAS GARIBO Garibo familiaren zelaietan jasotako uzta, tradizionalki landatuta. Etxeraino eramaten dizkizugu.

Kilo bat DOAN
10 kiloko kaxa bakoitzeko,
GOIENAKO irakurleentzako euren lehenengo erosketan

**Pestizidak %0
Osasuna %100**

Informazioa eta eskaerak:
961 420 831 / 606 863 245
On Line denda:
www.naranjasgaribo.com

Kalitate Ziurtagiria

arizmendi ikastola

Jokin Mujika Dorronsoro
Lehendakaria
Arrasate, 2013/11/28

ZABALIK

AMETS BELTRAN DE GEBARA
http://goiena.net/iritzia/



Bizi nahi ditugun bizitzak

Hausnarketarako ariketa proposamen batekin nator... Bizi nahi ditugun bizitzak bizitzaren ari ote gara? Zein bizitzak merezi ote du berau bizitzeko bizi-poza? Zein baldintza eta egitura lirakeke ezinbestekoak? Galdera hauek ezin dira modu indibidualistan planteatu, bizitza bera komunitatearen baitan ematen den prozesu batean bezala baizik.

Ekonomia eta gizarte eredu kapitalista honek, hauskorra den eta zainketen beharra daukan bizitzaren beharrei erantzun ordez, irabazi ekonomiko eta materialistetan inbertitzen ditu energiak. Hortaz, ezin ukatu egiturazkoa den talka bat dagoenik kapitalaren eta bizitzaren artean.

Gurean ere, kapitalak bizitzaren beste dimentsio guztiak mendean hartzen dituela iruditzen zait. Lan produktiboa bizitzaren bestelako jardura sozialengandik bereizi eta bizitzeko beharrezkoak ditugun afektu eta zaintzak aparteko jardura bat direla kontsideratuz.

Merkatuaren logikak egiten duenaren aurka, ez ote genuke geure bizitzaren zentroan zaintzak kokatu behar? Izan ere, ez da egia pertsonok autosufizientek garenik (bizitzako fase guztietan) ez eta behar horiek merkatuak berak ase ditzakeenik ere bizitzako aro guztietan.

Esan gabe doa historikoki emakumeak arduratu direla zaintza lanez, eta ez direla baloreen jarri; irabazi ekonomikoak erdigune dituen ekonomiaaren seinale garbia. Hortaz, nola egin dezakegu berez interdependenteak garen pertsonok, elkar zaintzeko eta norbere autonomia garatzearekin bateragarri egiteko?

Bestalde, psikologo askok diote haurtzarora zaintzea bizitza osasuntsu baten abiapuntua dela. Baietzapen hau ez ote da kontraesan sartzeko zainketan inbertitzen dugunarekin?

Inoiz jarri al gara pentsatzen, gure bizitzan zehar zenbat denbora, afektu eta maitasun energia behar ditugun bizi irauteko eta zenbat denbora, afektu eta maitasun aportatzen dugun? Zaindu!

"Kapitalak bizitzaren beste dimentsio guztiak hartzen ditu"

USTEAK USTE

AITZIBER ARANBURUZABALA | aaranburuzabala@goiena.com

Gertu, eta kalitatezkoa

Merkataritzan moduan, kultura eskaintzan ere Debagoienean aukera zabala eta kalitatezkoa dugula uste dut. Hori erakusten didate gordeta ditudan aurtengo txartelek: antzerkietan, askotariko kontzertuetan eta zarzuelan izan naiz; eta baita haurrentzako opera batean eta dantza ikuskizun batetan ere. Hala ere, bidean utzi ditut gustuko beste hainbat. Horiek guztietara joan naiz, sarrera garestirik ordaindu barik eta kotxean kilometro askorik egin barik. Luxua da hori! Urtea amaitu aurretik baina, baditut beste hainbat begiz jota. Olentzerori eskatuko dizkiot akaso sarrera batzuk. Eta zuk zergatik ez? Aurkituko duzu gustuko zer edo zer seguru!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Gaur hamabost

Pello Zabala
berria.info/blogak/pellozabala/

Hala nion gaur hamabost, Xabierko santuaren egunean, ilargiaren haztea ta goratzea abiatzen ziren egun berean: "Baietz portatu oraingoan *ilargi xaltxera tranpoxa lotsatia* egun laburretako sasoi honetan...! Ez dut trabesik gurutzatuko baina... baietzean nabil".

Ta baita portatu ere. Halakoxe egunak zaizkigu fortunatu!

Luzeagoak izan balira, auskalo!

Baina, urteko laburrentxuenak izateko, *eguzkibeteko* egunak (8 ordu inguruotan) mordoska, 10 gutxinez bai... hamabostaldi honek 66 ordu bete ditu eguzkitan mendialdeotako eguteraan.

Ba, gaur abiatu da *ilargi xaltxera* bere murrizketekin: goizean goiz beheraka, egun pare bat fanfarroi han altuan ibilita. Gaur ere halaxe dator, bart egin duen ia bide beretsutik, eta egun pare batean apenas antzemango zaion matrail bateko argia galduz, itzala pixkeka sartzen hasi zaiola ere.

Ezin jarraiko du aurpegi betetzerakoan eta igoerakoan oparitu dizkigun zeru garbiekin, baina, tira!
Ez du gehiegi gaiztotu nahiko...!

Amets ez zen lapurteraz aritu

Luis Aranberri 'Amatiño'
eibar.org/blogak/amatiño/

Euskara batuak prestijioa galdu omen du azken urteotan. Seguru? Ez du gero inork pentsatuko 13.000 jarraitzaile sutsuren aurrean aritu zen Amets txapelkunak lapurteraz ekin zionik goiz eta arratsalde, ezta?

Amets Arzallusek, EiTBn, txapelaz jabetzen ziharduen igande berean, Anjel Lertxundiren *Batuaren zoriz eta zoriaz* artikulua (*Deia*, 2013.12.15) nuen nik mahai gainean.

Xabier Euzkitzeri jaramonik egingo badiogu (*Batuaren makurrak*, *Noticias-de-Gipuzkoa*, 2013.12.08), euskara batuak prestijioa galdu omen du azken urteotan. Seguru?

Ez du gero inork pentsatuko 13.000 jarraitzaile

sutsuren aurrean aritu zen Amets txapelkunak lapurteraz ekin zionik bertsogintzari, goiz eta arratsalde, ezta?

Jakina gero, badena euskara batuaren kontra dagoenik; jakina gero, euskara batua ez dena aproposena norberaren seme-alabekin whatsappatzeko; baina zalantzarik ez -euskarak iraungo badu behintzat- batuak ere iraungo duela, beste alternatibarik ez dagoelako, gehienbat.

Inork imajinatzen al du Josu Erkoreka jaurilaritzaren eleduna bermeotarrez berbetan?

Eta *Gaur Eguna*-eko berriemaile bakoitzak bere etxeko euskaraz informatuko balu?

Eta zer egin eskola-liburuekin?

Eta zein da euskara batuaren ginetik euskalkiak horrenbeste maite omen dituztenen emaitza praktikoa?

Euskara batua, bere urrian, eskasian eta gabezian, egunero hobetu beharreko ikasgaia da, bai, seguru; baina euskara batuaren kontra dagoena, besteak beste, anti-sistema hutsa da.

Bera da batere prestijiorik ez duena.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Leire Kortabarria
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Amets Arzallus | Bertsolaria

"Gaiei buruz pentsatzeko, hobeto hausnartzeko, badut oraindik tartea"

- ▶ Euskal Herriko txapeldun izanda ere, umil dio beste bertsolari guztiengandik badagoela "zer ikasia"
- ▶ "Irekidura keinu" definitzen du bestearen mina onartzearen alde Sarriegik egindako aldarria

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Elkarrizketatik elkarrizketara, finalaren biharamunean bakarrik "hamazazpi"; "poztu" duenik ere bai –Radio Euskadin eta Onda Vascan euskaraz eginak, berak jarritako baldintzari baiezkoa emanda–. Zorion mezuak "mordo bat", "hiruzpalau hizkuntzatan" batzuk: "Ez dut tarterik hartu, baina bakoitzari eskerrak emateko detailea nahiko nuke izan". Guk martitzenean zoriondu dugu Amets Arzallus (Hendaia, 1983), galderok erantzuten hasterako. **Finalari dagokionez, eta orokorrean, saio bikaina joan zen. 13.500 lagun aurrean, horrelako zita berezian, lau urtean zain egon eta gero, normalena ematen duenean pixka bat kikiltzea edo urduri jartzea, zuek onena emateko gai zarete eta onena ematen duzue justu egun horretan, eman behar den egunean.**

Bai, edo gure onenetik ale batzuk botatzea lortzen dugu. Egun oso ariketa da, ariketa luzea, eta hor gabiltzanok bertsoaren inguruan denbora pixka bat pasatakoak gara eta burua pixka bat nekatutakoak eta landutakoak; eta, orduan, azkenean, zapzi ordutan zehar, han edo hemen, nonbait, ateratzen da onena. Hori beti gertatzen da, gutxi gorabehera; beste gauza bat da ale on horiek sarri xamar entzutea, eta hori, lehengoan, goizean zehar gure artean ere komentatzen genuen kartzelan eta bazkaritan -eta... Zaila izaten da guk hala aitortzea, beti autokritikoagoak eta zorrotz xamarak izan ohi garelako geure buruarekin, baina bazkaritan saioaren irakurketa hain positiborik sekula ez dut sumatu gure artean, eta igandean hori bazegoen. Jendeak berak ere estutzen du, hainbeste jendek eta hainbeste fokuk eta... Egunaren beraren dimentsioaren kontzientzia bat badaukazu, nahiz eta zuk horren kontra zure patxadarik onena bilatu, baina estutze horrek batzutan lagundu ere egiten du, eta nahiz eta liberatzea kostatzen da, ale onak handik ere ateratzen dira; eta, nik uste, igandean, den-denek agian ez, baina nahikotxok geure eguna izan genuela momentu batzuetan, eta

hortik atera zen, behar bada, saioaren maila.

Koiunturak, momentuak, eguneko gorputzaldiak eragin du zuk txapela irabaztea, edo lau urteotan zerbait aldatu da zuegan, bertsoke-ra edo, zuk beste koskatxo hori egiteko gora?

Denak bat egin behar du. Lau urte denbora tarte pixka bat bada; lau urtean badago eboluziorako espazio pixka bat, eta ni saiatu naiz nire burua lantzen, eta ez ongi iristeko honako edo harako zitarra; gustatzen zait egiten dudana, eta lanketa horretan lanean pasatzen dudana denbora plazer orduak izaten dira niretzat gehienak. Eta saiatzen naiz nire buruari bilatzen ahots hori ahalik eta finena izan dadin, eta ahalik eta sakonen bila ditzadan nire bertsoak, eta erregistro zabalena izan dezadan, umorerako, edo sentimendurako; eta gustatzen zaizkidan bideetan aztarrika ibiltzen naiz. Lau urtetan, gainera, adin tarte batean sartzen zara eta neuk nabaritu dut beste patxada bat eta neu hobeto sentitzen nintzela lehenago baino. Gero oso posible da egunean gorputzaldiak gehiegi ez laguntzea eta zeuk zure bertsokean erregistro

"Sekula ez dut sumatu bazkaritan saioaren irakurketa hain positiborik"

"Lehiaren gaintetik, bertsoaren arima beti izan da kooperatiboa"

"Kontziente bagina, amildegi baten oso ondoan gabiltzala sentituko genuke"

batzuk aberatsago eramanda ere ustez, egun horretan ez azaltzea hori. Baina nire kasuan, uste dut, biek, gutxi gorabehera, bat egin zutela, eta handik atera zitzaidan, bereziki, goizeko saioa. Egia esan, ni oso gustura geratu nintzen saioarekin, eta, horrela, pasa dituzun ordu horiek guztiak eskertuta sentitzen dituzu zeuk zeure barruan, pertsonalki.

Ze bidetan sakondu dezake oraindik Amets Arzallusek?

Beti dago hobetoxeago egitea. Adibidez, hartu umorearen erregistroa eta ikusi ze distira ateratzen dion Unaik batzutan, edo Igorrek duen eleganzia. Ikusten dituzu ondoko bertsolariak eta ikusten duzu badagoela denengandik zer ikasia; eta, gero, gehien gustatzen zaizkizun edo gehien kilimatzen zaituzten horietan pasatzen duzu lanketa denbora. Nik uste dut, bereziki, gaiei buruz pentsatzeko –inguratzen gaituzten gaiak, ez gai politikoak bakarrik, baita ere sozialak, bizitzak eskaintzen dizkigun gaiak, hemengoak eta mundu zabalekoak, gero azkenean bertso-gai bihurtzen zaizkigunak–, horietaz ongi hausnartzeko badagoela oraindik tartea, gero bertsoan ateratzerakoan pixka bat mamituago edukitzearen kantatzen dudana hori. Nik uste hor beharko nukeela pixka bat, nahiz eta ahalegintzen naizen orain ere, gai bakoitzari merezi duen hausnarketa denbora eskaintzea. Gero hari buruz kantatu behar denean jakiteko behintzat neure burua non kokatua dagoen; hor, uste dut, badudala non hobetua. Eta, gero, forma aldetik ere, bertsoak beti dauzka ertzak finitzeko eta zorrotzeko puntak; egia esan, bukatzen ez den bide bat da eta ni saiatuko naiz ahalik eta urrunen eramaten.

Nola esplikatu oholtzan zeuden guztiak pozteak besteak irabazteaz ez dakit baina besteak irabaztean bai behintzat? Iruditzen zait eskola ona dela bertsoarena, haurrentzat adibidez, bertsoagatik bai, baina baita transmititzen dituzuen baliogatik ere.

Ni talde-kirolean ibilia naiz ume-umetatik, eta aldagelan askotan egona; eta beti pentsatu izan dut



Amets Arzallus kantuan, domekan. | GARI GARAIALDE

kirol kolektiboa balore humano batzuen eskola izugarria dela; gainera, izerditan eta sufrimendu puntu horretan lortzen den elkartasuna bizitza guztirako gertatzen da beste norbaiten kontrako jardun kolektibo elkartu batean, eta, aldiz, bertsoan, itxuraz elkarren arteko lehiakide garenon artean sentitzen dut kirol kolektibo batean talde baten barruan egon daitezkeen elkartasun hari horiek baino are trinkoagoko sentimendu bat. Gu, dudarik gabe, lehiara benetan joaten gara, bakoitza geure onena ematera, lehia hori nork bere gisara interpretatuta; eta aurkezten gara joko horretara, baina, aldi berean, bertsoa bera beste lur baten gainean bizi da. Bertsoa bizi da hizkuntza baten, herri baten eta inguratzen dituen gai minbera askoren lurtean, eta hori da, uste dut, denon buruetan dagoena, eta horretarako bide bat ere bada bertsoa, eta sentimendu horien transmisioa. Eta hor denok oso konplize sentitzen gara elkarren, eta, hor agertzen den joko eta lehia horren gaintetik, bertsoaren arima beti izan da kooperatiboa eta jolas

"Lanean pasatzen dudana denbora plazer orduak izaten dira gehienak"

"Nork bere iritzitik kantatu behar du, gordina izan edo zorrotza izan"

"Identifikatzen garen horrekin ere zirikatzaile jokatu behar dugu"

dialektiko horretan talde-lanean egin beharreko zerbait. Eta uste dut, aldi berean, lehiaren parodia bat ere egiten dugula, gaur egun munduak hain balio konpetitibo eta agresiboak eskaintzen ditueanean interesgarria izan daitekeena; eta bere funtzio pedagogikoa izan dezake, askotan munduak kontra-eskola erakusten duelako.

Aitor Sarriegiren bi bertsoaldiri ere heldu nahi nieke: berak hil zuenaren alargunari eskua emanda, ETAko preso ohiaren azalean jarrita bestearen mina onartzearen aldeko aldarria egin zueneko – berak hautatuta gainera kartzelan bide hori eta alabarekin bikotekidea bisitatzera espetxera zihoanarena. Esango nuke, biak barrutik kantatuak eta publikoarengana iritsi zirenak eta publikoak eskertu zituenak. Ze irakurketa eragiten dizu?

Kartzelakoan ni eta gero Igor etorri zen eta gero Aitor; eta, orduan, ongi entzun nion. Eta bukatu orduko esan nion estimatzen niola pila bat egin zuena. Ze ez zen leku errazean sartu. Eta gainera sentitu nuen jendeak ere estimu hori eman egin ziola. Bagaude garai berezi batean Euskal Herrian, blokeatu xamar ikusten den bake aro batean eta aurrera egin ezinean. Eta hor badaude mugimendutxo batzuk gaur egunean, lehen gertatzen ez ziren egoera batzuk. Oroimenaren gaia, iraganaren irakurketa eta, bereziki, biktimak eta elkarbizitzaren gaia hor daude. Oso perbertituta dagoen gaia ere badela uste dut; badakigu biktimismoaren inguruan erabilera handia egin dela. Oso gogorra egiten zait horrela esatea, baina horrela ikusten dut: minaren negozio politiko bat ere sortu da biktimen inguruan. Baina badago beste alde bat, uste dut, elkarbizitza lan zintzoagoan ari dena, eta geuk ere horri pixka bat eskua nola luzatu pentsatu eta zintzotasun osoz aurre egin behar diogu gai horri. Eta Sarriegik, uste dut perspektiba horretatik heldu ziola eta oso interesgarri iruditu zitzaidan, eta zinez estimatu nion. Eta, adibidez, gero Igorrekin eta aipatu genuen: nik kartzelako



Maialen Lujanbiorekin batera, finaleko une batean. | GARI GARAIALDE

gaiari pertsonaia gogor baten paperetik heldu nion eta torturaren gaia atera nuen; Igorrek, berriz, oposiziotik agintera iristen denaren eta politikaren eguneroko lokatz-arte horren gaia atera zuen; eta Sarriegik, berriz, iraganaren edo memoriaren gai horretan elkarbizitzarena, eta uste dut irekidura keinu bat egin zuela, eta saioaren zati horretan joan zen euskal politikagintzaren aktualitatearen inguruko espektroa zabala izan zela eta interesgarria, eta, alde horretatik, finalak berak ahots desberdinak eskaini zituela eta interesgarria izan zela. Eta Sarriegirena, esaten dizut, eseri orduko esan nion pila bat estimatzen niola egin zuena.

Ez al duzu uste bertsoa are jende gehiagorengana irits dadin lagun- du dezaketela halakoek?

Ez dakit. Sentitzen dut bertsoaren jiran jende bat oso bertso zaletasun trinkoa duena. Bertso zaletasun trinkoena, naturalki, euskaltzaletasunaren lurretik sortzen da. Euskaltzaletasunaren lur horren barruan kolore bat baino gehiago badira politikokoak, eta egia da, agian, antolakuntza gaitasuna eta bertsoarekiko hurbiltasuna kolore politiko jakin batzuek gehiago erakutsi izan dutela eta horren jiran ibili izan dela gehiago bertsoa, baina denera beti zabalik egon da. Eta gaur egun batzuk pixka bat gehiago hurbiltzeko balio badu, begira... Baina hurbildu ez baldin badira

"Maialenengan nabarmentzen da gaiari heltzeko ze esku finak erakusten dituen"

Bigarrenez egokitu zaio Arzallusi BECeko buruz burukoan Lujanbiorekin aritu beharra, "eredu" duenarekin. Txapela nola eraman, lagunaren gomendiorik oraindik jaso gabea zela zioen, baina interesatzen zaiola diotsuna entzutea.

Lagun artean komentatzen genuen, nolabait sinplifikatuz, Maialenek poesia egiten duela bertsoan, eta zuk hitz egiten duzula agian gehiago.

Bai, izan liteke. Gero, norbera ere saiatzen da tokatzen denean poesia egiten eta ahalik eta ondoen egiten. Baina Maialenek poesia nola egiten duen eta bilatzen duen bertsoa, egia esan... Nondik ekartzen duen eta gai bakoitzari heltzeko bilatzen dizkion ertzak, niretzat, izugarriak dira. Baina hori izanda ere, nahi bada, bere bertute bat, Maialenek ere bertso jario oso fluidoa du, eta ez da erraza hark bertsoan egiten duena baino egokia go hitz egiten ere. Uste dut denek badugula pixka bat denetik eta saiatzen garela putzu horietan guztietan ziprirtintzen. Nik esango nuke Maialenengan nabarmentzen dela gaiari heltzeko ze esku finak erakusten dituen; eta handik gero, hori hitzetan jartzean, oso modu poetikoan azaltzen du; ni, txiki-txikitatik, bertso eskolara eraman ninduen aitak, eta bertsoaren tra-

dizioa oso umetan edan nuen, ia neu ohartu ere egin gabe; eta handik dator, agian, -zuk esan duzu hitz egitea- bertsoera fluido samar bat, edo erraz etortzea bertsoa. Baina saiatzen naiz neu, kontraesankorra dirudi baina, batzutan, erraz datorren hori zailago bilatzen eta ez hain errazetik botatzen, eta gaiari edo bertsoari berari ekartzen beste zerbait, utziz gero datorren ahots horri joaten ekarriko ez lukena, behar bada. Bakoitzak bere moldea du, baina saiatzen gara besteengandik ikasten, eta denok elkar kutsatzen dugu pixka bat.

Aimar eta Irujoren artekoa izan zen bezperan, klasikoa. Maialen eta zure artekoa ez dakit klasiko bihurtzeko arriskurik ikusten duzun, klasikoa komatxoekin edo komatxorik gabe, nahi duzun gisan.

Ez dakit. Bi aldiz gertatu da, eta orain dela lau urte niretzako izugarriko bihozkada izan zen Maialenekin bukaera hartan joatea, eta aurten ere... Maialenen ondoan ni beti ondo sentitu izan naiz, ez bakarrik txapelketan; plazan, elkarrekin egon garen guztietan, egia esan. Lagun ona da kanturako, eguna pasatzeko... Askok ikasi dut nik Maialenekin, eta ez dakit hori

klasiko bihurtuko den edo ez. Nik uste dut beste bertsolari batzuk han jiran zeudenak eta finalean ez zeuden batzuek ere badutela buruz burukora iristeko maila, egunak nola laguntzen dien; orain, gertatu zaigu azkenekoan eta oraingoan guk biok pasatzea eta, egia esan, niretzat izugarriko ohorea da Maialenekin hor egotea bukaerara arte, eta berriz gertatuko balitz beste hainbesteko poza hartuko nuke. Gero, esan dizudana, gehiago ere badira bertsolariak eta arrisku hori beste batzuek puskatzeko arriskua ere beti gustatzen da.

Nik, pertsonalki, ia Maialen bezain txapeldun sentitu zaitut zu. Ez dakit zure rola asko aldatuko ote den, zentzu horretan, behin egun hauek pasatzen direnean.

Ez dakit. Neuk ere ikusi egin behar du gertatzen gertatzen eta ze sentimendu dudan. Baina nik bada- kidana da, azken lau urteotan, lehe-

"Han zeuden beste bertsolari batzuek ere badute buruz burukora iristeko adinako maila"

nagotik ere bai baina azken lau urteotan bereziki, noan leku bakoitzean saiatzen naizela nire aurpegi-rik onena erakusten eta koska bat igotzen edo ahalik eta zorrotzena eta ahal dudan onena izaten. Nahikoa autokritikoa izaten naiz gero bueltan. Eta aurreantzean ere saiatuko naiz ertz batzuk edo fintzen, baina nik orain arte egin dudan plaza-ahalegin berdinean jarraituko dut orain.

orain arte arrazoi konkretu horregatik, nik uste dut oso erreala ez den mito bat ere bazutela beren baitan. Azkenean, bertsolariak berak sentitzen duena kantatu behar du, eta bertsolariak presoen gaia aboratzatzen badu, hori barruan sentitzen duelako eta errealtate gordin hori hor dagoelako da. Eta norbaitek horiek entzun eta zerbait sentitzen badu, behar bada berak dauka arazotxo bat errealtatearen aurrean. Nik uste dut onartu behar zaiola bertsolariari ematen duen ahotsa, eta denek ez dute berdina ematen, eta aniztasun hori badago. Beraz, bertsolariaren inguruko mito hori ez da guztiz egia; baina orain hurbiltzen bada bestelako jende bat, estimatuko da. Bertsolariak denon arteko elkarbizitzarako lanketa bat egiten du, baina nork bere irizirik kantatu behar du, gordina izan edo zorrotza; eta denok izan behar dugu entzuteko onarkor.

Zuek esaten duzuenak eragina eta pisua du. Eredu edo iritzi sortzaile izan zaitezke.

Nik nahi dut inguratzen gaituzten gaiak ongi hausnartuta eramatea plazara, gero handik kantatu behar dudalako. Batzutan norbaiti kilima edo harramazka egiten badio... Bertso jardunak badu funtzio kritikotxo bat ere, eta, agian, identifikatzen garen horrek ere zirikatzaile jokatu behar dugu. Funtzio kritiko hori bete behar du bertsolariak eta bidezidorretatik joan pixka bat. Horrek badu eragintxoak; batez ere finalean, hain dago bolumen handian kantatzen duzun hitz bakoitza eta hainbeste iristen da... Egia esan ez zara kontzientegi momentu horretan eragin hortaz, eta kontziente bazina, behar bada, amildegi baten oso ondoan babiltzala sentituko zenuke; bertsoak beti badu erortzeko arriskua, esan nahi duzunaren eta bertsoak behartzen zaituena- ren arteko borroka bat da, eta beti ez zara esan nahi duzun horretara iristen, eta arrisku horren aurrean eta hainbesteko eragina ikusita, beldurtu ere egin zaitezke. Eragin hori baduela bai; kontziente garena, nolabait, bai; baina gu geure oso barnean gabil- tza, bestela bertigo handiegia litzateke kantatzeko agian.

Elkarriketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



PIVE 4. PREZIO ERREALETAN OINARRITUTAKO ISTORIO SINESTEZINA

ESKURA EZAZU PREZIO EZIN HOBEAN ETA EKIPAMENDU GUZTIEKIN



NISSAN QASHQAI
1.6i 117 ZP Acenta Stop&Start

15.950€ -ren truke



NISSAN
Innovation that excites

GAURSA

Otaola ibilbidea, 22 - Eibar 20600
Tel. 943 82 09 74

www.goursacars.com

Kontsumo mistoa: 5,9 l/100 km. CO₂ jaulkipenak: 139 g/km.

* Penintsulan eta Balear uharteetan gomendatutako PSPa, honako hauek barne: garraioa, Nissan Assistance, sustapen-deskontua, PIVE 4 plana, PIVE 4 planerako fabrikatzailearen ekarpena Nissan Iberiak bermatuta bezero partikularren eskaera berrietarako PIVE 4 planeko baldintzak bete ez arren, BEZA eta ZGGZB Espainiako merkaturako; baliteke aplikagarria ez izatea zure komunitate autonomoan. Eskaintza hauentzat izango da balagarria: Nissan QASHQAI 1.6i 117 CV (86 kW) Stop&Start erosten duten, eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailua entregatzen duten eta Espainian sukurtsala duen RCI Banque SArekin, Magic Plan bidez finantzatzen duten partikularrentzat eta autonomoentzat. 24 hilabeteko gubeiako egonaldia. Ez da beste kanpaina batzuekin bateragarria. Itzakinak agortu arte eta 2013/12/31ra arte. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazu gertuen duzun Nissan kontzesionariara. Bistaratutako modeloa: Nissan QASHQAI 360.

HERRIAK

ANTZUOLA

Zirkulazioa aldatuko duen biribilgune berria Sagastin

- Oraingo astelehenean irekiko dute Sagastiko biribilgune berria
- Olan etxeke autobus geralekua Sagastiko biribilgunera pasako dute

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Azken urteetako nahietako bat egia bihurtzetik hurbilago dago, egun batzuk besterik ez da falta; izan ere, astelehenean irekiko dute Sagastiko biribilgune berria eta horrek aldatuta eragingo du herriko zirkulazioan; garraiobide publikoan, bereziki.

Hainbat herritarrek proiektua lehenago ezagutzeko aukera izan dute, obra egiteko beharrezkoak ziren lursailak Udalari musu truk utzi zituzten lurjabeek, hain zuzen ere. Horrela, Kontxi Agirreurretak eta Basilio Ormazabalak Inma Beristain alkatearekin, Maddi Elortza Kultura zinegotziarekin eta Valen Moñux Hirigintza teknikariarekin batera bisitatu zituzten obrak eguaztenean. Haiekin batera, Ortuibar eraikuntza enpresak utzi zituzten lurak Udalari.

"Arazo bat genuen autobusak herri barruan egin behar zuten ibilbidearekin eta hasieratik pentsatzen genuen egokiena horrelako biribilgune bat egitea zela. Gure baliabideak eskasak izanda, harremanetan jarri ginen lur horien jabeekin eta eurek onartu egin zuten gure eskaria, herritar guztien onerako. Gaurko argazkia eurei eskerrak emateko da, herritar guztien partez", adierazi zuen Beristainek Sagastiko biribilguneko bisitaren ostean.

Bi hilabeteko lanak


Urriaren 7an hasi zituzten Sagastin biribilgunea egiteko lanak. Lehen, bidegurutze normala



Inma Beristain alkatea lursailak utzi dituztenekin eguaztenean bisitan. | JOKIN BEREZIARTUA



Zumarraga eta Bergara arteko autobusaren ibilbidea. | UDALA



Bergara eta Zumarraga arteko autobusaren ibilbidea. | UDALA

zegoen kalearen amaieran, GI-632 errepideko sarbidea zegoen alde batetik eta Kalegoirako sarrera bestetik. Bi hilabeteko lanak aurreikusi zituzten, baina azken asteetan egindako euriteek egun batzuetan lanak geldirik egotea eragin zuten. Ondorioz, aste honetan amaitu dituzte azken lanak eta, hala, astelehenean irekiko dute 27 metro dituen biribilgunea.

Aldaketak autobusetan

Autobusa herrigunetik ahalik eta gutxien pasatzeko egin dute biribilgune berria Sagastin. Horren ondorioz, egun Olan etxearen ondoan dagoen geralekua Sagastira aldatuko dute eta hura izango da herriko geltoki bakarra -Antiguakoa ere kendu egingo dute.

Zumarragatik Bergarara doazen autobusak GI-632 errepidetik Sagastiko biribilgunera sartuko dira, eta jendea utzi eta hartu ostean, errepidera itzuliko dira herritik pasa gabe. Bergaratik Zumarragara doazenak, berriz, Sagastira sartu eta biribilgunea dagoela aprobetxatuz, behera joan eta eskola ondotik Buztin-zurin gora egingo dute. Antiguako bidegurutzetik berriro GI-632 errepidera irtengo dira. Aldaketa horien ondorioz, aurrerantzean autobusak ez dira Uzarraga, Sanjosepe, Lizarraga, Kalebarren eta Aiherra kaleetatik pasako.

Garraiobide publikoa herrigunetik ateratzeko lehen pausoa emana dago eta Gipuzkoako Foru Aldundiak GI-632 errepidean beste biribilgune bat egiteko itxaropenez jarraitzen du Udalak, horrekin lortuko baita autobusak herriko kaleetan ez ibiltzea.

DATUA

27

METRO

Sagastiko biribilguneak 27 metro ditu eta bi hilabete behar izan dira egiteko.

Azaroaren 30ean, Bergarako tostoi eta errelleno dastaketan parte hartu zenuten guztioi,
ESKERRIK ASKO eta ondo pasa Gabon jaiak!



Tel.: 943 76 10 51



Tel.: 943 76 11 83



Tel.: 943 76 10 34



Omenaldia 90 urtetik gorakoei

Abaroa elkarteak Etxaluzen antolatu zuen ekitaldia

JULEN IRIONDO /J.B. | ARRASATE

Abaroa erretiratu elkarteak omenaldia egin zien martitzenean 90 urte baino gehiago dituzten bazkideei. Arrasateko erretiratu elkarten artean bazkide gehien dituen elkartea da Abaroa eta urtero bazkide edadetuenekin keinu bat izan ohi dute Gabonen atarian. 39 emakume eta 17 gizonezko zeuden martitzeneko ekitaldira deituak. Gustura jaso zituzten guztiek Abaroa elkarte-ko abesbatzaren kantuak eta eman

zizkieten opariak. Ignacia Llodio, esaterako, "oso gustura" geratu zen omenaldiarekin eta koruak "ederto" abestu zuela esan zigun. Bestalde, egunero egiten du ibilalditxoa: "Bakarrik ez, baina paseoa egiten dugu; mezetara joan, eta gero etxera". Eskola garaia ere ekarri zizkigun gogora: "Eskolan 6 urterekin hasi ginen, orduan auzoetan ez zegoen-eta eskolarik. Ni Santa Agedakoa naiz eta Garagartzara joan nintzen eskolara, 6 urterekin".



Abaroa elkarte-ko abesbatza kantuan, martitzenean, Etxaluzen egindako omenaldian. | JULEN IRIONDO

Egunero bisitatxoa Etxaluzera

"Lan handia" egiten zuten orduan: "Eta genuena ondo arrazionalizatu, ogi nahikorik ez zegoen-eta", esan zigun Llodio. Horrenbeste urte bizitzeko zein den sekretua? Hona Cipriano Irigoien omen-

duaren erantzuna: "Larregi ez edan eta jan behar den moduan egin". Irigoienek egunero du ohitura elkarte-ko egoitzara, Etxaluzera, bisitatxoa egiteko: "Egunero etortzen gara jokoan egitera, kartetan-edo. Kuadrillan elkartzen

gara eta ederto pasatzen dugu". Datorren urteko omenaldian ere hutsik ez egiteko asmoa erakutsi ziguten bi protagonistek.

2014an 100 urte beteko dituzte Abaroako emakumezko eta gizonezko bazkide nagusienek.



2014an ere Irrien Lagunen puzgarriek ez dute hutsik egingo. | JOKIN BEREZIARTUA

Txikilandia %40 merkeagoa eta eskaintzaz zabalagoa izango da

J.B. | ARRASATE

2014ko urtarrilaren 2tik 4ra ospatuko da Txikilandia Uarkape pilotalekuan. 2013an baino arratsalde bat gehiagoz izango dira ekintzak eta sarrerak zein bonuak %40 merkeago salduko dituzte; Udak eta Txatxilipurdik, herriko zenbait enpresaren laguntzarekin, ahalegin berezia egin dute aurten prezioak merkatzeko.

Igerilekuetako jolas eta puzgarriekin estreinatuko dute 2014ko Txikilandia, ohikoa baino egun bat lehenago. Gainera, eskaintza zabalagoarekin dator; izan ere, arratsalde bat gehiagoz gozatu ahal da Uarkapeko tailer, puzgarri, ludoteka, ohe elastiko, karaoke eta beste

hamaika jolasez. Honakoa izango da ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Irrien Lagunak gaztetxean

Gaztetxeak aurten hirugarrenez jardungo du Txikilandia bultzatzeko Txatxilipurdirekin elkarlanean. Gaztetxean izango da, adibidez, Irrien Lagunen ikuskizuna: urtarrilaren 4an, 19:00etan. Ateak zabalik egongo dira joan gura duen edonorentzat, doan.

Informazio gehiago

jasotzeko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Xabier Jauregi Elixhir dendako ugazaba

"Hauen kontsumoa arnasketan eta azal eta hortzen osasunean igartzen da"

Elixhir izenarekin bataiatu dute zigarro elektronikoak saltzeko Arrasaten asteon zabaldu duten saltoki berria. Izena bat dator saltokiko ugazaba Xabier Jauregik produktuari buruz esandakoarekin



Xabier Jauregi ugazaba eta Olatz Sierra Ajuria saltzailea.

Jauregik eta Olatz Sierra Ajuria saltzaileak argi utzi gura dute zigarro elektronikoak ez direla osasunarendako kaltegarriak. Are gehiago, onurak azpimarratu dituzte: aurreztu egiten da; ez dituzte ez ingurua eta ezta ingurukoak ere kutsatzen, eta osasunarendako besteak baino hobek dira.

Bai? Hasi gara, bada, entzuten kaltegarriak ez ote diren...

Kontrako kanpaina da, interes ekonomikoak tarteko. Hemen gehiago saltzen badugu, horrek esan gura du estankoa gutxiago saltzen dela. Eta jakina, hori Estatuarendako kaltegarria da, tabako-

tik eskuratzen duen zerga bilketan eragiten duelako. Gainera, medikuek ez dute esan kaltegarriak direnik.

Abantailak besterik ez diezue ikusten...

Bai. Aurrezte kontuei dagokienez, 35 euro da gastu nagusia. Atomiza-

gailua (30 euro) + likido pote bat (5 euro). Eta 10 tabako pakete arruntek, berriz, 40-50 euro balio dute. Gainera, promozioa dugu Gabonetarako: 30 eurorengatik, atomizagailua, likido pote bat, kargadorea, bateria eta oparia aukeran. Osasunari dago-

kionez, arnastea igartzeaz gain, azal eta hortzen garbitasunean ere igartzen da. Eta ingurua ez du bate-re zikintzen. Azken batean, lurruna da arnastea dena zigarro hauekin. Gainera, 40 zaporetik gora daude aukeran. Konpromiso barik proba daitezke gurean.

“Atomizagailurako likido poteak izan daitezke nikotinadunak edo nikotina bakoak, norberaren beharren arabera. Era berean, 40 zaporetik gora ditugu aukeran.”

LANDALUZE
HARATEGIA -TXERRIKITEGIA

BEREZITASUNAK
TRIPAKIAK
URDAIAZPIKOAK
ODOLOSTEAK

Zorionak eta Urte berri on!!!

Iturriotz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

EliXhir
e-cigarettes

Ego goi gamako kita
Bateria, atomizagailua, likidoa eta kargagailua barne.
Opari bat* aukeran: estutxea, zintzilarioa edo likidoa.

ESKAINZA
29,95
eurorengatik

PROBA EZAZU
DOAN

EliXhir e-cigarettes
Otalora lizentziaduna 21
Arrasate
633 66 94 52

* Dendan dauden diseinuetako bat aukeratu behar da.

Aho batez onartu zuen udalbatzak 2013-2017rako Euskara Plana

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
2013-2017rako Euskara Plana aho batez onartu zuen udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran. Hiru lan ildo nagusi ditu planak, Euskara zinegotzi Joxe Etxebarriak adierazi zuenez: herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzea, euskara beste herri administrazioekiko harremanetako hizkuntza izatea eta udal barruko lan hizkuntza ere euskara izatea. Etxebarriak gogora ekarri zuen 2008-2013 arteko planari Bikain Ziurtagiriaren urrezko maila aitortu ziola Jaurlaritzak. Ziurtagiri horren taldeko teknikariek, planaren indarguneak eta

alde onak aipatzeaz gain, hainbat proposamen egin zizkioten Udalari, plana hobetzeko. Horiek betetzen saiatzeko konpromisoa hartu zuen udalbatzak.

Herriko bideen ordenantza

Bestalde, herri barruko bideen erabileraren gaineko ordenantza onartu zuten. Arrasatek orain arte ez du ordenantza propiorik izan eta osokoan onartu zuten hasierako idatzia: "Mugikortasun planaren barruan kokatzen da. Oinezkoendako guneak nola bultzatu, abiadura nola arautu, isunak non eta nola jarri... Hala-ko erabakiak hartuko dira", esan zuen Maider Morrasedek, Udal Gobernuako bozeramaileak.



ENAUT ABARRATEGI

Herri eskola, murrizketen aurka

ELA, LAB, STEE/EILAS eta ESK sindikatuek deituta elkarretaratzeak egin zituzten martitzen arratsaldean Arrasate Herri Eskolako guraso eta irakasleek, *Wert Legea*-ren eta hezkuntzan izango diren murrizketak salatzen. Herri eskolako hiru guneetan egin zituzten protestak: Bedoñaben, Erguinen –argazkian– eta Musakolan.

Ikazkin maitatuaren laguntzaile leialenak

Txoronpioz eta Txoronpiatz aparte, Galtzagorriek jasoko dituzte aurten ume arrasatearren gutunak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Abenduaren 22a da Santamasetako egitarauko egunik handiena, urteko azoka nagusia eta gure jatorria festa giroan gogoratzen egunik esanguratsua. 1970eko hamarkadan galtzeko arriskuan egon zen festa, Santamaseguna laneguna zelako. Baina ordutik hona asko aldatu dira gauzak eta herrian oso errotuta dagoen jaia da egun. Horren errudun nagusia da Santamasetako Komisiñue, euren antolatu izan dute-eta festa, Udalarekin eta herriko hainbat kultura taldeekin batera.

Egun handiena izango da etziko, baina ez bakarria. Komisiñuek haratago joan gura izan du azken bost urteotan bereziki, eta ume arrasatearren ilusio iturri eman-

korrena den Olentzerori laguntzaileak aurkitzen lan mardula egin dute. Lamina, Basajaun, Martin Abade, Akerbeltz... gisako pertsonaiak jarri dituzte Txoronpioren eta Txoronpiaren ondoan, Olentzerok umeen eskaera guztiak jaso ditzala bermatzeko.

ESANAK

"Laguntzaile eta lagun talde handia dauka Olentzerok"

UTZUNE URRIZALKI | KOMISIÑUE



Olentzero San Andrestik irtengo da (18:00) eta

Galtzagorriak, langile bihurriak

Olentzeroren laguntzaile berrien ideia nondik sortu zen azaldu digu Komisiñoko kide Utzune Urrizalkik: "Ezin dugu ahaztu Olentzero pertsonaia mitologikoa dela. Hori kontuan hartuta, gura genuena zen euskal mitologiako beste pertsonaiekin lotzea, ez dugulako nahi Olentzero opariak bakarrik ematen dituen pertsonaia moduan ulertu nahi. Olentzero Euskal Herrian sustraituta dagoen pertsonaia da, baina ez da bakarra; laguntzaile eta lagun talde handia dauka".

Bada, aurten Galtzagorriak izango dira protagonista: "Pertsonaia bihurriak ziren. Bihurriak, eta ez gaiztoak, eta oso langileak. Lan zailak egitea gustatzen zitzairen, errazak zirenak di-baten egiten zituzten-eta. Hori bai, lan barik geratuz gero bihurrierietan hasten ziren", kontatu digu Urrizalkik. Ikastetxeetan aurkeztu dituzte pertsonaiok, hilaren 24rako haurrek ezagut ditzaten: "Lanketa horren helbu-

UMIE

Gabon zoriontsuak guztioi!

Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86

% 15eko
DESKONTUA

Egin zaitez gure lagun  -en: UME ARRASATE



Galtzagorria eta haren laguna Herri Eskolako Musakola gunean. | ARRASATE HERRI ESKOLA

errekata

taberna - jatetxea

Ondo ibili Santamasetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28



ohiko ibilbidea egingo du, Herriko Plazan amaituta (19:00). | NAGORE IRAOLA

rua izan da umeek jakitea Galtzagorriak nortzuk diren, nondik nora datozen, zertarako...".

Aurten inoiz baino goizago hasi dira ikastetxeetan lanean eta horrek ahalbidetu die Olenzerori emateko gutunak haurrek eskuetan jasotzea: "Aspaldi, duela 20 bat urte, Olentzeroren Lagunek banatzen zizkieten eskutitzak haurrei, eskura. Azken urteetan hori albo batera utzita genuen eta oraingoan berreskuratu gura izan dugu. Lan horretarako, bi Galtzagorri erabili ditugu".

Borondatea eta inplikazioa

Arrasate Herri Eskolan egon ziren lehenengo eta asteon egon dira Arizmendin, Haur Hezkuntzako ikasle guztiekin eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleekin: "Ikastetxeen inplikazioa eta laguntza eskertu gura dugu. Euren dako lan estra bat da; plangintza baten barruan egiten dute lan eta gu kanpotik sartu gara. Oso harre-ona izan du, izugarri lagundu digute", azpimarratu du Urrizal-

kik. Eta ezin ahaztu Galtzagorrien lana: "Oso lan eraginkorra egin dute, 1.000 umerekin baino gehiagorekin egin dira".

Lanegun luzeena

Beraz, hilaren 24an, Txoronpio, Txoronpia eta bi Galtzagorri auzorik auzo joango dira umeen eskutitzak batzen; azken gutunak Seber Altube plazan jasoko dituzte (13:15). Eguraldi txarra egiten badu, Uarkapera joango dira.

Arratsaldean helduko da ikazkin maitatuenaren txanda: 18:00etan irtengo da San Andrestik, eta, ohiko ibilbidean zehar gozokiak banatu ostean, 19:00 aldera helduko da Herriko Plazara. Mutil-dantzarekin eta herri-dantzarekin agurtuko dute, ordutik aurrera opariak eta ikatza banatzen lanegun luzea izango du-eta...

Santamasetako gehigarria ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Txoronpio, Txoronpia eta Martin Abade iaz, Munar parkean haurren gutunak batzen. | SERGIO AZKARATE

Placi Valor | Ecolaudryko arduraduna

"Ordu bakarrean erabiltzaileek arropa guztia garbi eta lehor izango dute"

La konturatu gabe etxean arropa zikina pilatu egiten da. Bidaia baten bueltan, eguraldi txarra dela eta, etxeko toallak edo nordikoak garbitu eta hauek sikatzeta lan nekeza izan ohi da. Placi Valor aretxabaletarrak Arrasaten ez zegoen zerbitzu bat emango du: Europan eta Ipar Amerikan hain ohikoa den autozerbitzu arropa-garbitzea. Hau, baina, berezia izango da, bertan emango diren zerbitzuek ingurumena zainduko dute-eta.

Nola bururatu zitzaizun arropa-garbitzea martxan jartzea?

Opor batzuetan otu zitzaizgun. Uda atseden hartze-ko garaia da, eta, arropa dezente pilatu genuenez, garbitegi batera jo genuen. Gure esperientzia positibotik sortu dugu Eco-laundry.

Autozerbitzu hauek telebistatik ezagutzen ditugu; bada, nola funtzionatuko du?

Oso erraza izango da; pareta nahiz garbigailuetan argibideak azaltzen diren orriak egongo dira. Jendea ohitzen joan arte, ni lokalean egongo naiz. Dena den, argibideak behar dituztenentzat telefono bat egongo da.

Xaboa ekartzea beharrezkoa izango da?

Ez, makinek xaboa jartzen dute, Bizkaiko El Abrempresatik ekartzen ditugu. Xaboi bereziak dira, ez dute

apenas kutsatzen, eta arropa ere asko zaintzen dute. Kalitatea bermatzeaz gainera, ekologia ere sustatu beharra dago; hala ere, nor bere xaboa ekar dezake.

Zerbitzuak zein kostu izango du?

9 kilokoak 6 euroko kostua izango du; 18koak, aldiz, 12 eurokoa. Handian 36 bainu-toalla garbitu ahal izango dira. Lehor-gailua ere merkea da, 2 euro besterik ez.

Eta denbora?

Prozesu guztiak, garbiketarako eta lehortzeak, ordubete iraungo du.

Tokia ez duzue zoriz aukeratu.

Ez, horixe. Tokia primerakoa da. Autoa atean uzteko aukera dago, autobus geltokitik 50 metrora eta erdigunearan atean. Jendearan erositakoa bermatzeaz gain, arropa garbitzen duen bitartean mandatuak egiteko aukera izango du.



Guztira lau garbigailu (bi 18 kilokoak eta beste bi 9 kilokoak) eta bi lehorgailu egongo dira. Horrez gain, erabiltzaileen erosotasunerako arropa tolesteko mahai bat eta nahi duenak bertan itxaron ahal izateko banku bat ere izango ditu garbitegiak.



Galtzagorriak asteon, Arizmendiko Olarte guneko umeekin. | ARIZMENDI



ARPE

Ile apaindegiko artikulua


- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

ecolaundry

Garbitu eta sikatu zure arropa
ORDUBETEAN

Garbitegi
autozerbitzua



Edredoiak, mantak, gortinak,
alfonbrak, zorro nordikoa...
Era guztietako arropa.

Laster zabalik!

Zerkaosteta 16, behea bis ARRASATE – Tel.: 654 11 14 26
www.ecolaundry.es – arrasate@ecolaundry.es



Eskuartean taldeko artisauen azoka prest da

Abenduaren 23an eta 24an artisauen azoka egongo da Seber Altube plazan

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Eskuartean-ek, Arrasateko artisauak sortutako taldeak, Seber Altube plazan azoka jarriko du abenduaren 23an eta 24an. Azoka horren leloa *Eskuz eginda, bihotzez oparituta* da; izan ere, Gabonetako opari berezi eta originalak erosteko aukera paregabea izango da. Egunotan buru-belarri ibili dira azoka prestatzen, erakuslehoi paregabea da-eta.

Eskuartean artisau taldean Arrasateko hamabi artisau daude; hala ere, azokan hamasei postu egongo direla esan du Vanesa Gonzalezek, taldeko kideak.

Beste lau postuak gonbidatu dituzten artisauentzako izango dira. Beraz, kalitatezko produktu paregabeak lortzeko aukera egongo da astelehenean eta martitzenean.

Produktu polit eta originalak

Azokan zer aurkituko dugun galdetuta, eskuz egindako kalitatezko produktuak izango direla esan du Gonzalezek. Bi adjektibo horien azpian, baina, hainbat produktu daude.

Besteak beste, zilarrez egindako produktuak, makramea, aerografian egindako gauzak, diseinu bereziekin egindako bitxiak eta

umeentzako produktuak egongo dira salgai Seber Altube plazan jarriko dituzten postuetan.

Zozketa solidarioa

Aurtengo azokak, baina, badu berezitasun bat: zozketa bat egingo dute. Gainera, ez da edonolako zozketa izango: bildutako dirua Gipuzkoako elikagaien bankuarentzat izango da. Zozketan, hamasei artisauentzako hamasei produktu oparitu dituzte. Abenduaren 23an, astelehenean, 13:00etan egingo dute zozketa, eta goiz osoan txartelak postuetan salgai egongo dira.



Arrasate Musikal aspaldiko emanaldi batean. | ARRASATE MUSIKAL

Arrasate Musikalen dokumentala aurkeztuko dute gaur Kulturaten

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Arrasate Musikal, herri baten adierazpena ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute gaur, 19:30ean, Kulturaten. 40 urteko ibilbidearen errepaso egiten duen DVDA aurkeztu aurretik, baina, ikasleek kontzertua eskainiko dute, iraganak eta etorkizunak bat egiteko.

Dokumentala bi zatitan banatzen da: alde batetik, 40 urteen kontakizun kronologikoa egiten da, egoitza aldaketa eta irakaskuntza ereduaren aldaketa tarteko; eta bestetik, gaur egungo egoera azaltzen da. Hau da, Arrasate Musikalen barrualdea ezagutzeko ezinbestekoa da egubakoitzean aurkeztuko

duten ikus-entzunezko lana.

DVDan eta USBan

Ikus-entzunezko lana DVD formatuan eta lau gigabyteko pendrive baten salduko dituzte hamar euroren truke.

Urte amaierako kontzertua

Abenduaren 31n, Arrasate Musikaleko Musika Bandak urte amaierako kontzertua eskainiko du, 13:00etan.

Urteroko hitzordu hori beti izan ohi da berezia musikazaleentzat; aurten, gainera, Gokobalu abesbatzako laguntza izango dute. Beraz, urteari amaiera emateko aukera paregabea izango da.



Eskuartean artisau taldeko kideak Azokan. | ESKUARTEAN

Aggressive Combat taldeak bira txiki bat egingo du Alemanian

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Aggressive Combat punk-oi! taldeak Alemania aldean emango ditu Gabonetako oporrak. Izan ere, abenduaren 26an Essen hirian egongo dira eta 28an Berlinen.

Back on the streets boskotearen azken lana gurean aurkeztu ostean, Europara egingo dute

jauzi datorren astean.

Taldekideen asmoa abenduaren 25ean furgonetan sartzea eta hurrengo egunean Alemaniako mendebaldean dagoen Essengo Südrock tabernan kontzertua eskaintzea da. Bertan, Bartzelonako Pennycocks taldearekin partekatuko dute oholtza.

Beste behin ere, Berlinen

Mini-birako hurrengo geldialdia Berlingo Kreuzberg auzotegiko Clash taberna izango da. Aggressive Combaten bigarrena izango da bertan, duela bi urte ere bertan izan baitziren, Alemania aldean egin zuten lehen biran.

Oraingoan, baina, Italiako bi taldeekin partekatuko dute oholtza, reggae musika jotzen duten Rude & the Lickshots taldearekin eta The Offenders punk-ska taldearekin.

Aurten ere Sumendi gozoki-dendara joango da Olentzero

Arimazubi plazan dagoen Sumendi gozoki-dendak aurten ere bisita berezia jasoko du. Olentzero gozoki-dendara joango da, martitzen gauean gaztetxo guztiei opariak banatzen hasi aurretik. Abenduaren 21ean, zapatuan, 12:30ean agertuko dela esan du, bertan azken orduko gutunak jasotzeko prest. Pasa den urtean ere, Olentzero bertatik pasatu zen, eta, gerturatu ziren haurrei hutsik ez egiteko, aurten bisita errepikatuko du. Gutunak eta marrazkiak eramateko dei egin die Arrasateko eta inguruko herrietako gaztetxoek.

The Potes eta Los Galerna, Dat tabernan, Gabonetako egunetan

Dat tabernak aurten ere kontzertuak antolatu ditu Gabonetako egunetarako. Lehenengoaren protagonistak The Potes izango dira: punk-folk irlandarra jorratzen duen talde arrasatearra. Abenduaren 25ean, Gabon egunean, izango da kontzertua; bazkaria dantzan digeritzeko aukera paregabea izango da. Eta egubakoitzean, hilak 27, festa mexikarra egingo dute Los Galerna taldearekin. Musikaz gain, *takoak* eta *micheladak* izango dira protagonista; eta kontzertuaren ostean, musika-jartzaileak egongo dira gaua girtzeko.

JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA

Euskal okela, bertan egindako txorizoa eta janari prestatuak

Olarte kalea 20
ARRASATE

Zorionak
eta Urte berri on!

SARRILAGINTZA-LANAK,
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
Oinetako konponketak - Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak



RAOS

Bañez doktorea 6, behea
Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57

Herriko pilotari gazteak profesionalekin batera

Uarkape Udal Pilotalekuan jokatu dituzte partiduak domekan, 18:00etan

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Pilota partiduz jositako asteburua izango da Santamasetan; izan ere, Gipuzkoako Txapelketako finala jokatzear gain, Santamasetako jaialdia ere jokatu da domekan. Arratsaldean hasiko dira partiduak. 18:00etan: Moron eta Garate Arrasateko Eskola Pilotako gazteen arteko norgehiagoka izango da.

Herrikoek amaitu ondoren, partidu nagusia hasiko da: Goñi II.a eta Bolinaga, Zuazuaren eta Lasa III.aren aurka. Partida interesgarria izango da, beti ematen baitio Goñik bere puntu pertsonala. Indarrak eta umorerik ez da falta izango, ezta pilota bat galtzerakoan pilotarien amorrui oihiak ere. Herriko bi gazte eta profesionalak izandako bi pilotari arituko dira aurrez aurre, beraz. Lehen aldia da mota horretako partidu bat antolatzen dena eta herritarren gustukoa izango delakoan daude antolatzaileak.

Sarrerei dagokionez, 10 euro balioko dute eta Irati, Iturriotz, Iluntz, Taupa, Kajoi eta Meneta tabernetan erosi ahal izango dira, baita egun berean Uarkape Udal Pilotalekuan ere.

Gazteak vs profesionalak

Profesional izandakoei aurre egin eta bikotekide onak direla adierazteko aukera izango dute Bolinagak eta Zuazuak; izan ere,



Oskar Lasa eta Mikel Goñi izango dira Uarkapen. | GOIENA

elkarren aurka arituko dira, baina bi pilotari handi izango dituzte bikotekide: Goñi eta Lasa. Bolinaga oso pozik azaldu da: "Udan ere Goñirekin partidu batean jokatu nuen eta oso pozik nago berriz ere harekin jokatu. Askok lasaitzen du eta asko ikasten da harekin. Oso jatorra da eta ilusioa egiten dit", adierazi digu arrasatearrak. Ahalik eta partidu gehien jokatu nahi ditue-

la esan du Bolinagak: "Senior mailan nago eta nire erronka, gaur egun, ahal ditudan partidu gehienak jokatzeko da". Eta asteburu honetako ilusio handia egiten dio, herrian bertan aritzeaz gain, profesional izandako Oskar Lasaren aurkari eta Mikel Goñiren bikotekide izango delako. Bolinagak, gainera, Zuazua ondo ezagutzen du, batera aritu baitira behin baino gehiagotan.

Etxabe eta Fernandez, Santamasetako finalera

Bihar jokatu dituzte torneoko finalak Musakolako kiroldegian, 11:00etan hasita

A.E | ARRASATE

Teniseko Santamas torneoa azken txanpan sartu da. Zapatuan eta domekan final-laurdenak jokatu zituzten Musakolako kiroldegian, eta, azkenean, Julen Etxabe eta Eneko Fernandez izango dira bihar, abenduak 21, lehiatuko diren bi lagunak. Toki berean jokatu dute, 11:00etan hasita.

Ezusteak partiduetan

Aurtengo txapelketako partiduetan ezusteak asko izan dira, partiduak gogorak eta oso interesgarriak izan dira; hori adierazi du, behintzat, Eneko Fernandezek, antolaketako kideak: "Jendeak asko disfrutatu zuen zapatuan lehiaketan aurrera egiteko. Sarritan, gainera, partiduak buelta ere eman zuten, irabazten hasi eta galtzen amaitu; interesgarriak benetan".

Bestalde, datu aipagarri bat eman zuten antolatzaileek: fina-

la jokatu duen Julen Etxabe torneoko parte hartzailearik gazteena dela, hain zuzen. Gainera, aurtengo txapelketan berritasun bat egon da: ofizialtasuna. "Euskal Federazioko egutegian sartu eta federatuentzat egin dugu txapelketa, arau ofizialekin eta Aloña Mendiko jokalariek gonbidatu. Hau AKERen jardueran beste aurrerapauso bat da", eman du aditzera Fernandezek.

Balorazioari dagokionez, positiboa izan da: "Aurreko edizioetan ligaxkak eta kanporaketak jokatzeko ziren, baina txapelketak asko luzatzen ziren, eta antolaketa nekezagoa egin. Horregatik, aurtengo kanporaketa formatua ematea erabaki dugu eta guztiz asmatu dugula uste dugu. Gainera, jendeak bai edo bai jokatu behar du eta giro politagoa sortzen da kiroldegian, ligaxka formatuarekin kale asko egoten baitziren".



Asteburuan jokatu dituzten partidu bat. | SORIANO

Gipuzkoako txapelketako finalean, herriko gazteak

Pasa den egubakoitz iluntzean jokatu zen Gipuzkoako klubaren arteko txapelketaren finalurreko partidua. Arrasateko Egia eta Garate pilotariak Hernanikoak hartu zituzten menpean Uarkape pilotalekuan; etxekoek 22-16 irabazita lortu zuten finalerako txartela. Bihar, aldiz, jokatu dute finala, Uarkapen, 10:30ean hasita. Baina ez zen izan pasa den astean jokatu noren norgehiagoka bakarra, Santamasetako pilota txapelketako finalurrekoa ere jokatu baitzen. Asteburu honetan, beraz, txapelketako irabazlea zein den jakingo dute pilotazaleek.



Pilotariak frontoian lanean. | SORIANO

Mondrak Sorluzeren bisita izango du asteburu honetan

Aurreko jardunaldian berdindu ondoren, asteburu honetan Sorluzeren bisita izango dute Arrasateko mutilek. Saillapen orokorrean berdinduta daude bi taldeak; hortaz, aurrerapausoa emateko partidu garrantzitsua izango da zapatuko; 16:30ean jokatu da, Mojategiko zelaian.

MU saskibaloi taldeak Avia Zizur Ardoi taldea bisitatuko du


Padura taldearen aurka garai-pena lortu ondoren, Mondragon Unibertsitateko mutilak indartsu eta gogotsu daude saillapeneko bigarren postuan. Asteburu honetan, Avia Zizur Ardoi taldea bisitatzera joango dira. Talde hori azken-aurreko postuan dago, hama-bi punturekin.

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gabon zoriontsuak!

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Santamas jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

Udalerrian auto gehiegi ibiltzen direla jaso du Intrak

Mugikortasun ekintza plan berria otsailean jartzeko asmoa du Udalak

T.M. / O.E. | OÑATI

Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Plana ari da egiten Oñatiko Udala. "Planaren oinarria ibilgailua izan beharrean herritarra izatea gura dugu eta lehentasuna herritarrak izango duen mugikortasun plana izan gura dugu", adierazi du Leire Egañak, Ingurumen zinegotziak.

Orain arteko mugikortasunaren diagnostia egin du Intra enpresak eta horren aurkezpena egin zuten Mugikortasun Foroaren lehen saioan. Aste honetan egin dute bigarrena. Eragileekin bilera egiteko asmoa ere badu Udalak, ekarpenak jasotzeko. Bilera

horietako ekarpen, proposamen eta kezka Intra enpresari pasako dizkio Udalak, ekintza plana definitzeko. Asmoa da otsail hasieran martxan jartzea mugikortasunaren ekintza plana.

7.237 auto pribatu

"Ekintza plan hori izango da egungo mugikortasuna hobetzeko", adierazi du Intra enpresako Diego Gomezek. "Bizikleta asko erabiltzen da Oñatin, eta askok ohitura moduan dute, gainera. Baina erabilera horrek arazoak sor ditzake oinezkoen guneetan, eta biak nola uztar daitezkeen landuko dugu, adibidez. Bestalde,

ikusitako ibilgailua gehiegi erabiltzen dela udalerrian, kontuan izanda Oñati barruko desplazamenduak oinez edo bizikletaz ere egin daitezkeela. Horren irtenbideak ere proposatuko ditugu", jarraitu du. Oñatin 7.237 ibilgailu pribatu daude, baina jendeak ohitura du herria barrutik gurutatzeko saihasbidetik baino. Horren inguruan, hauze zehaztu du Egañak: "Bideetako bat izan daiteke oztopoak jartzea autoak udalerrian erabiltzeko".

Espaloiak, zama lanak egiteko sistema, aparkatzeko ohiturak eta herri barruko garraioak ere jasoko ditu ekintza planak.



Lazarraga kaleak edozein eguerditan izan ohi duen itxura. | OIHANA ELORTZA

Jardunaldi ludikoak egongo dira ludotekan datorren astean

4 eta 10 urteko umeei zuzendutakoak izango dira

O.E. | OÑATI

Txaloka Udal Ludotekan ekitaldi ludikoak egingo dituzte Gabonetan. Hain zuzen, abenduaren 23an, 26an, 27an eta 30ean.

Jardunaldi horien helburua da Oñatiko haurrei aisialdia modu dibertigarrian gozatzeko aukera eskaintzea eta, bide batez, gurasoei azaltzea ludotekaren eguneroko jarduna nolakoa den.

Egun bakoitzean gai bat

Datorren asterako prestatu dituzten ekintzak 4 eta 10 urteko umeei zuzenduta egongo dira. Goizez egingo dituzte, 10:00etatik 13:00e-

tara, eta egun bakoitzean gai bat ardatz hartuta jolastuko dira.

Astelehenean, *Piratak Gabonetako altxorren bila* izango da gaia; hilaren 26an, *Zuk zeuk sortu* izeneko tailerrak egingo dituzte; 27an, jolas kooperatiboak; eta 30ean, karta-jolasak.

Merkeago

Bestalde, urtarriletik aurrera %70eko deskontua izango dute prezioek, urte osoko kuota bakarrean. Horrela, lehenengo haurrak 60 euro ordainduko ditu, bigarrenak 50, hirugarrenak 40 eta laugarrenak doan izango du.

Baraualdia egingo dute, presoek eskubideen alde

O.E. | OÑATI

Presoen eskubideen aldeko baraualdia egingo dute hilaren 27an. 12:00ean hasiko dute, Foruen plazan. Segidan, *Euskal preso eta iheslariak* etxera dioten zapiak salduko dituzte etxetik. Iluntzean, *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala emango dute eta elkarretaratzea ere egingo dute. Kopla poteoa eta kantaldia ere izango dira. Hilaren 28an, Harrera taldearen hitzaldia dago. Eguerdian emango diote bukaera baraualdiari. Presoei eskutitzak bidaltzeko aukera ere egongo da.



Aurkitu duten giza masailezurra. | AMET

Gizakiarenak diren hezurak aurkitu dituzte AMETeko kideek

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gizakiarenak diren hezurak aurkitu dituzte Aloña Mendi Espeleologia Taldeko kideek. Hanka-hezurak, saihasak eta masailezurra, hain zuzen ere. Arkeologoen eta paleontologoen esku utzi dituzte, aztertu eta egoki gorde ditzaten.

Duela 3.000 urtekoak

AMETeko kide Santi Ugarteren esanetan, lurperatuta zegoen gizaki baten hezurak dira. "Arkeologoen egingo dituzte zehaztapen lanak, baina duela 3.000 edo 4.000 urteko hezurak izan daitezkeela uste dugu. Brontze Aroaren hasieran kobetan uzten zituzten hildakoen gorpuak, horrela egiten zituzten

enterramenduak, eta horregatik pentsatzen dugu garai hartakoak izango direla orain aurkitutako hezurak".

Udan egin zituzten lanetan hartz baten hezurdura aurkitu zuten, eta lan haien jarraipena egiten ari direla aurkitu dituzte gizakiarenak diren hauek. "Galeria osoan sakabanatuta aurkitu ditugu hezurak. Goitik behera erorita, seguru. Hanka-hezuraren artean, esaterako, femur bat dago. Masailezurra ere egoera onean dago, letaginak eta aurreko haginak garbi-garbi ikusten dira. Dauden tokitik atera eta paleontologo bati eta arkeologo bati bidali dizkiegu, behar bezala aztertzeko", zehaztu du Ugarterek.

Toberako epaia beteko dute bihar eguerdian: 'Oñati Debagoiena da' plaka jarriko dute kontzejuean

On Prudentzio Piper Hautsa epaileak duela urtebete, iazko Inuzente Egunean, ezarritako epaia beteko dute bihar, zapatua. Horrela, *Oñati Debagoiena da* dioen plaka jarriko dute udaletxe-ko arkupeetan. Epaileaz gain, *Egoitz Pikategi* abokatua eta *Narrea Zirikaldai* fiskala ere egongo dira ekitaldian. 12:30ean izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Santo Tomas egunaren harira txistor-pintxoak eta musika kontzertua dute Pakon asteburuan

Mokadutxoak eta musika ekitaldia izango dira asteburu honetan, besteak beste, Pako tabernan. Bihar, zapatua, eta etzi eguerdian, esaterako, txistor-pintxoak banatuko dituzte tragoarekin batera. Domekan, gainera, kontzertua ere egongo da. Sumision City Blues taldeak zuzenean joko du iluntzean, 19:30ean. Hilaren 25 goizean, berriz, aginaldoak banatuko dituzte.

Uraren erabilera ezberdina gertutik ezagutzeko irteera antolatu du gaztetxeak astelehenerako

Mendi irteera antolatu du gaztetxeak astelehenerako. Uraren erabilera ezberdinak ezagutzeko irteera izango da eta Ubao eta Antzubar inguruak zeharkatuko ditu. Gaiaren inguruko azalpenak emango dituzten bi lagunek gidatuko dute irteera. 08:30ean abiatuko dira gaztetxetik. Bestalde, gaur, Ez!, Ro eta Frantzeska taldeek joko dute, 22:00etan, Tantz Tantz antolatuta.

Oñati-Arrikruz-Arantzazu autobus zerbitzua martxan izango da Gabonetako domeketan

Oñati-Arrikruz-Arantzazu autobus zerbitzua ohiko zerbitzua izango du Gabon oporretako domeketan ere. Horrela, abenduaren 22an eta 29an eta urtarrilaren 5ean eta 6an ohiko ordutegian lan egingo du ibilbide hori egiten duen autobus zerbitzua. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, aldiz, ez da zerbitzurik egongo, jaieguna izan arren.

Gabonetako egunak musikaz beteta datoz

Ganbara Abesbatzak, Musika eskolako ikasleek eta Musika Bandak girotuko dituzte kaleak

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Gabonetan ez da aspertzeko aukerarik egongo Oñatin. Hainbat musika ikuskizun egongo dira herriko hainbat txokotan gaurtik urtarrilaren 6ra arte. Gaur, disko festa eta Ro, Ez! eta Frantzeska taldeen kontzertua eta gospel kontzertua eta hilaren 6an, Musika Bandaren kalejira eta plazako kontzertua.

Protagonistak, besteak beste, Ganbara Abesbatza, Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak, Oñatiko Abesbatza eta Musika Bandakoak izango dira.

Ganbarak 10 urte

Abenduaren 22an, domeka (19:00), Ganbara Abesbatzak bete dituen hamar urteak ospatzeko, kontzertu berezia eskainiko dute kiroldegian. *10 Urte kontu kontari: musika eta kolorez beteriko bidaia* kontzertuan, Ganbara Txikik eta Gazte Abesbatzak, Ganbarako harrobiak, Oñatiko Ganbara Abesbatzak eta Ikastetxeak Kantarik hartuko dute parte.

Sarrerak Izarraitze tabernan, Sesifena ile-apaindegian eta Portu tabernan daude salgai zortzi euroren truke.

Jose de Azpiazu musika eskola

Musika eskolakoe ere hainbat kontzertu eskainiko dituzte datozen egunetan. Bihar, 18:00etan, udaletxeko arkupeetan, txistulariek, akordeoilariak eta Aita Madinako txistulari taldeak kontzertua eskainiko dute.

Abenduaren 24an, 17:30ean, trikiti eta pandero ikasleek kaleetan zehar Olentzerorekin batera kale-jira egingo dute; ostean, akordeoilariak udaletxeko arkupeetan saioa eskainiko dute eta 19:00etan, Oñatiko Musika Bandak musika eskolako haize-instrumentu ikasleekin batera kontzertua eskainiko du.

Abenduaren 27an, Eguneke Egoitzan, akordeoilariak eta pandero ikasleak egongo dira.

Tantaz Tanta eta Abesbatza

Tantaz Tanta ekimenekoek gaurko antolatu dute lehenengo musika emanaldia. Antixenako gaztetxean, Ez!, Ro eta Frantzeska taldeek kontzertua eskainiko dute (22:00). Abenduaren 24an, berriz, 09:00etan, Gabon kantak abestuko dituzte Herriko Plazan. Horrez gainera, 27rako eta 28rako, areto futbol txapelketa antolatu dute Zubikoan.



Lin Ton Taun abenduaren 28an Gaztelekuan egongo dira. | LIN TON TAUN

Oñatiko Abesbatzakoen txanda bihar izango da, 20:15ean, agustindarren elizan.

Musika Banda

Urtero legez, Oñatiko Musika Bandak ere Gabonak girotuko ditu; besteak beste, 24an Foruen Plazan Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleekin batera eskainiko duten kontzertua. 31n, ostera, kalejira egingo dute, 19:00etan. Eta urtarrilaren 6an, Errege Egunean, kalejira lehenengo eta kontzertua ondoren Santa Ana antzokian.

Kirolak eta jolasak

Musikaz gain, kirola egiteko eta jolaserako aukera ere egongo da. Areto futbol txapelketaz gain, Aloña Mendiko saskibalo sailak Gabonetako kuadrillen arteko txapelketa antolatu du abenduaren 30erako eta 31rako. Gaztetxoen tzako ur-jolasak 26an eta 27an egongo dira Zubikoan.

Malirekin elkartasuna

Oñatiko parrokiako pastoraltzatik eskerrak eman nahi dizkiete oñatiarrei, parrokiaren izan zen kontzertuan erakutsitako elkartasunagatik.

Itziar Arkauz | Dekoratzaila

"Erakuslehoak merezi duen garrantzia ulertuta, lan bikaina egin dute dendariak"

Bihar, zapatua, emango dituzte Gabonetako erakusleho lehiaketako sariak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Itziar Arkauzek (Oñati, 1982) Donostian dihardu lanean, moda enpresa bateko obra eta dekorazio sailean. Bartzelonan ibili zen lehenago. Oñatiko Gabonetako erakusleho lehiaketa sortu zutenetik da bertako epaimahaiko kide. Aurten ere bai.

Nolako apainketak egin dituzte herriko komertzioek?

Maila handia ikusi dugu aurten. Urtetik urtera, ideiak berritza

konplexua izan daitekeen arren, oso erakusleho landuak ikusi ditugu.

Asko zaindu dituzte?

Erakuslehoak merezi duen garrantzia ulertuta, lan bikainak daude.

Batez besteko notarik jartzera ausartzen zara?

Nota jartzea oso zaila da, baina herriko merkatariek erakuslehoetan jartzen duten interesa gero eta nabariagoa da. Horren isla

da seigarrenez antolatu den lehiaketa hau.

Zerk harritu zaitu?

Erakuslehoetan islatutako Gabon kontzeptuak. Gero eta Gabon zabalagoak erakusten dira, bakoitzak Gabonak ulertzeko duen ikuspuntutik.

Ze elementu erabili dituzte dendariak apainketak egiteko?

Dendan saltzen diren produktuak erabiltzea ezinbestekoa zen; horretaz gain, birziklatutako material



Itziar Arkauz. | TXOMIN MADINA

asko ikusten dira, beste erabileta bat emanda (kartoia, fruta-kaxak, lorontziak...).

Zer izan duzue kontuan zuen iritzia emateko?

Diseinu orokorra, lanean jarritako irudimena eta originaltasuna, erakuslehoaren eta produktuaren argiztapena, gaia eta ideia, material eta kontzeptuaren berrietasuna.

Bihar izango da sari banaketa. Asko eztabaidatu duzue epaimahaian egon zaretenok sariak nori eman erabakitzeke?

Puntuazio bitarteko metodoa jarraitzen dugu; epaimahaikide bakoitzak uste duen puntuazioa ematen dio erakusleho bakoitzari, eta batez besteko puntu altuenak irabazten du. Dena den, erakuslehoak ikusita, denon arteko iritzia kontuan hartzen dira.

Nolako dendak ditugu Oñatin?

Oso gertuko dendak ditugu, bezeroa ezagutu eta zaintzen dutenak, eta hori oso eskertzekoa da.



URGAIN ZUAZOLA

Artelanak egin dituzte natur elementuekin eta Garaioneekin

Urgain Zuazolako batxilergoko lehen mailako ikasleek *Denon artean posible da* izeneko artelana egin dute Garaion taldeko lagunekin batera. "Artelan honen bidez gazteek berdintasuna, elkartasuna, euskaltasuna, askatasuna, borroka ... bezalako balioak irudikatu eta aldaketa gure esku dagoela adierazi nahi izan dugu. Oso ondo pasa dugu", adierazi dute.

DJ festa gaur gaztelekuan Amaia Txintxurretarekin

DJ festa egingo dute gaur iluntzean gaztelekuan. Amaia Txintxurreta izango da musika jartzeaz arduratuko dena eta herriko gaztetxo guztiak dantzant jartzeko gogoz arituko da.

Hilean DJ jaialdi bat egiteko asmoa dute gaztelekuan, horretan abilak diren herriko lau gazterekin: DJ Ebil (Iban Idigoras), DJ Kirrin, DJ Sound Proyect eta Amaia Txintxurreta. Txandan-txandan gidatuko dituzte jaialdi horiek.

Gaurko saioa, zehazki, Amaia Txintxurretak gidatuko du eta iluntzean izango da, 18:00etatik 21:00etara bitartera, hain zuzen ere.

Herriko zazpi gazte artisauk azoka egingo dute bihar plazan

Herriko artisau gazteek Gabonetako azoka egingo dute bihar, zapatua, goizean Foruen plazan.

Be Happy Ikusi Ikusi, Mirari Sagarzazu, Lavandula xaboi eta kremak, Ainhoa Quesada eta Gemma Muñoz, Baking Off, Noizbait eta Ta Puntu markako produktuak egongo dira azoka horretan salgai. Hau da, bitxiak, eskuz pintatutako arropa, usain goxoko xaboi naturalak, panpinak, oihalez egindako osagarriak eta baita bizkotxo, madalena eta antzerako gozoak ere, bestak beste.

Azoka 11:00etatik 14:30era izango da.



Begarako Orkestra Sinfonikoa, udan emandako kontzertu batean. | GOIENA

Pieza ugari eta pertsona bera gogoan, Miguel Gonzalez Bastida

Bihar, Gabonetako kontzertuan, omenduko dute Bergarako musikaria; amaierako 'tutti'-an hark konposatutako 'Estampas Navideñas' eskainiko dute

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Sentimenduz betetakoa izan ohi da Gabonetako kontzertua; areago aurten, duela gutxi hildako Miguel Gonzalez Bastida oso presente izango dute-eta. Aurten ere Aritzeta eta Gabero abesbatzek, Bergarako Orfeoak, Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak eskainiko dute emanaldia abenduaren 21ean, 22:30ean, Udal Pilotalekuan.

Bi zati izango ditu kontzertuak: lehenengoan, taldeek bakarka interpretatuko dituzte kontzerturako prestatutako piezak eta bigarrenengoan, *tutti*-a eskainiko

dute denek batera. Gainera, aurten, berrikuntza gisa, herritarren parte-hartzea eskatu dute.

Aritzeta Abesbatzak kontzertuaren hasieratik ekarriko du gogora Gonzalez Bastida, *Errekatxo kantari* eskainiko duelako. Horrekin batera, Josu Elberdinen *Izar ederrak*, Eric Whitacreren *The seal lullaby* eta Dan Forresten *The first Noel* interpretatuko ditu.

Begarako Udal Musika Bandak Winberger-en *Subterra* pieza eskainiko du eta Orkestra Sinfonikoak, Mecanoren *Intimeca*. Bergarako Orfeoak eta Gabero Abesbatzak batera abestuko dute

eta honako kantak eskainiko dituzte: *Dizdizka zeruan*, *Ubi caritas*, *Goza mi calypso* eta *He never failed me yet*.

Herritarren parte-hartzea

Amaierako *tutti*-an ere Gonzalez Bastidak herrian utzitako hutsunea agerian geratuko da; izan ere, hark konposatutako *Estampas navideñas* pieza eskainiko dute. Bergararren emozioak agerian geratuko dira eta horiek besteekin banatzeko eskatu die, *tutti*-an parte hartuta. Hainbat herritarrek jada egin dute bat asmo horrekin.

Nafarroako jaki gozoenak bihar San Antonioko Napar Ferian

I.E. | BERGARA

Euskal sustraiak gogoratzeko bi egunek bat egingo dute zapa-tuan: Santo Tomas egunak eta Napar Feriak. Lehenak ez du ospakizun berezirik ekarriko San Antonio auzora, baina bai bigarrenak, orduan ospatuko dute-eta urteroko azoka.

10:30ean zabalduko dute Nafarroako produktuak ezagutzera emateko feria eta eguerdira bitartean ez da ekitaldirik faltako. Hainbat postu jarriko dituzte plazatxoan eta bergararrak elikagaiak dastatu eta erosteko aukera izango dute.

Txistulariek alaituko dute giroa 11:00etatik aurrera eta alaitasun horrekin emango dio-

te hasiera elkarten arteko IV. sukaldaritza lehiaketari. Parte-hartzaileek marmitakoa prestatu beharko dute antolatzaileek emandako patata, atun eta olioarekin. Irabazleak txapela eta Naparbideak produktu sorta irabaziko ditu eta bigarren eta hirugarrenek, produktu sorta.

Gabonetako postalak

Meza amaitu eta Angie DJaren emanaldia hasita, Gabonetako postalen lehiaketako sari bana-keta egingo dute 13:00etan eta ordu erdi geroago abesbatzaren kontzertua hasiko da. Eguerdian haurrentzako animaliak eta helduentzako pintxoak egongo dira, bazkalaurretik.



Iazko Napar Feriako azoka. | GOIENA

Hondakinak zintzilikarioen ondoan uzteko dei egin du Bergara Garbiak

I.E. | BERGARA

Bergara Garbia plataformak "atez ateko sistema martxan jartzean hondakinak lurtean, zintzilikarioen ondoan, uzteko" dei egin die herritarrei prentsa-ohar baten bitartez. "Protestekin jarraitzeko" ere eskatu die bergararrei.

Horrekin batera, esker ona adierazi dute plataformatik: "Amaitzean dagoen urte honetan erakutsi duzuen laguntza eta babesa eskertu nahi dizuegu bergarar guztiei. Eskerrik asko, hondakinaren bilketa sistemaren aurrean izandako jarreragatik". Bergararren gehiengoaren "iri-

tzia ez dela" kontuan hartu gaineratu du plataformak, baita "hondakinaren gaineko zerga igoko" dela ere.

Udal Gobernuaren jarrera

Plataformak "antidemokratikotzat" jo du Udal Gobernuak "ezarri nahi duen sistema" eta uste du horren aurka "ezinbestekoa" izan dela eta "izaten segitzen duela" eurek antolatutako ekintzetan herritarrek izandako "parte-hartze aktiboa eta jasotako laguntza ekonomikoa".

Herri galdeketa 5. edukion-tziaren aldeko 4.771 boto lortu zituztela gogoratu dute.

Gaur izango da Musika Eskolaren kontzertua

Biharko giroa berotzeko balioko du Bergarako Musika Eskolak gaur eskainiko duen Gabonetako kontzertuak. Suzuki eta txistu taldeek, orkestrak, trikitilariak, gazte bandak, hiru abesbatzek eta duela gutxi sortutako Big Band-ak eskainiko dute kontzertua 18:30etik aurrera Udal Pilotalekuan.

Talde bakoitzak kontzertu horretarako prestatutako piezak jo eta abestuko ditu eta amaieran John Lennon eta Joko Onoren *Happy Xmas* Gabon-kanta interpretatuko dute denek batera. Emanaldirako sarrerak Musika Eskolan edo leihatilan eros daitezke 2 (haurrak) eta 4 eurotan.



Musika Eskolakoak kontzertu batean. | MUSIKA ESKOLA



UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Lorea Zubia | Blogaria eta diseinatzailea

"Nire ametsetako bat errealitate bihurtzea lortu dut"

'A different clothing' bloga 2011. urtean jarri zuen martxan Lorea Zubiak. Orain, berak diseinatutako lehenengo botin kolekzioa aurkezten du. 'On line' eros daitezke eta bidalketa gastuak doakoak dira.

Zer da www.adifferentclothing.com bloga? 2011. urtean martxan jarritako proiektua da. Arropa eta moda mundua asko gustatu izan zaizkit beti, eta orain dela bi urte blog hau zabaldu nuen *fashion blogari* bezala; hau da, arropa estilo desberdinak aurkezten ditut, konbinazioak nola egin azaldu, aholkuak eman...

Duela gutxi, beste pauso bat ematea erabaki nuen eta nire marka propioa daramaten zapatak diseinatzera animatu nintzen. Hori horrela, nire ametsetako bat errealitate bihurtu dut.

Nor da Lorea Zubia?

Arropa eta moda mundua gustuko duen blogaria naiz, eta orain, botin diseinatzailea ere bai.

Blogaren bidez botinak saltzen dituzu. Zer-nolako kolekzioa daukazu?

Hiru estilotako zapatak saltzen ditut: alde batetik, botin zapalak, batera eta bestera ibiltzeko oso aproposak direnak. Beste alde batetik, takoidun botinak, fina-goak direnak, eta gorputza estilizatzen dutenak. Eta azkenik, kuñadun botinak. Azken horiek ausartagoak dira eta euren janzkeran beste ukitu bat gura dute nendako aproposak dira. Hori bai, hirurak oso erosoak dira eta kalitatezkoak, Alacanten fabrikatutakoak.

Kalitatea ere kontuan hartu duzu. Nire iritziz, oso inportantea da produktu ona eskaintzea bezeroei.



Lorea Zubia eta berak diseinatutako botin pareak.

A different clothing-en agertzen diren sei modeloak larruzkoak dira. Gainera, *Kolekzio* atalean

"Arropa eta moda mundua gustuko duen blogaria naiz"

zapaten ezaugarri guztiak zehatz-zehatz kontsultatu ahal dira.

Gaur egun, merkatuan zapata modelo asko aurkitu ahal dira, baina guztiek ez dute kalitate berbera.

Nik eskaintzen ditudan produktuak hemen diseinatu dira eta Alacanten fabrikatu. Lan handia dago proiektu honen atzean.

Oraingoan, oso harrera ona izan dute eta espero dut horrela jarraitzea.

"Sara Carbonerori bi botin pare bidali dizkiot"



Zer-nolako zerbitzua eskaintzen duzu zure blogaren bidez?

Zapatak blogean bertan *on line* eros ditzakezue eta 24 orduan etxean izango dituzue. Bidalketa doakoa da. Webgunean produktuen argazkiak eta katalogoa dituzue ikusgai. Horretaz gain, astero-astero zapatekin batera *look* desberdinak aurkezten ditut, zapatak nola konbinatu ikusi ahal izateko.

Botinak opari aproposak izan daitezke Gabonetarako. Promozioen bat badaukazu?

Oso aproposak dira. Askotan, bikotekideak edo senideek ez dakite zer oparitu. Hemen duzue ideia polit eta eroso. Oraingo egunetan dendak topera daude eta etxetik bertatik eros ditzakezue. Gabonei begira %10eko deskontua aplikatu dugu.

Beste blogari batzuek ere egin dute zure blogari buruzko erreferentzia.

Bai, hala da. Ana Goitiak, adibidez (www.elrincondeanatzu.com), post oso bat dedikatu zien zapatei, eta baita arrakasta handia lortu ere jarraitzaileen artean, zozketa bat eginda. Bestetik, kolekzioaren informazioa Sara Carbonerori (<http://sara-carbonero.blogs.elle.es>) bidali nion. Hark interesa zuela esanez erantzun eta bi pare bidali dizkiot: kuñadun botin beltza eta bota zapala *mushroom* kolorean.

Bestetik?

Eskerrak eman nire bloga irakurtzen duten guztiei. Zorionak eta urte berri on!

www.adifferentclothing.com
by lore



%10eko deskontua

Osoko bilkuran erabaki dute Bergara toberara joango dela

Akusazioaren argudioak onartezinak direla ondorioztatu zuten osoko bilkuran

IMANOL GALLEGRO | BERGARA

Datorren zapatuko epaiketari izaera ofiziala emateko, eguaztenean Bergarako osoko bilkuran ezohiko batzarra egin zuten herria toberara joango den edo ez erabakitzeko. Bertaratu ziren bi zinegotzik kontrako botoa eman zuten arren, gehiengoak *Aupa Miren Etxebeste* abokatuaren argudioei kasu eginez aldeko botoa eman zuten.

Azakeria, harropuzkeria, itxurakeria... Tankera horretako hamaika salaketa aipatu zituen *Aupa Miren Etxebeste* defentsaren abokatuak. Haren ustez, bergarrak "estilosoa" dira, baina ez harropuztzak: "Herri estiloso gara, hori ezin daiteke uka, baina horitik azakeria eta harropuzkeria egoztera salto handia dago", aipatu du *Etxebeste* letradunak.

Eguazteneko osoko bilkuran, baina, abokatuak ez zen bakarrik egon, eta egun horretan pregoilari izango den Azkaitez Peloxek argi utzi du Bergara defendatzeko prest dagoela: "Igeldon gertatu dena ez da hemen gertatuko, ez Uberarekin, ez Angiozarrekin, ezta Antzuolarekin ere", azaldu zuen Pelox pregoilariak ozen.



Ezohiko osoko bilkurako parte hartzaile guztiak. | BERGARA

Herriko behin-behineko alkatere andrea ere akusazioen kontra azaldu zen eta toberara joateko asmoa erakutsi zuen. Osoko bilkura bukatzeko, proposamena bozkatu zuten, eta, bi zinegotzik kontrako botoa eman arren, gaintzekoek mozioa babestu eta *On Prudentzio Piperrauts* epailea buru izango duen ekitaldira joatea erabaki zuten.

Epaiketarako falta den aste pasatxo honetan, salaketak baztertzeko argudioak batzen jarraitu beharko du abokatuak.

Iazko epaia betetzera

Aurreko urtean Oñatik epaiketa galdu eta gero, bihar eguerdian *On Piperrauts* epaileak jarritako zigorra bete beharko du. 12:30 bueltan batuko dira udaletxeko arkupeetan, eta bertan, jarriko dute *Oñati Debagoiena da* esaldia duen plaka.

Epaileaz gain, bertan izango dira *Egoitz Pikategi* defentsaren abokatuak eta *Narrea Zirikalde* fiskala. Haiekin batera, iazko toberan parte hartu zuten hainbat aktore ere izango dira.

Haur zein helduendako eskaintza izango da Gabonetan Gaztetxean

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Egitarau oparoa prestatu du Bergarako Gaztetxeak Gabonetarako, eta, helduendako ekintzez gain, haurrek gunearen txokoak eta funtzionamendua ezagutzeko aukera izango dute; izan ere, haiendako ekintzak prestatu dituzte astelehenerako.

Zinema eta hitzaldiak

Astelehenetik Errege bezperara arte egingo dituzte ekitaldiak, eta, kontzertu eta jaien artean, hitzaldiak eta film proiektzioak izango dira. Nazioarteko boluntariotzari, biodibertsitateari eta Palestinari buruz izango dira hitzaldiak, eta, besteak beste, *La Ola* filma emango dute.



La Ola filmeko irudi bat. | GOIENA

EGITARAU

Astelehena, 23: 17:00etan, Gaztetxeari bisita umeekin (jinkana eta jolasak), ondoren Amaia Arriaran ipuin-kontalaria.

Martitzena, 24: 01:00etan, Mojito gaua: Rabino Krustovsky eta Elvis Caino.

Eguaztena, 25: Zinekluba: *La Ola*.

Egubakoitza, 27: Auzolana goizean; 19:00etan, epe luzeko nazioarteko boluntariotzari buruzko testigantza: Guatemala eta Kolonbia.

Zapata, 28: 00:00etan, The Adams party DJ gaua: Beltzak Bros, Asier Galiano, Buda ta Rami, Elektropeña eta Josu.

Domeka, 29: 15:00etan, Gaztetxeaz hausnartzeko topaketa irekia.

Astelehena, 30: 11:00etan, gozogintza tailerra. Aurrez izena ematea komenigarria da.

Martitzena, 31: Gaztetxeko karaokea, gauean.

Eguaztena, 1: Zinekluba: *Monty python* rallya.

Eguena, 2: 18:00etan, Bergarako biodibertsitatea aztertzen hitzaldia Iñaki Irizarren eskutik.

Egubakoitza, 3: 18:00etan, Askapeneko Palestinako brigadisten hitzaldia.

Zapata, 4: Arratsaldean EHUko ikasle talde baten film laburren emanaldia; 22:30ean, Supercools taldearen kontzertua.

Domeka, 5: 23:00etan, kontzertuak: Berri Tzaarrak, Kolpatu eta DJ DZ.

G21 dendak irabazi du erakusleihen lehia

I.E. | BERGARA

Argi txikiz lagundutako hondo beltz bat eta erdi-erdian zapata pare bat; erakusleihen xume eta simplea jarri dute G21 zapata-dendan eta horrek aurtengo erakusleihen lehiaketa irabazteko balio izan die. Hala erabaki zuten eguaztenean kultura etxean egindako sari-banaketan. Jose Luis Solana eta Gorka Mendizabal joan ziren saria jasotzera eta pozik agertu ziren.

Bigarren saria Gorosti loradendarentzat izan da, eta, bertako Irene Zenitagoiak azaldu zenez, "materia organiko eta birziklagarri" eman diete garrantzia erakusleihen apaintzeko.

Dendan saltzen dituen produktuak bolatxo gorri eta zintzilikario



Erakusleihen lehiaketako irabazleak sariekin. | IURE EIZAGIRRE

moduan jarritako argiekin nahastu dituen Gisasola dendarentzako izan da hirugarren saria eta Ander Berraondok jaso zuen.

Irabazleek herriko dendetan gastatzeko 250, 200 eta 150 euroko txartelak jaso zituzten erakusleihen lehiaketako sari gisa.

Udalak urteko azken ohiko osoko bilkura egin zuen martitzenean

I.G. | ARRASATE

Urteko azken batzarrean, inoiz baino adostasun handiagoa egon zen, eta gai zerrendako puntu bakarrean izan ziren gobernu taldearen eta oposizioaren arteko desadostasunak. Aurreko bilkuraren akta onartu eta gero, udal barruko euskararen erabilera planaren epealdia luzatzeko proposamena aho batez onartu zuten.

Azken puntuan, baina, desadostasuna sortu zen. Gobernu taldeak Goenkale kaleko atzealdean, Udalarena den lursail batean, egokitzapena egiteko lanen adjudikazioa aurkeztu

zuen. Oposizioak kontra egin arren, gobernu taldearen botoekin aurrera irten zen.

EAJko bozeramaile Aintzane Oiarbidek bere taldeak kontrabozkatzeko arrazoiak azaldu zituen. Haren ustez, "diru sarrerak murriztu diren testuinguru honetan zintzilikarioak jartzeko dirua gastatzea ez da gauzarik aproposena". Jaione Isazelaia alkateak, aldiz, Udalarena den orube bat dela argitu eta gero, Udalak lokal bakarra erosi duela azpimarratu zuen. Horren ostean, datorren urtera arte agur esan zuten udal ordezkari guztiek.


G21

Gizonezkoentzako zapata-denda



Irala 3 behea - BERGARA
Tel.: 943 76 52 98

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Baja asko izan arren, garaipen batekin amaitu nahi dute urtea bergararrek

Zapatuan, 18:30ean, Labegaraietan jokatuko dute urteko azken partidua

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Urteari amaiera borobila ematen saiatuko dira zapatuan Josetxo Muniategiren mutilak Labegaraietako kiroldegian.

Sailkapenean bigarren postuan daude bergararrak, hamazazpi

punturekin, lehenengo postutik lau puntura; eta zapatuan, 18:30ean, alde hori murrizteko aukera paregabea izango dute.

Sailkapenean zazpigarren postuan dauden Gure Auzune gasteiztarren aurka jokatuko dute

norgehiagoka, baina, Muniategiren arabera, zazpigarren postu hori engainagarria izan daiteke. Izan ere, azkenaldian emaitza onak lortzen ari dira gasteiztarrak eta aurkari gogorak izango direla argi utzi du.

Partidua irabazteko gako defentsan egongo dela adierazi du bergararren entrenatzaileak, Gure Auzune taldean partiduko hamar bat gol sartzen dituen jokalaria bat dutelako; eta jokalaria hori ondo defendatuz gero, irabazteko aukera gehiago izango dituzte.

Baja asko

Denboraldi polita baina gogorra izaten ari da talde bergararentzat, lesioengatik eta lan kontuengatik taldeko bost jokalarik ezin dute -eta jokatu. Hala ere, taldearen konpromisoa azpimarratu du Muniategik, horri esker bigarren postuan daude eta.



Aurtengo denboraldiko partidu bat Labegaraietan. | IMANOL SORIANO

Ariznoako gimnasta guztien erakustaldia gaur Labegaraietan

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Ariznoa gimnasia erritmiko elkarreko gimnasta guztiek hilabete hauetan ikasitakoa erakutsiko dute gaur, 19:00etan, Labegaraietako kiroldegian.

Orain arte, urtean erakustaldi bakarria egiteko ohitura izan dute, ikasturte amaieran; aurten,

ordea, aurretik beste bat egitea erabaki dute.

Gaurko saioaren helburua lau hilabete hauetan ikasitakoa erakustea da; izan ere, kirolariak ikasitakoa ikusteko erakustaldi bakarria egitea gutxi dela uste dute Ariznoakoek. Batez ere, gasteiztarren eboluzioa ikusteko

asmoz egingo dute erakustaldia. Bertatik, aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, infatilak, kadeteak eta gazteak pasatuko dira.

Entrenatzeko arazoak

Aurten, hainbat arazo direla eta, entrenatzeko arazoak izan dituztela aitortu dute Ariznoakoek.

Hori dela eta, taldeek ez dituzte ariketak nahi beste praktikatatu, baina ahalik eta erakustaldi politena egiten saiatuko direla argi utzi dute.

Haurrentzako antzerkiak Zabalotegi aretoan

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Zabalotegi aretoa Bergarako haurren topagune bihurtuko da Gabonetan, *Beldartxo jatuna* eta *Olentzeroren sekretua* antzezlanekin.

'Beldartxo jatuna'

Abenduaren 22an, domekan, 18:00etan, basoan bizi diren Loretxuk eta Bartolok tximelata eder bihurtzen den beldar txiki jatun baten istorioari

bizitza emango diote, Zabalotegi aretoan.

Hain zuzen ere, 2 eta 8 urte arteko gaztetxoei zuzendutako antzerkia da Didau antzerki faktoriak Bergarara eramango duen ikuskizuna.

'Olentzeroren sekretua'

Itturri Kulturgintzakoek, berriz, *Olentzeroren sekretua* kontakizuna eramango dute astelehenean, abenduaren 23an.



Olentzeroren sekretua Oñatiko Gaztelekuan. | INIGO BIAIN

Gabon Sariak pilota txapelketako finalak hilaren 30ean

Hilaren 30ean, astelehenean, jokatuko dira finalak Udal pilotalekuan; aurretik, baina, barru jokoak egingo dituzte 16:00etatik 17:00ak arte. Ondoren, final hauek jokatuko dira: benjamin C maila: Suar Agirrebena-Alain Losada; benjamin B: Josu Lazpiur-Mikel Larrañaga; benjamin A: Andoni Perez-Iker Etxaniz; alebin B: Uxue Zubizarreta-Mikel Penin; alebin A: Josu mendizabal-Julen Arriola; infantilak, mutilak: Markel-Garzia-Ander Etxaniz; kadeteak: Manex Balerdi-Unai Zubizarreta; gazteak: Ander Aristi-Dani Diez; eta nagusiak: Eneko Muguruza-Beñat Inarra.





PREZIOAK

HANKAZ GORA JARTZEN DITUGU

OBRA BERRIA BUKATUTA "SAN LORENTZON"

3 LOGELAKO 2 ETXEBITZETAN BAKARRIK APLIKAGARRIA

Informazioa eta salmenta

943 424 430 • 637 726 522



www.ormak.es

Olazar eta hilerri arteko hegala konponduko dute

Asteon egindako ezohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman diete datorren urteko aurrekontuei

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eztabaida handirik ez zen izan martitzen arratsaldean Eskoriatzako udaletxean. Ezohiko osoko bilkura egon zen, eta tartean, datorren urteko aurrekontuak lantzekoak ziren udal ordezkariak. Beñat Herce alkateak proiektua labur azaldu ostean, Elizateetako zinegotzi Iñaki Madinabeitiak baino ez zuen berba egin; elizateetako inbertsioei dagokienez, adostasuna lortzeko "esperantza" agertzeko. Gainerako alderdien ordezkariak ez zuten adierazpenik egin gura izan.

Jarraian, bozketa egin zuten: Bilduko eta Elizateetako ordezkarien aldeko botoekin onartu ziren kontuak; EAJ eta Ezker Anitza-IU alderdiek kontra bozkatu zuten; PSE-EEko ordezkaria, berriz, ez zen bilkuran izan.

Esan bezala, alkateak eman zituen aurrekontuen gaineko hainbat zertzelada. Kontuak 5,3 milioi euro ingurukoak izango direla aurreikusitakoak. Sarrerei dagokienez, zerga eta tasa gehienak



Olazar eta hilerri arteko hegaleko horma berreraikiko dute. | MIRIAN BITERI

izoztu arren, datorren urterako sarrera gehigarriak aurreikusten dute, bereziki, Udalen Fondo Foralaren gorakadagatik, zerga eta tasak eguneratzeagatik, iruzurra txikitzeagatik eta hainbat urtean aurrekontuetan sartu izan ez diren laguntzak baieztatu direlako. Bestalde, gastuei dagokienez, helburua gizarte beharrianak bermatzea

dela jakinarazi zuen alkateak. Kontuak egiterakoan kontuan hartutako printzipioetako bat udal zerbitzuak mantentzea izan dela azaldu zuen.

Hiru kontratazio berri

Proiektuan lehentasun estrategikoak finkatu ditu Udal Gobernuak. Guztien artean garrantzi-

tsuenetakoa da ekonomia eta enplegua. Horren harira, honakoa adierazi zuen alkateak: "Bai Udaletik, bai eta parte garen Debagoeneko Garapen Agentzietatik esfortzu garrantzitsua egingo da enplegua sortzeko, ekintzailatasuna sustatzeko, tokiko komertzioari laguntzeko eta enpresen lehiakortasun eta dibertsifikazioa nahiz internazionalizazioa gartzeko". Eta iragarri zuen Jaurlaritzak eta Aldundiak emandako laguntza bidez hiru kontratazio egingo direla datorren urtean.

Inbertsioen berri ere eman zuen. Hiru mota daude horren bueltan: duten arrisku mailagatik urteaz urte heldu beharrekoak, batetik; ingurumenaren zaintzara bideratutakoak, bestetik; eta inbertsio produktiboak edo inbertsioa egiteak gastu arruntaren murrizket dakartenak.

Inbertsioak

Hortaz, honakoak dira egingo diren inbertsio garrantzitsuenak: Olazar eta hilerri artean dagoen hegalean horma berreraikitzea, kiroldegiko makina gela konponetzea eta igerilekuko sakonera murriztea, Olazar eta industrialdeko bidegorriko argiteria aldatzea, Hidalga kalean inpermeabilizazio lanak egitea, hilerrian obrak egitea, elizateetako inbertsioak, auzokonpostagune berriak eta mankomunitatetik bideratuko diren hondakin bilketarako, Horrez gain, mugikortasun proiektua eta Zaldibar antzokia martxan jartzeko asmoa ere badago.

OHARRAK

DISKO FESTA ETA ASKARIA

Tortolis ludotekako umeek disko festa eta merienda dute gaur, egubakoitza, arratsaldean.

TXIRIKILA JAIA

Bihar, zapatua, Txirikila aisialdi elkartearen aurkezpen jaia egingo dute, 11:00etan, plazan. Eskoriatzarrei proiektua aurkeztearekin batera, umeendako jolasak eta tailerrak izango dira, eta baita txokolate-jana ere.

KIROL HITZORDUAK

Asteon, bihar, zapatua, dira kirol hitzordu guztiak. 11:30ean, herriko umeek saskibaloia partidua jokatuko dute Soralue Bergara Txikiren kontra; gazteak, berriz, Ayma Goierriren kontra lehiatuko dira. Arratsaldean, areto futboleko 1. erregionaleko norgehiagoka jokatuko dute Eskoriatzak eta Izarobeak. 17:00etan hasiko da lehia.

OPARIEN TAILERRA

Bihar, zapatua, opariak egiten ikasteko tailerra antolatu dute gaztelekuan, 17:00etarako.

UMEEN IRTEERA

Herriko umeek kanpoan emango dute astelehena; hain justu, Bilboko PINa bisitatuko dute egun horretan.



150€
Agin-zuritzea
saio bakarrean

FOTODEPILAZIOA
Gure prezio berriak
ezin hobekak
kontsulta itzazu

*Gabon
zoriontsuak
guztioi!*



EDURNE
ESTETIKA ZENTROA

Aranburuzabala 42
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 54

Gabon hauetan edertasuna oparitu!

Boulder eskolen arteko lagunarteko txapelketa

IMANOL GALLEGO | ARETXABALETA
Aurreko astean ekin zioten Deba-
goieneko eskalatzaile eta Aloña
Mendiko eskolek aurten sortu
duten boulder ligaxkari. Lehen
proba Oñatin egin zuten eta ber-
tan 65 parte hartzaile izan ziren.
"Gaur zenbaki hori errepikatzea

espero dugu", aipatu du Deba-
goieneko eskalatzaile taldeko
kide Josean Mulasek.

Proba eta sari banaketa

Izen-ematea gaur 17:30ean ire-
kiko dute eta 18:00etan proba
hasiko da. Hiru adin tartetan
banatuta (6-9 urte, 10-13 urte eta
14-17 urte), lehiaketak ordubete
iraungo du. Horren ostean, sari
banaketen unea iritsiko da. "Gaz-
tetxoek eskatu ziguten sailkape-
na egiteko", dio Muelasek; hala
ere, lehiaketa baino gehiago,
topaketa bat dela argitu du anto-
latzaileak.

Bada, eskolarteko lehen txapelketa horrek lortu duen erantzun oparoa ikusi eta gero, datozen urteetan gainontzeko herrietako eskalatzaileei ere deialdia zabaltzeko lan egingo dute.



Gazte bat lbarran eskalatzan. | GOIENA

Bergarako Belceblues taldearen doinu gogoraerazek beteko dute Akorde tabernako gau musikatua

Gaur, Belceblues musika talde bergararrak kontzertua eskainiko du Akorde tabernan, 23:00etatik aurrera. 2005ean sortutako hirukoteak bluesa eta blues-rocka jotzen ditu, eta oso epe motzean, kontzertu eta konposizioei esker, izen handia lortu dute. Bada, gaur gauean, euren energia boteretsua partekatuko dute tabernara gerturatzaren diren entzule guztiekin. Musika zaletuek galdu ez dezaketen hitzordua izango da gaurkoa.



IMANOL GALLEGO

Herriko atletismoari errepassoa

Fernando Aguilar korrikalaria omendu ostean, Arkupek herriko atletismoaren fruituak batzen dituen erakusketa hartu du. Abenduaren 30a arte herriko atletismoaren arrakastak batzen dituen mostran argazki eta dokumentu ugari ikus daitezke. Udalak *Atletismoa Aretxabaletan* DVDa salgai jarri du Arkupen eta Gurea tabernan.

Juan Carlos Irizarrek sormenari bihotza zabalduta egindako ibilbidea gogora

I.G. | ARETXABALETA
Erromantizismoaren trobadorea da Juan Carlos Irizar, eta eguen gauean (22:00) bere ibilbideari errepassoa egingo dio Arkupen. Karmelo Mendizabal akordeoi-lariaren laguntzarekin, bere doinu ezagunenak joko ditu.

30 urteko ibilbidea
Ibilbide luze bezain oparoa dauka Juan Carlos Irizarrek. 30

urteren buruan disko ugari plazaratu ditu, eta, Aretxabaleto emanaldian, errepassoaz gainera, aurtengo bi diskoak ere aurkeztuko ditu.

Ospitaleko itsas kabia eta *Bihotzaren doinuak* oso lan ezberdinak dira. Batean zein bestean Irizarren ohiko musika nostalgikoa entzun daiteke, baina bakoitzak bere abiapuntua, bere istorioa dauka.

Euskara, emakumea eta frontenisa eskutik helduta

I.G. | ARETXABALETA
UDA kirol elkarteak eta Lora-
mendi euskara elkarteak, Udalaren laguntzarekin, dato-
rren urteari begira frontenisa txapelketa jarri dute abian. Txapelketak kirola, emakumea eta euskara izango ditu ardatz.

Torneoa urtarrilean hasiko da eta partiduak Aretxabaleto Iturrigorri frontoian eta asteburuetan jokatu dira martxoaren 8ra arte. Egun berezi horretan, finala jokatzeaz gain, sari banaketa ere egingo da. Txapelketako lehen bikoteak 200 euroko bonua, trofeoa eta txapela joko ditu; bigarrenak, aldiz, 100 euroko bonua eta trofeoa.

Izen-ematea Loramendiren egoitzan, udaletxean edo *emakumeenfrontenisauda@gmail.com* helbide elektronikoa egin beharko da urtarrilaren 17a baino lehen eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. Antolatzaileek deizabala egin dute: "Emakumeak, euskara eta kirola eskutik helduta joan daitezkeela erakutsi eta, nola ez, ondo pasatu eta, ahal bada, irabaztera".

hemen bada giro!

ARETXABALETAKO TABERNA ETA JATETXEEN GIDA

Gurea

TABERNA

Lotoak eta
kinielak



Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



IOSU

taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia

Kroasantegia

Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



ORLY TABERNA



*Giro berria dastatu,
eta Orly aukeratu!*

Herriko plaza 3 • ARETXABALETA

IZARTU

kafetegia



Iralabari plaza
ARETXABALETA

Asteazkenetan PINTXO-POTEOA

*Animatu eta
etorri gurera!*

Gabon sasoiaren aretxabaletar guztien ilusioak pizteko egutegi oparoa

- ▶ Opor egun hauek alaitu eta jendea etxetik ateratzeko egitarau zabala egongo da herrian
- ▶ Gaztetxoek Bilbora eta Donostiara joateko eta multiabentura egiteko aukera ere izango dute

IMANOL GALLEGU | ARETXABALETAKO

Gaingan dugu urteko sasoi bukolikoena. Familia, opariak, bazkari eta afari oparoak... Hau guztia alde batera utzi gabe, Aretxabaletak kaleak Gabonei zabalduko dizkie. Eguraldiari aurre eginez, jendeak familia giroan gozatzeko egitarau oparoa prestatu dute hainbat eragileren artean.

Olentzerok aldatetako

Olentzerok eta Mari Domingik haurren eskutitzak kaleetan jasozten zituzten arren, aurten ez dute hori egingo. Martitzen goiza girotzeko, Basotxo abesbatzarekin batera kantu kalejira egiteko aukera egongo da. Ondoren, 12:00etan, Olentzero eta Mari Domingi etxeko txikiekin elkartuko dira, eta bertan batuko dituzte eskutitzak. Arratsaldean, 18:30ean, Ibarra kiroldegitik plazarako ibilbidean ez dute geldiuenerik egingo: hau da, haurrak agurtzen eta gozokiak banatzen egingo dute ibilbidea.

Bizarzurik eta Errege Kabalgatak ez dute aldatetarik izango. Urteko azken egunean, Erregeen laguntzaileak haurren eskutitzak jasoko ditu urtarrilaren 5ean kabalgataren ostean, eta txintxoak izan diren haurrei opariak utzi-



Aurten, Olentzerok eta Mari Domingik goizean jasoko dituzte haurren eskutitzak, argazkian iazkoak | GOIENA

ko dizkiete, alde aurretik garbitu dituzten zapatatetan.

Gazteak protagonista

Herriko gazteek Aretxabaletan ez ezik herritik kanpo ere aisaldirako aukera asko izango dituz-

te. Gazteleku, ludoteka eta ohiko jolasparkeetatik at, Poxpolin Parke txikiaren zoramena eragingo du. Nagusiagoek, aldiz, Hontza Extrem abentura parkera edo Donostiako izotz pista joateko aukera izango dute. Irteera horie-

tara joan nahi dutenek gazte txokora gerturatu beharko dute domeka baino lehen.

Bilboko PINera joan nahi dutenek, aldiz, gaur izango dute Algara ludotekan izena emateko azken eguna.

Gabon giroa nagusi

Aretxabaletako abesbatzak ere sasoiarekin bat egingo duen emaldia eskainiko du datorren astean, domekan.

Herriko dendak ere ez dira atzean geratuko eta zenbait egunetan ordutegi berezia izango dute. Zapatuan, adibidez, goizez eta arratsaldez irekiko dituzte ateak. Horrez gain, erosketak animatzeko eskaintza bereziak egingo dituzte.



Errege Kabalgatak ere jende asko batzen du. | GOIENA

GAZTEENTZAKO HITZORDUAK

ABENDUAK 21-22

17:00 Oparigintza tailerra gazte txokoa.

ABENDUAK 27

10:00 Hontza Extrem abentura parkera txangoa. Izen-ematea gazte txokoa.

ABENDUAK 28

19:00 Euskal selekzioaren festa gazte txokoa.

ABENDUAK 29

09:30 Donostiako izotz pista irteera. Izen-ematea gazte txokoa.

ABENDUAK 30

10:00 PINera irteera. Izena Algara ludotekan.

19:00 Gaba elegantia gazte txokoa.

PINera irteerak 12 euroko (bazkideek 11) kostua izango du. Donostia eta abentura parkera txangoek, aldiz, 10 eurokoa.

'166 ILUSIO, 166 OPARI' KANPAINA

GAUR PAGALDAIXENIAN

18:00 Gazte ekimenak taberna zabalduko du eta 28 opari-txartel banatuko dira.

19:30 The Potes taldearen kontzertua.

BIHAR BASOTXON

11:00 Elkartearen aurrean opari-txartel banaketa.

HITZORDU KLASIKOAK

ABENDUAK 24, MARI DOMINGI ETA OLENTZERO

10:30 Haurrek Basotxo abesbatzarekin batera kaleetan Gabon kanta abestuko dituzte.

12:00 Herriko plazan jasoko dituzte eskutitzak.

18:30 Ibarrik irten eta kaleetan zehar ibiliko dira.

ABENDUAK 26, POXPOLIN PARK

11:00-13:00 eta 17:00-20:00 Puzgarriak, tailerrak, teknologia berrien txokoa...

ABENDUAK 27, POXPOLIN PARK

11:00-13:00 eta 17:00-20:00 Puzgarriak igerilekuan.

ABENDUAK 29, ARETXABALETAKO ABESBATZA

19:00 Gabonetako kontzertua parrokiaren.

ABENDUAK 31, BIZARZURI

18:30 Ibarrik irten eta kaleetan zehar ibiliko da.

URTARRILAK 5, ERREGE KABALGATA

18:30 Ibarrik irten eta kaleetan zehar ibiliko dira.

Poxpolin Parkeko lehen eguneko sarrerak 5 euro balioko du eta bigarren egunekoak, 3. Parkeko bonuak, guztira, 7 euro.

BASOTXO ELKARTEAREN EGITARAUA

BIHAR

11:00 Doke txapelketa egongo da.

Arratsaldean Gabonetako 40 otzara zozkatuko dituzte bazkideen artean eta ondoren txistorra banatuko dute.

Jou Diaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



Talde eragileetako kideak eta herritarrak martitzeneko bileran. | IURE EIZAGIRRE

Elkarbizitzarako oinarriak jarrita, lanean jarraitzera

Elkarbizitza prozesuko bileren errepasoa egin zuten martitzenean eta positibotzat jo zuten

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Talde-lana izan du oinarri azken hilabeteetan elkarbizitza planak eta aste honetan heldu da bakoitzak landutakoa besteekin partekatzeke unea. Horretarako bilera egin zuten martitzenean Olanan etxean eta talde eragileetako kideak zein hainbat herritar

batu ziren. Guztira, hogeitersona inguruk egin zuten prozesuari buruzko azken gogoeta.

Elkarbizitza prozesuaren bigarren faseari hasiera eman zitzaionetik hainbat bilera egin dituzte talde eragileek eta horietako bakoitzak gai bat landu du. Aurreko fasean egindako gogoetak

oinarri hartuta, herrira heltzen den jendeari harrera egokia egitea garrantzitsua dela ondorioztatu dute. Horretarako, errolda egiteko unean herrian dauden zerbitzu, ohitura eta balioez informazioa emateko eskatu diote Udalari.

Euskara eta kulturartekotasuna ere izan dituzte aztergai bileretan. Lehenengoari dagokionez, harremanetan lehen hitza euskaraz izatearen garrantzia azpimarratu dute, nahiz eta ikasten ari direnekin pazientzia izan behar dela aitortu duten. Beste kulturak ezagutzea beharrezkoa dela eta kultura arteko harreman ez dela egun bateko ospakizunera mugatu behar uste dute talde eragileetako kideek. Gainera, desberdintasunetan bakarrik oinarritu beharrean, berdintasunei begiratu beharra azpimarratu dute.

Prozesuaren balorazio positiboa egin zuten martitzeneko bileran eta "ideia ezberdinak batu eta ikuspegia zabaltzeko" balio izan duela adierazi zuten. "Gauzak definitzea lortu dugu, zertaz ari garen jakitea. Orain hau nola zehaztu ezagutzea falta da", zioen herritar batek.

Batzarra eta kontzertua izango dira gaur Gaztetxean

I.E. | ANTZUOLA

Urtea amaitzen ari den honetan, Gaztetxeak Gabonetarako egitaraua aurrera eramateko lanen banaketa erabakiko du gaur 18:00etatik aurrera egingo duen batzarrean. Horrez gain, hainbat gai landuko dituzte gaur: egun Gaztetxearen jardura aurrera eramateko lanean dabilen talde bakoitzaren egoera zein den, 2014ari begira zer duten egiteko, Topaturen harpidetza prozesuarekin bat egin edo ez, Urretxu-Zumarragako gaztetxearen egoera eta otsailerako aurreikusita dauden berdintasun tailerrak.

Hausnartu eta erabakiak hartu ostean, dibertsiorako unea helduko da, 22:30etik aurrera Bagauda talde oñatiarrak eta Urgatz bermeotarrak kontzertua emango dute-eta.



OLAIA MURUA

Euskara ikasleak errotan izan dira

Aurten bi talde ari dira euskara ikasten eta ikasgelaz kanpo ere ezagutza lor daitekeenez, Antiguako errota bisitatzen izan ziren eguaztenean. Bertako Florentino Lamarianok "pazientzia handiarekin" azaldu zien errotak nola funtzionatzen duen eta nola egiten zituzten irina eta ogia bertan. Irteera horrekin eman diote amaiera ikasturteko lehenengo hiru hilekoari.

Martitzenean amaituko da Xinkonako umeen ikastaroetako izen-ematea

Haurrendako hainbat ikastaro ematen dira duela ikasturte batzuetatik hona Xinkona dendan. Urtarrilean hasiko da ikastaro berria, eta, berrikuntza gisa, lau hilabete iraungo du, hiru beharrean. Izena emateko epea zabalik dago eta 2014an 4 urte baino gehiago betetzen dituztenek egin dezakete. Martitzena izango da horretarako azkeneko eguna.

Ile apaindegia

Cots

Edertze aretoa

Germaine de Capuccini produktua

Laser bidezko depilazioa
Informa zaitetz!

Zorionak
eta Urte berri on!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI



Eskerrik asko danoi!

Bizitzan beti egoten dia denboraldi onak eta ez hain onak, eta neri pertsonalki, hola-kotxe "ez hain on" bat bizitzia tokau jat azkenaldixan. Dana dala, gauzak zaillak jartzen dianen be, beti dago *zerbait* (minimua bada be) pozgarrixa, positibua, ilusiño txiki bat sortzen dotzuna... eta inportantiena *zerbait* horri eustia izeten da.

Honegaittik, gaur idazten dodan artikulua honekin esatia nahi dotzuetena ondorengua da: *Hala moduz* zaren momentu horretan dana dezente

gehixago baloratzen dala, detalle txikixenak be sekulako baloria lortzen dabela, hitzak be askoz gehixago baloratzen ditzuzula.

Guzti honegatik nahiko nuke milla esker ez, millioika esker emun dan-danoi: apoiatu gaitzuzuei, laguntzeko prest egon zaretenei, gure pendiente ibili zaretenei, edozein momentutan esku bat bota dozuenei, eta abar luze-luze bat. Ez daukogu hitzik jaso dogun guztia eskertzeko. Beraz, esan biharra daukat sekulako leziñua ikasi dotela bai osasun aldetik, baiña, batez be, solidaridade aldetik eta humanidade aldetik.

Izen pilla esan neizke (familixia, lagunak, herritarrak, bizilagunak, ikastarotako guraso eta haurrak, M. Paz, Miren, Olatz...), baiña GOIENA guztia beteko nebanez, orokortzia onena: eskerrik asko danoi, bihotzez!

Santo Tomasak eta Gabonak ospatuko dituzte herriko umeek

I.E. | ANTZUOLA

Gabonen aurretik izaten da zer ospatua, eta, bihar Santo Tomas eguna izanik, hainbat ekintza egingo dituzte eskolako patioan euskal ohiturak gogora ekartzeko asmotan.

Haurrak izango dira protagonista nagusiak, baina herri guztiari zabalduetako ospakizuna izango da. Arratsaldean haurrak eskolara sartzearekin batera, azokara eraman beharrekoak jasoko dituzte: animaliak, barazkiak zein gozoak.

Egunaz gozatzear gain, erantzukizun handia izango dute ikasleek Santo Tomas egunean; izan ere, bosgarren mailako ikasleek txikiagoendako jolasak prestatu beharko dituzte eta seigarren mailakoek, berriz, ikasturte amaierako bidaiarako dirua batzeko txartelak salduko dituzte.

Gabonetako ekitaldiak

Gabonek ere eskolan izango dute hasiera; izan ere, abenduaren 24ean kalejira egingo

SANTO TOMAS AZOKA

14:00 Azokarako ekarri beharrekoak jasotzea.

14:30 Azokara bisita 2. mailatik gorakoek.

15:00 Jolasak gimnasioan.

16:00 Txistorra eta txokolata banatzea.

16:30 Jakien dastaketa familia eta herritarrentzat.

17:00 Zozketa.

dute umeek eta gurasoek Errekaldetik irtenda. Goizeko hamaitketan izango da hori.

Arratsaldean, 18:30ean, Olenztzeroren eta Mari Domingiren jaitsiera izango da San Josetik. Aurten, berrikuntza gisa, abestu egingo dute bidean eta ondoren, Herriko Plazan egingo dute ekitaldi nagusia.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Ekintza bereziak urteko egun berezienendako

Udalak hainbat talderekin batera antolatu du Gabonetako programa

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Gaietan ditugu Gabonak, urteko egun berezienak. Eta aurten ere ia egunero egongo da ekintza bereziren bat, Udalak eta herriko hainbat kultur taldek zein norbanakok elkarlanean antolatuta. Nobedade handirik ez dago; bat aipatzekotan, aurten Oletan ireki duten Hontza Extrem abentura parkera egingo duten irteera aipa daiteke. Gazteendako ekintza horiek Txatxilipurdirekin batera antolatu dira eta abentura parkeaz gain, Gasteizko izotz-pistara ere joango dira. Bietarako izena eman behar da udaletxean, abenduaren 23a baino lehen.

Olentzero, gertuko

Haurrendako egun handietako bat, zalantza barik, Olentzeroren etorrera izango da. Elkartasuna guraso elkarrekin egindako gonbidapena gustu handiz jaso ostean, baso bidetik jaitsiko da traktorean, eta trikiti doinuez zein laguntzaileen kandeletz ingu-

ratuta, kalejiran joango da Sastiñaraino. Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzen saioa entzun ostean, ikazkin maituenak Sastiñan jasoko ditu haurren gutunak; banan-banan, urtero bezain gertuko. Gero gatzaina erreka eta sagardoa dasatzeko aukera egongo da.

Era berean, umeek bi egunetan izango dute Gabonetako jolas parkeez gozatzeko aukera, Bilboko PINera antolatu den irteeran eta herriko kiroldegian.

Amets Arzallusen amua

Bestalde, helduen gozamenerako klasiko bat den Gabonetako bertso saioa urtea amaitu aurretik egingo da aurten, abenduaren 27an (19:30). Amets Arzallus txapelduna etorriko da eta horrek are erakargarriagoa egingo du saioa. Herriko bertso eskolako ordezkaria Paula Amilburu izango da aurten eta harekin batera Manex Agirre eta Xabi Igoa ari tuko dira gai jartzaile lanetan.



lazio bertso saioa: Miren Amuriza eta Xabi Igoa gaia entzuten. | JOKIN BEREZIARTUA



Olentzero iaz, haur batekin kontu kontari. | AIZPEA AJURIAGERRA

GABONETAKO EGITARAUA

ABENDUAK 20

19:00 Alex Mendikuterren argazki erakusketa Sastiñan.

22:30 *Next Stop: Greenland* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia kultura etxean.

ABENDUAK 23

12:00 Gabonetako tailerrak, umeendako, ludotekan.

17:00 *Zapata gorriak* haur antzerkia kultura etxean.

19:00 Alex Mendikuterren argazki erakusketa Sastiñan.

ABENDUAK 24

18:00 Olentzeroren etorrera, Elkartasuna guraso elkarrekin eskutik. Kalejira kiroldegitik plazaraino. Ikazkinak Sastiñan irakurriko ditu gutunak; Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzen emanaldia.

ABENDUAK 26

12:00 Gabonetako tailerrak, umeendako, ludotekan: turroi izozkiak.

17:00 Ixabel Millet ipuin kontalaria: 2 eta 6 urte arteko umeendako saioa.

18:30 Ixabel Millet ipuin kontalaria: 7 urtetik gorakoendako saioa.

ABENDUAK 27

09:30 Gazteendako irteera Hontza Extrem abentura parkera. Prezioa: hamar euro.

12:00 Gabonetako tailerrak, umeendako, ludotekan: mitologia tailerrak.

19:30 Gabonetako bertso saioa kultura etxean: Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Xabier Silveira eta Paula Amilburu.

ABENDUAK 28

22:30 *Morritson eta Gartzia* antzezlan kultura etxean, Txirritola elkarrekin antolatuta.

ABENDUAK 29

09:30 Gazteendako irteera Gasteizko izotz-pistara. Prezioa: hamar euro.

ABENDUAK 30

09:15 Bilboko PINera irteera; **18:00** aldera itzuliko dira. Gaur da izena emateko azken eguna, udaletxean: 945 44 50 16. Prezioa: zortzi euro.

ABENDUAK 31

17:00 Imanol Ituiño magoaren *Magia Parrastan* ikuskizuna kultura etxean.

URTARRILAK 1

Goizean Urteari ongietorria egiteko Orixolera mendi martxa.

URTARRILAK 2

17:00 Umeendako dantzaldia kiroldegian.

URTARRILAK 3

12:00-14:00 eta 16:30-19:30 Jolasparkea kiroldegian.

Azken egunak Alaiak-en logotipo lehiaketarako

J.B. | ARAMAIO

Azken egunak dira Alaiak-en erretiratu elkarrekin logotipo lehiaketan parte hartzeko. Izan ere, abenduaren 31rako zehaztu zuten antolatzaileek izen-emate epea. Adierazi digutenez, oraindik lan gutxi jaso dituzte: "Herriarrak animatu gura ditugu lehiaketan parte har dezaten". Lanak honako helbide elektronikora bidali behar dira: alaiak202@gmail.com. Elkarrekin identifikatuko duen logotipoa aukeratzea da lehiaketaren helburu nagusia. Aramaion jaio eta bizi den edonork har dezake parte; irudiak aurretik inon argitaratu gabekoa eta beste lehiaketa batzuetan aurkeztu gabekoa izan behar du.

Irudiaren balio artistikoa eta ordezkatzeko zein komunikatzeko duen gaitasuna hartuko ditu aintzat epaimahaiak. Era berean, moldatzeko erraza duen diseinua den ere baloratuko dute, hainbat euskarritan erabili ahal izateko. Epaimahaiak lehiaketa irabazlerik gabe uztea erabaki dezake, aurkeztu diren lanek ez badute gutxienezko kalitaterik.

100 euroko saria

Irabazleak 100 euroko saria jasoko du 2014ko urtarrilean, elkarrekin urteroko batzarraren. Argibide gehiagorako, deitu 605 72 05 31 telefono zenbakira.

Aramaixok Numero K taldearen aurka jokatu du bihar

Areto futboleko diharduen talde aramaioarrak Numero K taldearen aurka jokatu du bihar Gasteizko Aldabe kantzian (19:15). Saillapeneko beheko postuetan jarraitzen dute oraindik, garaipen bakarra erdietsita. Aurkariak hiru puntura dituzte aramaioarrek, eta, beraz, aukera ederra izango da pixkanaka saillapenean gora egiteko.

Gabonetako Pilota Txapelketako partiduak Aramaion

Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuolako pilotariak jasoko ditu Aramaio kiroldegian Gabonetan. Kanporaketak jokatu dira, benjamin eta infantiletan. Partiduak hilaren 23an, 26an, 27an eta 28an izango dira, 10:30etik 13:00etara. Finala Oñatin jokatu da abenduaren 31n.

Murugaingo indusketen emaitzak, herrian bertan

Murugainen bi urte iraun duten indusketen emaitzak ikusgai daude herrian bertan, kiroldegi ondoan jarri duten panelean. Burdin Aroko harresiaren eta 36ko gerrako aztarnak ezagutzera eman zituzten Ondare Babeseko arkeologoek. 2014an proiektua berriro martxan jarri gura dute, Gipuzkoako aldea ikertzeko.



ONDARE BABESA

ELGETA

Olentzero astelehen iluntzean jaitsiko da Intxortatik Elgetara

Mizpirualde egoitzan bizi diren zortzi elgetarrek, berriz, bihar jasoko dute herrikideen urteroko bisita

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Herri Eskolan egun berezia izan da gaurkoa, izan ere, Gabonetako oporrak hartu haurretik Olentzeroren bisita izan dute Elgetako neska-mutikoeak. Asteotan prestaketetan murgilduta ibili dira, eta azkenean hemen dira Gabonak.

Opor egunotan izango dute zer egina: eskulan tailerrak, jostailu truke azoka, txokolate-jana, Olentzeroren etorrera, pilota txapelketa, antzerkia, Gabonetako haur parkea...

Jostailu truke azoka

Iaz egin zen, estreinakoz, jostailu truke azoka, eta, indartu guran,

eskolaren bitartez ere batu dira aurten jostailuak. Domekan egingo da azoka, eta txartela duten guztiek jostailu berria lortzeko aukera izango dute. Herriko plazan egingo da azoka hori eguerditik aurrera.

Bisita Mizpirualdera

Begarako Mizpirualde egoitzan bizi diren elgetarrek ere asteon jasoko dituzte Gabonetako lehen opariak. Udalak eta Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta San Tomas jaia ospatuko dute bihar, zapatua, eta herritar talde baten bisita jasoko dute, 16:00etan. Nahi duen orok du bisita horretan parte hartzeko aukera.

GABONAK ABENDUAK 21-26

ABENDUAK 21

10:00 Ludotekan, eskulanak. 12 urtetik gorakoendako.

16:30 Mizpirualden, bisita han bizi diren elgetarrei.

ABENDUAK 22

12:00 plazan, truke azoka.

13:00 plazatik, Elgeta kantuan.

ABENDUAK 23

17:00 plazan, eskulan azoka.

17:30 plazan, txokolate jana eta Gabon kantua.

18:00 plazan, Olentzeroren etorrera.

ABENDUAK 24

10:00 eskolatik, Gabon kantua kalez kale.

ABENDUAK 26

18:00 Espaloian, antzerkia: 'Olentzeroren sekretua'.

Aspaldiko partez, bihar, Ostiada Oi! taldearen zuzeneko emanaldia

L.Z. | ELGETA

Badira urte batzuk Ostiada Oi! taldeak emanaldirik egiten ez duela, eta ikusmina sortu du bihar, hilak 21, laukoteak Elgetako gaztetxean egingo duen kontzertuak. "Aniotz Virumbralesek agurreko kontzertuak egiteko proposamena bota zuen, eta,

azkenean, laurok animatu gara", esan du Iker Valle elgetarrak. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta Jonny Gerriwelt eta BC Bombs taldeek ere joko dute. Ostiada Oi! taldekoak orain dela lauzpabost hilabete hasi ziren entseatzan, eta "betiko kantua" joko dituztela esan du Valle.



Ostiada Oi! duela bost urte. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

Aitziber Gorosabel | Labideako eta gatz museoko kudeatzailea

"Herritarrak beti izan ditut laguntzeko gertu eta asko lagundu didate"

12 urtean bete duen zeregina utzi egin behar du Aitziber Gorosabelek urtea amaitu aurretik

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Aitziber Gorosabel (Arrasate, 1976) izan da 2001a ezkerko Labidea saltokiaren eta Eugenio Otsoa gatz museoaren kudeatzailea. Baina etapa hori itxi eta berria zabaldu gura du hark; hala, Labideako eta gatz museoko kudeaketarako adjudikatutako epea bukatzen dela aprobetxatu (urtea bukatu aurretik), eta utzi egin behar du orain arteko jarduna. Penaz baina gogoz doa:

Gogoz ere bai, hortaz?

Bai. Labideako lanak dedikazio handia eskatzen du. Niri, berez, museokoa gustatzen zait; hor

disfrutatzen dut gehien, bisitekin eta. Gainera, dendaren exigentzia ekonomikoa handia da bi lekutan egon ahal izateko. Eta horren ondorioz egun asko lan egitea tokatu zait eta hori desgaste handia da. Hala ere, hori da alde negatibo bakarra. Gainontzean, Gatzagan lan egitea ona izan da niretzat. Txikia hemen hazi ahal izan dut. Arlo pertsonalean, asko ikasi dut jendearekiko harremanetan. Eta horrekin lotuta, herritarrak beti izan ditut laguntzeko gertu eta asko lagundu didate. **Horrenbeste urtean, izango duzu, bada, zerbait berezia gogoan...**



Aitziber Gorosabel, Labidea dendan. | GOIENA

Asko. Adibidez, orain zortzi urte elurte handia bota zuen, eta hona etorri ziren guztiak txokolatea jatera. Edo orain bi urteko Inauteriak: Asterix eta Obelixen inspiratuta mozorroto ginen guztiak. Lapurreta ere izan genuen orain bospasei urte. Atea apurtu eta kutzako dirua eta ordenagailua eraman zituzten... Museoa, berriz, bereziki gogoan dut Arrasateko Lehen Hezkuntzakoak etorri zirenekoa. 3-4 urte zituztelako bisita laburtu egin genuen;

Abendurako iragarrita zegoen herri galdeketa atzeratu egingo dute

L.Z. | ELGETA

Apirilean onartu zuen Elgetako udalbatzak hondakinen kudeaketarako ekintza plana. Udalean ordezkaritza duten hiru talde politikoen adostasunarekin onartu zen planak hainbat neurri jasotzen zituen; tartean, abenduan gaiaren gaineko herri galdeketa egitea.

Bada, herri galdeketa hori atzeratu egingo dute. Izan ere,

Hirigintza zinegotzi Iban Retolazak adierazi duenez, beste egutegi bat adosteko lanean ari dira asteotan Udaleko zinegotziak. Kontsulta egingo dela baieztatu zuen Retolazak, baina egutegi berria finkatu behar dela.

Ekintza planaren helburuetako bat da gaiaren inguruan elgetarrek iritzia garatu eta kritikoa lortzea.

X. PILOTA TXAPELKETA

Finalerdiak jokatuko dituzte gaur

Hamabost bikotek hartu dute parte txapelketan, eta lau onenak lanean ikusteko aukera izango dugu finalerdietan. Afaria ere gaur egingo dute, Intxorta elkartearen. Finalak, urtero legez, Urtezahar egunean jokatuko dira.

GAUR, BARIKUA, 18:00ETAN

Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Jabier Bolinaga-Mikel Elkoro

Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Pello Larrea-Fernando Zenitagoia

Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Diego Cantabrana-Iban Retolaza

Ibon Urntzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua

OHARRAK

ESKULANAK LUDOTEKAN

Gaur, 17:00etan, Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra. 12 urtetik beherakoendako.

MARRAZKI LEHIAKETA

Hiru sarituen berri emango dute, gaur, liburutegian. Lan guztiak ikusgai egingo dira.

MUSIKA IKASLEAK

Lorea Larrañagaren ikasleek

emanaldia egingo dute gaur, Espaloian, 19:00etan.

IPUINAK HELDUENDAKO

Joxe Mari Karrerek *Ipuin pre-erotikoak* saioa egingo du gaur, 22:00, liburutegian.

DANTZA IKUSKIZUNA

Despertar los Sentidos taldeak *Abre los ojos* saioa egingo du, bihar, 18:00etan, Espaloian.

Labidea hartzeko aukera

Labidearen kudeaketa kontratu bidez esleituko du Udalak. Sei hilabeterako kontratua izango da, urtebetara luzatzeko aukerarekin. Edozeinek aurkeztu ahal du bere burua, baldintza batzuk beteta: 18 urtetik gorakoa izatea; ez izatea arazorik administrazioarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotea. Horrez gain, euskaraz jakin egin behar du, herritarrei eta bisitariei euskaraz zerbitzua eman ahal izateko. Labidearen erdutegia eta egutegiak errespetatu egin beharko ditu. Eta urtarillaren 13a aurretik zabaldu beharko du berriz Labidea (data malgua da, hala ere). Eskaintzak abenduaren 30a aurretik egin behar dira.

ZIKLO-KROSA

Gipuzkoako txapelketak jokatu dira Oñatin domekan

- Goi mailako txirrindulariak batuko dira San Martingo zelaietan
- Ibilbide berria izango du; tekniko eta azkarra izango da zirkuitua

IRATI GOITIA | OÑATI

Punta-puntako ziklo-krosaz gozatzeko aukera izango da domeka honetan Oñatin, San Martin auzoan. Goizeko hamarretan bizikleta gainean jartzen lehenak kadeteak izango dira eta haien ondoren lehiatuko dira gazteak, masterrak, elite mailakoak eta 23 urtez azpikoak. Azken bi horiek batera jardungo dute.

Gipuzkoako txapelketak

Aloña Mendik 2010ean ekin zion, hainbat urtetako etenaren ostean, berriz ere ziklo-krosa antolatzea. Urtetik urtera ahalegin bereziak egin dituzte antolatzaileek lehiaketaren maila hobetzen joateko. Iaz, elite mailako txirrindulariak ekartzea lortu zuten. Eta aurten ere bertan izango dira. Hala adierazi digu Ruper Arkauzek, Arrikruz ziklo-kros taldeko arduradunak: "Zaila izaten da etorriko direnen zerrenda ematea. Izan ere, batzuek izena ematen dute, baina gero ez dira etortzen. Hala ere, uste dugu hemen izango direla goi mailan dabiltzan Aitor Hernandez eta Kepa Peña, adibidez". Aurten, gainera, Gipuzkoako Txapelketak ere jokatu dira Oñatin.



Bi txirrindulari bizikleta bizkarrean hartuta, iaz. | GOIENA

Zirkuitu tekniko eta azkarra

San Martingo zuhaitzian eta albo belardi baten izango da zirkuitua. Joan zen zapatuan hasi ziren antolatzaileak prestakuntza lanetan eta bihar emango dizkio azken ukituak. "Teknikoa eta

azkarra izango da ibilbidea, nahiko polita gelditu da", dio Arkauzek. Eta honakoa gaineratu: "Orain dela bi urte Federazioak esan zigan zirkuitua ez zela aproposa, ur asko metatzen delako zelaian. Beraz, iaz, goiko zatian bakarrik

ORDUTEGIA

10:00: Kadeteak.
11:00: Gazteak.
12:00: Masterrak.
13:00: Eliteak eta 23 urtez azpikoak.

ESANAK

"Zirkuituaz, errieta jasotzera arriskatu gara"

RUPER ARKAUZ | ARRIKRUTZ

jarri genuen ibilbidea. Aurten, baina, zelai osoa hartu dugu. Izan ere, egungo teknologiei esker, jakin dugu ia aste osoan egin behar duela eguraldi ona, baita domekan ere. Beraz, txirrindularien partetik eta federaziotik errieta jasotzeko arriskua izango dugun arren, erabaki hori hartzera ausartu gara".

Bertakoak ere bertan

"Ziklo-krosa antolatzen hasi ginen bazirelako mutiko batzuk kirol honetan aritzen zirenak, eta eurei laguntzeko hasi ginen", dio Arkauzek. Arrikruz taldeko hainbatek hartuko dute parte domekako lehiari, baita bailarako ere.

SASKIBALOIA

1968an jokatuak lehen saskibaloia partidua gogoratzeko lanetan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Aurten 45 urte bete dira Arrasaten lehenengo saskibaloia partidua jokatu zutenetik –eta telebistaz grabatutako irudi ederrak ditu klubak–. Iturripen izan zen lehenengo partidua hura, eta 45 urte geroago, orduko jokalariek lagunartekoa jokatu dute EBako Easo talde donostiarraren kontra (19:00, Iturripen).

EBAko Easoren kontra

Hain zuzen, hitzordu berezi hori Ointxe!-k antolatuko duen Gazteen Gabonetako Torneo barruan jokatu dute, egitaraua osatuz. Hala, datorren egubakoitzean, hilak 27, MUKo senior mailako jokalariek lagunartekoa jokatu dute EBako Easo talde donostiarraren kontra (19:00, Iturripen).

Gabonetako Torneoa, indarrez

Abenduaren 26tik hasita, Errioxako, Kataluniako, Madrilgo eta Euskal Herriko ordezkariak izango dira zein baino zein gehiago Iturripen. Hala, Easo A, Cornella, Clavijo, Getafe, Tabirako Baque eta MUK hartuko dute esku torneoan. Hala, lehenengo partidua hilaren 26an jokatu dute (15:45), eta Easo eta Clavijo hasiko dira motorrak berotzen –hiru partidua izango dira arratsalde horretan, eta MUK 17:45ean jokatu du. Goizean, baina, Saski Eskolako topaketak egingo dituzte Iturripen (09:00-14:00).

Abenduaren 27a infantil mailako taldeen topaketaz hasiko dute (09:00-10:30), eta 12:45ean hasiko dituzte gazteen partidua. Eta abenduaren 28an finala egongo da jokoan (12:00), baina lehenengo torneooko beste sailkatuak zelan geratzen diren erabakitze-ko partidua izango dira.



Iturripen duela ia bost hamarkada jokatuak partiduko irudia. | OINTXE!



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



29.500 €

> Citroën Grand C4 Picasso EXCLUSIVE ETG 115

- 2013
- Diesela
- 1.385 Km
- Gris iluna

CHAPIME



San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

- | | |
|---|----------|
| • Citroën Berlingo Combi 1.6HDI SX Multispace 110 | 12.950 € |
| 2012 Diesela 21.400 Km Gorri argia | |
| • Citroën Berlingo Combi 1.6 HDI SEDUCTION 115 | 14.100 € |
| 2013 Diesela 12.466 Km Bella Isla urdina | |
| • Citroën C2 1.4i Collection | 5.200 € |
| 2007 Gasolina berungabea 78.500 Km Gris argia | |
| • Citroën C3 1.4 HDi Business | 8.950 € |
| 2011 Diesela 38.350 Km Gris iluna | |
| • Citroën Elysée 1.2 VTI Exclusive 70 | 11.000 € |
| 2013 Gasolina berungabea 750 Km Gris iluna | |
| • Citroën C3 HDi COLLECTION 70 | 14.750 € |
| 2013 Diesela 225 Km Aluminium grisa | |
| • Citroën C4 eHdi EXCLUSIVE 115 | 19.000 € |
| 2013 Diesela 800 Km Zuri nakaratua | |
| • Peugeot Partner Tepee 1.6HDI Access | 13.400 € |
| 2012 Diesela 65 Km Zuria | |
| • Ford FT Tourneo 200 S Connect 75 | 4.300 € |
| 2005 Diesela 129.456 Km Zuria | |

EDOZEIN MARKATAKO MANTENTZE-LANAK 69 €-tik AURRERA (5 urte baino gehiagoko autoentzako baliagarria)

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



Antzuola izango da etxean jokatu duen ibarreko ordezkari bakarra. | JA

FRONTENISA

Emakumeen Txapelketa, urtea hasteaz batera

Euskara, emakumea eta kirola eskutik helduta jo pilota! lelopean Aretxabaletan emakumezkoen frontenis txapelketa jarri dute martxan, Loramendik antolatuta. Txapelketa urtarrilaren 25etik martxoaren 8ra bitartean jokatu dute, eta dagoeneko eman daiteke izena: Loramendin, udaletxean, edota *emakumeenfrontenisaUDA@gmail.com* helbidera idatzita. Bikote bakoitzeko 10 euro ordaindu beharko da, baina adi, sariak ederrak dira-eta.

KIROL SARIAK

Oñatiarrek gaur aukeratu dute herriko kirolari onena

Gaur, egubakoitza, 18:30ean hasiko duten ekitaldian (Oñatiko udaletxean) aukeratu dituzte Oñatiko kirolari onenak. Epaimahai batek aukeratu ditu hainbat sari, baina aurtengo nobedadea izan da herritarrek ere botoa eman ahal izan dutela, eta hauek izan dira hautagaiak: Josune Odriozola, Iban Letamendi, Gorka Guridi eta Aitor Otamendi. Hala, 2013an gehien nabarmendu diren kirolari eta kirol eragileak omenduko ditu Udalak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
Balmaseda-Aretxabaleta
Domeka. 12:30. Salinillas.

OHOREZKO ERREGIONALA
Real Union-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Gal.
Vasconia-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Donostia.
Antzuola-Hondarribia
Zapatua. 15:45. Estala.
Getariako-Bergara
Domeka. 17:00. Mendibelz.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Mondra-Soraluze
Zapatua. 16:30. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Scalibur-Eskoriatza
Zapatua. 16:15. Basauri.

LEHENENGO MAILA
Tellatuberi-Aretxabaleta
Domeka. 12:00. Zaldibia.

BIGAREN MAILA

Mondrate-Idiazabal
Zapatua. 17:00. Iturripe.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP. GIZON
Soraluze BKE-Gure Auzune
Zapatua. 18:30. Labegaraleta.

EUSKADIKO TXAP. EMAK
Urnieta-Izarraitz Aloña
Domeka. 12:00. Urnieta.

SASKIBAOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA
Zizur Ardoi-MU
Zapatua. 19:30. Zizur Nagusia.

AUTONOMIKOA

Astigarraga-Aloña Mendi
Domeka. 18:00. Astigarraga.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Irun-Kanpanzar ART
Zapatua. 12:00. Plaiaundi.

KADETEAK

Ordizia/Arrasate-Getxo
Zapatua. 12:00. Altamira.

KIROL SARIAK

OÑATIKO KIROL SARIEN EKITALDIA
Gaur. 18:30. Oñatiko udaletxean.

TENISA

SANTAMAS TXAPELKETAKO FINALAK
Zapatua. 11:00. Musakolan.

ZIKLO-KROSA

OÑATIKO SARIA
Domeka. 10:00. Oñati.

PILOTA

SANTAMAS TXAPELKETAKO FINALAK
Gaur. 19:15. Uarkape.

GIPIZKOAKO TXAPELKETAKO FINALAK
Zapatua. 10:30ean hasita:
Beharzana-Hernani (seniorrak)
Urnieta-Intxurre (Kadeteak)
Gailurrerantz-Arrasate (gazteak)

SANTAMASETAKO JAIALDIA
Domeka. 18:00etan hasita:
Moron-Garate (Eskuz banaka)
Mikel Goñi-Bolinaga vs
Zuazua-Oskar Lasa

ESKALADA

BOULDER TXAPELKETA
Zapatua. Aretxabaletako Ibarren.

ESKOLA KIROLA

HERRI KIROLAK
Gaur. 16:45. Bergaran, Aranzadi
Ikastolaren patioan.



Arrasateko pilotariak Gipuzkoako txapela dute bihar jokoan. | I.S.

FUTBOLA

Estalan agurtuko du Antzuolak urtea, Hondarribiaren kontra jokotuta

X.U. | ARRASATE

Gabonetako oporraldiak balio izaten du ligako lehen balorazio formala egiteko. Lehenengo itzulia bete ez badute ere -hamabosgarren jardunaldia jokatu dute asteburuan- nahikoa izan da bakoitzaren indargune eta ahulguneak erakusteko, eta orain artekoak hainbat gauza erakutsi ditu garbi.

Onena, Antzuola

Batetik, Debagoienak nekez izango duela beste urte batzuetan izandako ordezkari indartsurik, hau da, gurean ez dagoela oilarririk. Eta bestalde, kategoriara iritsi berriak ondo baino hobeto hartu

diola neurria Ohorezko Erregionalar, izan ere, Antzuola izan da orain arte puntu gehien batu dituen taldea (20).

Hain zuzen, sailkapenean ondo ondoan duen Hondarribiaren kontra jokatu duteen zapatuan, Estalan.

Besteak, kanpoan

Gainontzekoek kanpoan jokatu dute urteko azken partidua. Aretxabaletak Irunera egingo du bidaia, seigarren dagoen Real Unionen kontra jokatzera. Oñatikoak, ostera, apur bat atzerago dagoen Vasconiaren kontra jokatu dute, eta Bergarak Getariakoak izango dituzte aurrean.

Carrefour
GORBEIA



2. alea -%70
1.000 produktu baino gehiago
%70 deskontuarekin 2.alean



INFORMAZIOA
INDIAREN DAGOEN LEDESAREN ARABERA,
EZ DIEGU ESARI ALKOHOLIKOEN SALTZEN ADINGABE!
22:00AK ARTI BARARRIK SALTZEN DITUGU EDARI ALKOHOLIKOENK!

Konbina itzazu
nahi duzun bezala

2. alea -%70
ale1 3,50€
2.alea 1,05€
2 ale 4,55€

GRAN VENDEMA
edo BARDESANO
Errioxako ardoa
Ardo ondua
75 cl



Txerrikume osoa
Kiloa

7,99€



Ganba erraldoia
20/30 pieza kg bakoitzeko
(Soltean edo 2 kg-ko kutxatan)
Kg bakoitza

7,99€
Kutxa bakoitza 15,98€

60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz




Doan
Autobideko bidesaria
carrefour.es



Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabari Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube) - Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



Abenduaren 31ra arte

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

... eta hartu parte
20 euroko
100
erosketa-bonuren
zozketan



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Bihotzez egindako flamenko eta dantza garaikide saioa

- ▶ Despetar Los Sentidos taldearen 'Abre los ojos' dantza saioa Espaloian
- ▶ Sarah Ramirezek sortutakoa da; down sindromea dutenen konpainia

AITZIBER ARANBURUZABALA | ELGETA Hirugarrenez igoko da Espaloiko oholtzara bihar, zapatua, 18:00etan, Bizkaiko Despetar Los Sentidos dantza konpainia. Down sindromea duten hamaika dantzarik flamenkoa eta dantza garaikidea uztartzen dituen *Abre los ojos* ikuskizuna ekarriko dute. Leihatilan eta espaloia.com atarian daude sarrerak, zortzi eurotan.

Elgetakoa gustuko duten antzokia dela dio Sarah Ramirezek, konpainiako zuzendari eta koreografoak: "Sekulako babes ematen digute; ikuskizun berri bat egin orduko, Josu de Vegak segituan deitzen digu hara joateko. Zoritxarrez, ez zaigu sarritan gertatzen, gogor borrokatu behar izaten dugu gure taldea gainontzeko dantza taldeak beste seriotasunez har dezaten".

Flamenkoa dantza garaikideaz Aurrez egindako bi ikuskizunak apurtu guran, flamenkoa dakarte oraingoan: "Egiten dugun lan bakoitzeko, pauso bat gehiago ematea eskatzen diet, badakit eta eskatutako guztia emateko ahalmena dutela; bete-bete sinisten dut eurengan eta horrela egin dut konpainia sortzeko erabakia hartu nuenetik. Flamenkoa dantzatzeko proposatuta, besteak beste, zapata bereziekin dantzatzera bultzatu ditut, horrek dakarren zailtasunekin", azaldu du Ramirezek.

Baserrri giroan kokatuta dago ordubeteko iraupena duen *Abre los ojos* lana, eta, dantzaren bitartez, askotariko sentimendu eta egoerak erakusten dituzte protagonistek: amodioa, desamodioa, desleialtasuna eta sentsualitatea, besteak beste. Egoera horiek guztiak dantzari bakoitzarentzako sortutako askotariko koreografiak erakutsiko dituzte: "Ema-



Abre los ojos ikuskizuna. | S. R.

kume berarekin maiteminduta dauden bi mutilen arteko lehia ikusiko dugu hasteko, Bizeten *Carmen* habanerarekin limurtuko gaitu neska amoranteak gero eta Jose Manuel Palacios flamenko-dantzariarekin jarraituko dugu. Baina badira dantzari guztiak elkarrekin egindako koreografiak ere; horien artean, emanaldia ixten duen jai kutsuko dantza zatia", dio zuzendariak.

ESANAK

"Borrokatu egin behar izaten dugu gure dantza taldea gainontzekoen seriotasun beraz hartzeko"

SARAH RAMIREZ | ZUZENDARIA

Pertsonengan sinismen osoa duen dantzaria

"Dantza egitea, gupidaren aurkakoa da". Sarah Ramirez dantzariak duen eguneroko leloa da hori; gorputzari protagonismoa eman behar zaiola esan gura du horrekin. Helburu horrekin sortu zuen, 2001ean, down sindromea eta garun paralisia duten dantzariarekin konpainia.

Dantza klasikoak da haren espezialitatea eta bide horretatik jaso ditu, besteak beste, Parisen eta Madrilan dantza eskola ugari. Dantzari ezagun askorekin egin du lan; Igor Yebrearekin, adibidez. Maite Leon du, baina, Ramirezek erreferentzia nagusi, hark erakutsitakoa du bizimoduan oinarri.

Maila handiko artistak

Alberto Herreros, Saioa Larrea, Mikel Martija, Zalao Unda, Ana Mota, Patricia Villar, Urtzi Urrutia, Jone Hernandez, Leire Zelaia, Ainara Rabanal eta Maribi Cordoba dira Elgetan dantzan ikusiko ditugun Despetar Los Sentidos taldeko artistak. Biharko emanaldian, irailean taldera etorritako bi dantzari berri izango dira, gaixorik dauden bi taldekideren lekuak oparitu dizkie eta irakasleak. Guztiz autonomoak dira dantzariak oholtzan, halaxe erakutsi die Ramirezek: "Ez dute gidarien beharrik, ikaragarria da koreografiak memorizatzeko duten abilezia. Lan honetan parte hartzen ez badute ere, garun paralisia duten kideak ere badira konpainian. Bakoitzaren egoera, muga edo ezaugarrietara moldatutako dantzak dira".

Protagonista horiekin batera, aurrez aipatutako Jose Manuel Palacios flamenko-dantzariak ere egingo du dantzan. Lan kontuak direla eta ez dira Elgetan izango Sergio Reyes flamenko-kantaria eta Juanjo Navas gitarrista".

Taularen gainean apenas ikusiko dugu dekoraturik: "Protagonistak eurak dira eta ez dute apaingarri beharrik, tablao flamenkoetako mahai bat eta bi aulki besterik ez dago eta arropak ere xumeak eta, bereziki, eroak dira", gaineratu du.

Lan berria dute bidean

Maiatzean estreinatu zuten *Abre los ojos* Ortuellan; zaleen erantzun ezin hobearrekin, arrakastarekin erakutsi dute gero hainbat aretotan; besteak beste, Segovian eta Barakaldoko BECen. Ramirezek, baina, labean du hurrengo: Afrikako musikan oinarritutakoa dela aurreratu du, eta hori ere gureru ekarri gura dutela.



Ruper Ordorika. | A. A.

Ruper Ordorika
Musikaria

"Bizi dugun garaietarako, pozik gaude diskoak izan duen harreraz"

A. A. | ELGETA

Espaloian izango da Ruper Ordorika abenduaren 29an. Igor Arzuaga Laudioko musikariak zabalduko du emanaldia, 19:00etan. Sarrerak salgai daude Espaloian, eta *on line* ere bai. Aurretik erosiz gero 12 eurotan eta kontzertu egunean, 14 eurotan.

Zelako kontzertua izango da erreperitorioari dagokionez? Azukre koxkorrik izango da?

Ba, bai. *Azukre koxkor* batzuk aterako ditugu, eta baita sasoi ezberdinetako kantuek ere. Badugu non aukeratu eta azken urteotako emanaldietan sartu gabeko pieza askotxo sartzen ditugu oraingo biran. Azken diskoa ere ospatu gura dugunez, horko kantu dezentematen saiatzen gara.

Taularen gainean ondo lagunduta izango zara.

Azken diskoko musikariak izango ditut alboan: Lutxo Neira baxuan, Arkaitz Miner gitarraz, mandolinaz eta biolinaz eta Hasier Oleaga baterian. Azken urteotako Mugalariak, azken finean.

Zelako harrera izan dute orain arteko emanaldiek?

Harrera on-ona, egia esan, eta baita diskoak ere, eta poztekoa da oso, bizi dugun garai ilunak kontuan hartuta. Espaloia, gainera, plaza goxoa izaten da... Ondo joan dadila!

Zorionak denoi!
Hauek dira Arrasateko Udaleri esker
Goiena Klubeko Asteko Kultur
Zozketaren irabazleak



Georgia Mass Choir gospel saiorako bi sarrera:
Iñaki Barrena San Miguel (Arrasate)



Santamas eguneko bertso saiorako bi sarrera:
Antton Iparragirre Elorza (Eskoriatza)

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO:
943 25 05 05



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

ZATOZ GASTEIZA, EGUBERRIEN GOXOTASUNAZ GOZATZERA!



IZOTZ-PISTA ETA IZOTZ-TXIRRISTA FLORIDAKO JAIOTZA IKUSGARRIA MUSIKA KALEAN ETA HIRIKO DENDA ONENAK EROSKETAK EGITEKO HAUR TAILER LUDIKOAK ARGIZARI GAUA GAINERA, ABENDUAREN 21EAN ETA 23AN ETA URTARRILAREN 3AN ETA 4AN DENDAK EGUERDIETAN IREKITA EGONGO DIRA. PARKING ZERBITZUA IRADIER ARENAN DOAN



argazkia: Daniel Llano



argazkia: Iñigo Montoya



argazkia: Daniel Llano

Zer da Gasteiz On?

Gasteizko hiriguneko denden elkarte bat da. Denetarikoa denda -arropa, jostailuak...-, tabernak, jatetxeak, gure hiriaren erdialdean. Elkartearen barruan ze negozio dauden jakiteko, webgunean kontsultatu: www.gasteizon.com.

INFORMAZIO GUNEAK NON DAUDE INFORMAZIO GUNEAK?

Arka plaza
San Frantzisko kalea
Ricardo Buesa kalea

Gasteiz On-en erosteak oparia dakar

Gasteiz ONeko dendetan 20 euro baino gehiagoko erosketak eginda, eta Informazio Guneren baten tiketak aurkeztuta, opari hauetako bat jasoko duzu:

- Izotz-pistarako sarrerak
- Paketeria iraunkorra
- Kontsigna zerbitzua

ORDUTEGIA

12:00- 14:00 / 18:00 - 21:00
24an eta 31n, 20:00ak arte

Doan!

3 EUROKO BONUA PARKINGEAN, KUPOI HAU AURKEZTUTA

Kupoi hau eta zure aparkamendu-tiketa Informazio Guneren baten aurkeztuta, doan lortuko duzu hiru euroko bonu bat Amarikako, Katedraleko, Juan Aialako eta Europako parking publikoetan erabiltzeko.

Antolatzailea

Babeslea


 Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Gabonetan ere bertsoak protagonista izango dira gurean

Oñatin, Aramaion eta Arrasaten bertso saioak; Bergaran txapelketa

JAGOBA DOMINGO | DEBAGOIENA

Aurten ere bertso saioek protagonismo handia izango dute Gabonetan Debagoieneko hainbat herritan. Hala ere, saio indartsuena Oñatikoa izango da, Errege Egunaren bezperan, BECeke finaleko zortzi protagonistak Zubikoan egongo dira eta.

Gabonetako azken saioa izango da, urtarrilaren 5ean, 22:30ean; hala ere, bertso-zaleentzako aukera paregabea izango da momentuko izarrak bertatik bertara ikusteko. Dagoeneko sarrerak salgai daude Oñatiko Txokola-

teixian hamar euroren truke. Oñatiko bertso eskolakoak izango dira gai-jartzaileak; eta taula gainera Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi, Sustrai Colina, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Amets Arzallus igoko dira.

Aramaion, Arzallus

Aurtengo bertso txapelketa irabazleak Gabonetan lana izango duela dirudi; izan ere, Aramaion egongo da abenduaren 27an, 19:30ean, urtero bertso eskolak antolatzen duen bertso saioan,

Unai Iturriaga, Xabier Silveira eta Paula Amilburu aramaioarrarekin batera.

Gai-jartzaile lanetan Aramaionko Manex Agirre eta Xabi Igoa egongo dira eta kultura etxean egingo den saioa.

Santamasetako bertso saioa

Arrasaten ere, Santamas egunean, abenduaren 22an, urteroko hitzordua izango dute bertso-zaleek Amaia antzokian, 20:30ean. Bertan, Maddi Sarasua, Beñat Gaztelumendi, Agin Laburu eta Sebastian Lizaso egongo dira.



BECeke finalistak. | BERTSOZALE ELKARTEA

II. bertso txapelketa Bergaran

Aurtengoan bigarrenkoz, Bergarako Korta Zar tabernan, bailara mailako bertso txapelketa egingo dute abenduaren 28an, Inuzente Egunean.

Arratsaldean, txapelketari ekin aurretik, bertso-poteoa eginda berotuko dute giroa; eta horren ostean hasiko dira bailarako bertsolari onenaren bila.

Gospel musika ohitura bihurtzeko bidean dago Debagoieneko Gabonetan

JAGOBA DOMINGO | DEBAGOIENA

Gabonek kristautasunarekin zerikusia duten heinean, gospel musika da Gabonetako soinu banda.

Izan ere, pasa den mendeko 30ko hamarkadan AEBetan indarra hartu zuten Jainkoari abesten zioten kantuak, eta azken hamar-

kadan ere gurera indartsu heldu dira Gabonetako kontzertuak.

Lehena Oñatin

Gaur bertan gospel doinuez gozatzeko aukera izango da Oñatiko Santa Ana antzokian. Frantziako Tolosako Soulshine Voices taldeak soul, swing eta funk erritmoekin

dantzan jarriko ditu bertara gerturatzeko direnak.

Geogia Mass Choir Arrasaten

Aurten ere Amaia antzokian ikuskizun paregabea eskainiko du Milton Biggman-ek sorturiko taldeak. Abenduaren 23an 20:00etan izango da.

Eskoriatzan, berriz, Gospel Alba boskoteak unibertsitatean eskainiko du emanaldia; abenduaren 29an, 19:00etan. Gabonetan ere musika espiritualak bere tokia izango du.



Soulshine Voices taldea. | SUNSHINE VOICES

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai kalea 1 - Bergara.
Tel: 943 76 70 49 - Mug.: 688 815 070
ikastaroak@imaltuna.com
www.imaltuna.com
Whatsapp bidez apunta zaitzeteke!



EUSKO JAURLARITZA
EMPLEGU ETA GIZARTE
GAETARAKO SAILA

GOBIERNO VASCO
EMPLEGU ETA GIZARTE
GAETARAKO SAILA

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

NOBETUZ
Servicio Vasco de Empleo

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, %100ean SUBENTZIONATUAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA		
IKASTAROEN IZENAK	ORDUAK	DATAK
UF0883: Txirbil-harroketa bidez mekanizatutako produktuen egiaztapena (Dimentsionala)	30	2014/02/19-2014/03/13
UF0880: Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio fabrikazio-prozesu osagarriak	70	2014/01/08-2014/02/18
UF0879: Txirbil-harroketa bidez piezak fabrikatzeko CNC programak prestatzea. Torno FANUC Ardatz anitza	70	2014/03/24-2014/05/22
UF0454: CAD-CAM programak erabiliz fabrikazio mekanikorako dokumentazio teknikoak lantzea	90	2014/01/08-2014/02/27
Txirbil harroketa bidez mekanizatutako produktua egiaztatzea. Tridimentsionala	30	2014/01/13-2014/01/30
ELEKTRIZITATEA		
IKASTAROEN IZENAK	ORDUAK	DATAK
UF0886: Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa instalazio elektrikoak muntatzeko eta mantentzeko lanetan	30	2014/03/17-2014/04/01
UF0890: Instalazio automatizatuak muntatzea	90	2014/01/08-2014/02/27
UF0891: Instalazio automatizatuak konpontzea	60	2014/03/10-2014/04/10
ADMINISTRAZIOA ETA INFORMATIKA		
IKASTAROEN IZENAK	ORDUAK	DATAK
UF0342: Gizarte Segurantzako prestazioak kalkulatzeko	30	2014/01/13-2014/01/30
UF0343: Soldata-ordainsariak, kotizazioa eta zerga-bilketa	90	2014/03/06-2014/05/13
UF0344: Giza baliabideak administratzeko aplikazio informatikoak. Nominaplus	30	2014/05/14-2014/05/29
HOTZEKO ESTANPAZIOAK		
IKASTAROEN IZENAK	ORDUAK	DATAK
Hotzeko estanpazioko prozesuen oinarriko diseinua	24	2014/02/10-2014/02/20
Hotzeko estanpazioko makinaren doikuntza	30	2014/03/17-2014/04/01
Harizatze makina	12	2014/05/05-2014/05/08



Urte berriak jakin badaki zenbat eskatu ohi zaion zaharrak ere txar eta onak utzi diezkiegu edonon nola 2014ari usain goxoa darion eta bizitzan ezin garenez atzera begira egon urte berriak ekar ditzala 12 hilabete on.





Olatz Pagalday

Aktorea

Kultura maite dugunondako

Txunditzeko modukoa da gaur egun gure herrietan dagoen kultura eskaintza zabal eta askotarikoa. Sarri kexatu izan gara ezer ez dagoelako. Halakorik ez Debagoiengan! Edozein asteburutan era askotako ekitaldiak aurkituko ditugu han eta hemen. Udalek edo gaztetxeek antolatutakoak ez ezik, bestelako ekimenetatik bultzatutakoak ere hamaika. Goienako kultura hitzorduei erreparatzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Edo *Planik bai* saioa ikustea. Edo asteleheneko *Goiena* papereko kronikak eta argazkiak irakurtzea eta ikustea.

Hemen, kulturen murgilduta gabiltzanondako, izan programatzaile edo izan sortzaile, ezinbesteko plataforma dira Goienako hedabideak. Ekitaldiak iragartzeko edo haien berri emateko ez ezik, gure sorkuntzaren,

Behar-beharrezkoa dugu Goiena; lagun diezaiozun

kezken, nondik norakoaren... gure lanaren berri izateko. Bozgorailu edo mezu biderkatzaile ezinbestekoak dira.

Kultura maite dugunondako, emaile edo jasotzaile, behar-beharrezkoa da Goiena. Lagun diezaiozun. Zeinek emango du, bestela, esaterako, gure azken antzezlanaren berri? Ikusi duzu? Informazioa, Goienan.

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba[“]

Euskara irabazle, denok irabazle!

ASTEAGOIENAN



'Goiena.net' berrituaren ekitaldia

Goiena.net webguneak 10 urte bete ditu eta itxura berria aurkeztu du, eduki eta atal berrituekin batera. Joan den egunean egin zuten horren aurkezpen ekitaldia Arrasateko Kulturaten eta ekitaldi hori oso-osorik eskainiko dizuegu.

'Goiena.net 10 urte' Egubakoitza, 20:25



Santamasetako saio berezia domekan

Etzi, domeka, Santamasak ospatuko dira Arrasaten eta horren gaineko saio berezia eskainiko dizuegu domekan bertan. Egunean zehar Arrasateko kaleetan jasotako giroa eta herritarren adierazpenak erakutsiko dizkizuegu saio berezian.

'Jaiak: Santamasak' Domeka, 22:15

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMEKA, 22	ASTELEHENA, 23	MARTITZENA, 24	EGUAZTENA, 25	EGUENA, 26
12:00 Ikusten: Dantzari eguna	10:00 Bideo klipak	10:00 Olentzero & Co. musikala	12:00 Hitzlandia	12:00 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan	12:00 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan	12:00 Bideo klipak
13:05 Onein: Berenjena beteak	10:30 Ur eta lur	11:40 Zorion Agurrak	13:15 Zorion Agurrak	12:30 Aizank!		12:43 Onein
13:35 Kantari	11:05 Ikusten	11:45 Ekogune	13:20 Jaiak: Santamasak	13:10 Aniztasunean bizi		13:13 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan
14:00 Ikusi irrati: Samba Dzanga	11:20 Ikusten	12:15 Onein	14:10 Onein	13:36 Ikusmira	13:03 Kantari	13:43 Bideo klipak
14:45 Berriak	11:30 Berriak	12:46 Berriak	14:45 Berriak	13:58 Klaketa	13:33 Aniztasunean bizi	14:09 Ekogune
15:10 Eguraldia	11:45 Kantari	13:01 Magazinea	15:15 Zorion Agurrak	14:23 Zorion Agurrak	13:59 Bideo klipak	14:39 Zorion Agurrak
15:13 Ikusi irrati: Samba Dzanga	12:45 Onein	14:01 Ikusmira	15:20 Ur eta lur	14:30 Berriak	14:14 Ekogune	14:45 Berriak
15:54 Zorion agurrak	13:11 Bideo klipak	14:20 Aniztasunean bizi	15:55 Onein	14:55 Peter Pan	14:44 Zorion Agurrak	15:10 Onein
16:04 Bideo klipak	13:36 Ekogune	14:46 Zorion Agurrak	16:28 Berriak	17:10 Zorion Agurrak	14:47 Olentzero & Co. musikala	15:43 Bideo klipak
16:30 Berriak	14:06 Onein	15:13 Peter Pan	16:58 Trikitilari gazteen txapelketa	17:17 Berriak	16:27 Aizank!	15:55 Ikusmira
16:55 Eguraldia	14:39 Zorion Agurrak	17:28 Kantari	18:08 Zorion Agurrak	17:37 Zorion Agurrak	17:07 Ikusmira	16:14 Zorion Agurrak
16:58 Ekogune	14:44 Trikitilari gazteen txapelketa	18:28 Magazinea	18:13 Klaketa	17:42 Klaketa	17:29 Ikusmira	16:24 Berriak
17:28 Bideo klipak	15:54 Klaketa	19:28 Bideo klipak	18:38 Ekogune	18:07 Trikitilari gazteen txapelketa	17:48 Zorion Agurrak	16:49 Aizank!
17:39 Aniztasunean bizi	16:19 Hitzlandia	19:49 Aniztasunean bizi	19:08 Berriak	19:17 Zorion Agurrak	17:53 Kantari	17:29 Ikusmira
17:59 Klaketa	17:34 Ekogune	20:15 Bideo klipak	19:33 Bideo klipak	19:22 Berriak	18:23 Peter Pan	18:08 Ekogune
18:39 Ikusmira: Zine eta bideo bilera	18:04 Zorion Agurrak	20:45 Zorion Agurrak	19:43 Ekogune	19:47 Zorion Agurrak	20:38 Ur eta lur	18:43 Bideo klipak
18:52 Zorion agurrak	18:09 Kantari	20:50 Trikitilari gazteen txapelketa	20:18 Zorion Agurrak	19:52 Kantari	21:13 Jaiak: Santamasak	18:54 Zorion Agurrak
19:00 Berriak	19:09 Berriak	22:00 Berriak	20:25 Jaiak: Santamasak	20:22 Zorion Agurrak	22:03 Bideo klipak	19:00 Berriak
19:30 Eguraldia	19:24 Ikusten	22:15 Jaiak: Santamasak	21:15 Berriak	20:30 Berriak	22:20 Tobera herri-antzerkia	19:20 Tobera herri-antzerkia
19:35 Bideo klipak	19:34 Aniztasunean bizi	23:05 Hitzlandia	21:40 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan	20:55 Jaiak: Santamasak		21:55 Kantari
19:45 Klaketa	20:00 Bertso Txapelketa Nagusia		22:10 Trikitilari gazteen txapelketa	21:45 Olentzero & Co. musikala		22:23 Berriak
20:25 Goiena.net 10 urte			23:20 Berriak	23:25 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan		22:48 Jaiak: Santamasak
21:40 Zorion agurrak			23:45 Jaiak: Santamasak			23:38 Ikusten
21:45 Berriak						23:48 Berriak
22:10 Eguraldia						00:16 Aniztasunean bizi
22:13 Harreman, 20 urte						
23:28 Berriak						
23:53 Eguraldia						
23:56 AsteON						

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratu duzue entzungai zapatu eta domekan

Astean zehar, Arrasate Musikaleko zuzendari Marta Izagirre elkarrizketatu dugu 107.7ko uhinetan. Eskolaren 40 urteak laburbiltzen dituen DVDa aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, eta horri buruzko elkarrizketa entzun ahal izango duzue asteburuan 10:00etatik aurrera.

Gaur egingo dugu Gabon aurreko azken irratisaioa zuzenean

Arrasate Irratian astelehenetik egubakoitzera bitartean egiten dugun Igo autobusera! irratisaioa gaur, egubakoitza, agur esan eta Gabonetako oporren ostean itzuliko da berriro 107.7ko uhinetara. Gaurko saioa 10:00etatik aurrera izango da eta urtarilaren 7an itzuliko da.


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 20	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Zapatua, 21	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Domeka, 22	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Astelehena, 23	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Martitzena, 24	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Eguaztena, 25	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Eguena, 26	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
BERGARA			
Egubakoitza, 20	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Zapatua, 21	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Domeka, 22	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 23	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 24	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 25	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguena, 26	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
ONATI			
Egubakoitza, 20	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Zapatua, 21	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 22	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 23	ANDUAGA	San Lorentza, 3	943 78 21 16
Martitzena, 24	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 25	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 26	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN


DEBAGOIENA



ZAPATUA, 20 Eguraldiak hobera egingo du orokorrean; tarteka ostarteak zabalduko dira zeruan eta tenperaturak gorra egingo du.

DOMEKA, 21 Ostarteak gutxitu egingo dira eta hodeiak nagusituko dira zeruan. Tenperaturak antzera jarraituko du.

EUSKAL HERRIA



Zapatuan tenperatura epelagoak izango ditugu eta ostarteak ugariagoak izango dira.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Kudeaketako Erdi Mailako Teknikaria. Getxoko Udala. Baldintzak: Gradua, Ingeniari-tza Teknikoa, Unibertsitateko Diplomatura, Arkitektura Teknikoa, hirugarren mailako Lanbide Heziketa edo parekoa, 3. HE. Epea: abenduak 23.

Suhiltzaile Zerbitzuko Sarjentua. Bizkaiko Foru Aldundia. Baldintzak: batxilergo titulua, II.LH edo baliokidea eta 2.HE. Epea: abenduak 27.

3 Zentzu-agente fiskal. Bizkaiko Foru Aldundia. Baldintzak: batxilergoa edo titulu tekniko, 3. HE. Azken eguna: abenduak 27.

Administrazio Bereziko Teknikari Laguntzailea, Erabilitzaileen Euskarriko Laguntzailea. Irungo Udala. Baldin-

tzak: teknikari espezialista informatikan (Sistema Informatikoen Administrazioa), elefritatean, elektronikan, edo baliokidea. Urtarrilak 11.

IKASTAROAK LANGABEENTZAT

Ikastaroak. Langabeentzat diruz lagundutako ikastaro eskaintza inguruko hainbat ikastetxe eta akademitan. Bastida: osasun artatzea, marketinga eta nazioarteko erosketak, garbiketa, diseinu grafikoa, enpresa txikiak sortzeko eta kudeatzeko... Ikasi (Bergara): ingelesa arreta zerbitzuetan, bizikleta ibilbideen gidaria, informatika, salmentarako komertzialak...

ANA

Eskoziarikako Stevenson bekak. British Council. Epea: urtarrilak 24.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net Oñatiako Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



Flavio eta Vanessa

Flavio eta Vanessa abenduaren 7an ezkondu ziren Elgetako udaletxean. Lagunek zoriondu egin nahi dituzte: "Urduritasunak urduritasun, egun polita izan zen. Gogoan hartzeko horietakoa! Urte askotarako, bikote!".



Jose Mari eta Mariluz

Jose Mari Lopezek eta Mariluz Bastardok urtarilaren 4an urrezko ezteiak ospatuko dituzte Apotzagari. "Zuekin ospatuko dugu egun garrantzitsu hori eta primeran pasatuko dugu. Mila esker horrelakoak izateagatik. Zorionak, bikote, eta muxu handi bat familia guztiaren partetik".

ESKER ONA

Monika Aranguren Iribe-Kanpos



2013ko abenduaren 9an hil zen, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoien eskerrik asko, sendikoen izenean.

Antzuolan, 2013ko abenduaren 20an.

ESKER ONA

Maria Teresa Azkarate-Askasua Larrañaga



Francisco Inzaren alarguna

Bergaran hil zen 2013ko abenduaren 13an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoien eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko abenduaren 20an.

ESKER ONA

Mari Carmen Gonzalez Imaz



'Renteri'

2013ko abenduaren 16an hil zen, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoien eskerrik asko, sendikoen izenean.

Zure oroimenak indartzen gaitu. Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Bergaran, 2013ko abenduaren 20an.

ESKER ONA

Juanito Osinaga Arabaolaza



Arrasaten hil zen 2013ko abenduaren 16an, 72 urte zituela.

Emaztea: Asun Galdos. Seme-errainak: Ion eta Ainitze, Eneko eta Elena.

Hileta elizkizunera bertaratutakoei eta samin agurra bidali zenigutenoien eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko meza abenduaren 29an izango da, domeka, 11:00etan, Arrasateko Urbarri auzoko Itxaropeneko Andra Mari elizan. Bertaratuko zaretenoi, aurrez, eskerrik asko.

Arrasaten, 2013ko abenduaren 20an.

ESKER ONA

Emili Igartua Irizar



Oñatin hil zen 2013ko abenduaren 14an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoien eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko abenduaren 20an.

URTEURRENA

Francisco Larrañaga Altube



'Paco'

2012ko abenduaren 26an hil zen, 86 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza hurrengo domekan izango da, abenduaren 29an, 12:00etan, Osintxuko parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Osintxu), 2013ko abenduaren 20an.

OROIGARRIA

Juanito Osinaga Arabaolaza



Arrasaten hil zen 2013ko abenduaren 16an, 72 urte zituela.

Eskerrik asko, aitona, erakutsi diguzun guztiagatik. Beti maiteko zaitugu.

Manex eta Miren. Arrasaten, 2013ko abenduaren 20an.

OROIGARRIA

Emili Igartua Irizar



Oñatin hil zen 2013ko abenduaren 14an, 91 urte zituela.

Amama Emili, zu agurtzeak pena handia eman digu baina Gaztelandora joaten garenean zutaz gogoratuko gara eta irripar bat aterako zaigu ezpainetan.

Muxu bat, amama: zure biloba eta birbilobak. Oñatin, 2013ko abenduaren 20an.

URTEURRENA

Petra Pagaldai Iñurrategi



2012ko abenduaren 22an hil zen, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 22an, 12:30ean, Leintz Gatzagako elizan.

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Leintz Gatzagan, 2013ko abenduaren 20an.

HILDAKOAK

Juan Santiago Montero. Arrasaten, abenduaren 13an. 91 urte.

M. Teresa Azkarate-Askasua Larrañaga. Arrasaten, abenduaren 13an. 95 urte.

Emili Igartua Irizar. Oñatin, abenduaren 14an. 91 urte.

Luis Diez Zorrilla. Oñatin, abenduaren 15ean. 89 urte.

Juanito Osinaga Arabaolaza. Arrasaten, abenduaren 16an. 72 urte.

M. Carmen Gonzalez Imaz. Beergaran, abenduaren 16an. 82 urte.

Eladio Peña Castro. Arrasaten, abenduaren 17an. 88 urte.

Antoni Irazabalbeitia Laskurain. Bergaran, abenduaren 18an. 96 urte.

Julia Inza Leturiaga. Arrasaten, abenduaren 18an. 89 urte.

OROIGARRIA

Andoni Santos Fernandez



2010eko abenduaren 30ean hil zen, 25 urte zituela.

Gure bihotzean eramango zaitugu beti. Maite zaitugu.

Andonirekin gogoratzen zareten lagun guztiei eskerrik asko, familiakoen izenean.

Oñatin, 2013ko abenduaren 20an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta araura handienarekin, nire asmoa da familiarari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: **NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



maribi 617 44 21 55
BERGARA

OÑATI Lin Ton Taun

Lizargarate Trikitizale Elkartearen eskutik kontzertua egingo du Zestoako taldeak gaztelekuan. Euskaraz trikitia eta rocka nahasten aitzindari izan zen taldea 90eko hamarkadan sortu zen. Hainbat disko grabatu ostean, taldeak geldialdia egin zuen. 2013. urte hasieran elkartu ziren berriro ere.

Abenduak 28, gaztelekuan, 22:30ean.



LIN TON TAUN



AIZPEA AJURIAGERRA

DEBAGOIENA Olentzeroren bisita

Olentzero herririk herri ibiliko da datozen egunetan. Debagoieneko herri guztiak zeharkatuko ditu abenduaren 24an, opariak eta gozokiak banatzen. Elgetara egun bat lehenago helduko da: hilaren 23an.

Abenduak 23 eta 24, Debagoieneko herri guztietan.

MUSIKA**OÑATI Disko festa Amaia Txintxurretarekin**

Disko festa gaztelekuan. Gaur, egubakoitza, topalekuan, 18:00etan.

BERGARA Musika eskolako Gabonetako kontzertua

Eskolako talde desberdinek euren emanalditxoak egingo dute eta bukatzeko, denok batera, John Lennon eta Yoko Onoren *Happy xmas* interpretatuko dute.

Gaur, egubakoitza, udal pilotalekuan, 18:30ean.

OÑATI Bo, Frantzeska eta EZ! taldeak

Tantaz Tankak Gabonetarako antolatutako ekimena.

Gaur, egubakoitza, Antixenan, 22:00etan.

OÑATI Gospel kontzertua

Soulshines Voices taldearen eskutik doinu beltzak, 10 eurotan.

Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 22:30ean.

ARETXABALETA Belceblues

Bluesa izango da protagonista bergararren kontzertuan.

Gaur, egubakoitza, Akorde tabernan, 23:00etan.

BERGARA Kasik eta Iseka

Kartzela zaharrea egingo dute kontzertua.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan.

OÑATI Gabonetako kontzertua

Aita Madina Txistulari Taldeak eta Jose de Azpiazu musika eskolako txistulari eta akordeoilariek parte hartuko dute.

Bihar, zapatua, Foru plazan, 18:00etan.

OÑATI Oñati abesbatzaren kontzertua

Gabonetako emanaldia egingo dute.

Bihar, zapatua, Agustindarren elizan, 20:15ean.

ELGETA Ostiada Oi! taldearen agur kontzertua

Elgetarrekin batera, BC Bombs eta Jonny Gerriwelt taldeak igoko dira oholtzara. Sarrerak bost euro.

Bihar, zapatua, Elgetako gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA Gabonetako kontzertua

Bergarako Udal Musika Banda, Aritzeta abesbatza, Bergarako Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia izango dira emanaldian. Sarrerak 8 euro.

Bihar, zapatua, Udal pilotalekuan, 22:30ean.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen. Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

ABENDUA 20
ABENDUA 31

OÑATI Ganbararen 10. urteurren kontzertua

10 urte kantu kontari: musikaz eta kolorez beteriko bidaia delako emanaldia egingo dute, abesbatzaren 10. urteurrena ospatzeko. Ganbara kantu eskolako talde guztiek, Ganbara abesbatzak eta ikastetxeetako abesbatzek parte hartuko dute.

Etzi, domeka, Zubikoan, 19:00etan.

ARETXABALETA Organo, tronpeta eta soprano emanaldia

Andramari elizan izango da. Organoa Jose L. Franzesenak joko du, Jon Aramendik tronpeta eta Mariatxen Urkia izango da sopranoa.

Etzi, domeka, Andra Mari elizan, 19:00etan.

ARRASATE Georgia Mass Choir tadearen musika emanaldia

Milton Bigghamek zuzentzen duen taldeak doinu beltzak kantatuko ditu. Sarrerak www. arrasate-mondragon.org atarian.

Abenduak 23, Amaia antzokian, 20:00etan.

OÑATI Sumision City Blues

2009an Gasteizen sortutako taldeak zuzenekoa egingo du. "Punk, jazz eta rock-and-roll zikinean" hel-

dutako kideak dituen taldea, baina "blues, folk eta countryra" itzultzeko gogoia duena. Zuzeneko "martxosoa" egingo dute Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

ARETXABALETA Juan Carlos Irizarren kontzertua

Juan Carlos Irizarrek bere azken bi diskoak aurkeztuko ditu.

Abenduak 26, Zariaia aretoan, 22:00etan.

ANTZUOLA Elvis Caino disko-jartzailea

Elvis Caino DJ bergararraren emanaldia.

Abenduak 26, gaztetxean, 22:00etan.

ELGETA Ruper Ordorika

Azukre koxkorra diskoa aurkeztuko du oñatiarrak. Aurretik, Igor Arzuagaren emanaldia.

Abenduak 29, Espaloian, 19:00etan.

OSPAKIZUNAK**ARRASATE Arrasate Musikalen DVDaren aurkezpen ekitaldia**

Arrasate Musikalen ibilbidea jasotzen duen DVDa aurkeztuko dute. Aurretik, Arrasate Musi-

kaleko taldeek kontzertua egingo dute. Kajoi, Itzala eta Rumba tabernetan eta Ttukun, Elkar, Tamayo, Eya Etxetresnak, Jon eta Elkoro dendetan eros daiteke abenduaren 20tik aurrera. Urtarrilean Arrasate Musikalen ere erosi ahal izango da.

Gaur, egubakoitza, Amaia Antzokian, 18:30ean.

OÑATI Artisau gazteen azoka

Gabonetako azoka berezia egingo dute, lehenengo aldiz, herriko gazte artisauak. Askotariko postuak ipiniko dituzte.

Bihar, zapatua, Foru plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA Basotxoen doke txapelketa eta zozketa

Santo Tomas goizean doke txapelketa jokatuko dute, eta arratsaldean otarreak zozketatuko dituzte bazkideen artean. Txistorra egongo da jateko.

Bihar, zapatua, Basotxon elkartean, 12:00etan.

ARRASATE Santamas jai

Fruta eta barazki erakusketa eta leihaketa, ganadu feria, herri kirolak, artisau erakusketa, pilota partiduak, musika, dantzaldiak eta beste egongo dira.

Etzi, domeka, kalerik kale, 08:00etatik aurrera.



SARA RAMIREZ

ELGETA 'ABRE LOS OJOS'

Despertar Los Sentidos dantza taldeak ikuskizun berezia erakutsiko du Elgetan. Down sindromea duten dantzariekin egindako emanaldia. Foklore eta dantza garaikidea bateratzen dituen ikuskizuna da *Abre los ojos*. Dantza taldea 2001ean sortu zuten, down sindromea duten pertsonak gizarteratzeko asmoz.

Bihar, zapatua, Espaloian, 18:00etan.

AURKEZPENA**ESKORIATZA Txirikila elkartearen aurkezpena**

Txirikila Haurren Aisialdi Elkar-teak herrirako dituen proiektuak ezagutu eta ekarpenak egiteko ekitaldia. Besteak beste, haurrendako jokoak, tailerrak, aurpegiak margotzeko aukera margoketa... egongo dira.

Bihar, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.

BERTSOLARITZA**ARRASATE Santamasetako bertso jaialdia**

AEDk antolatuta, Agin Laburu, Beñat Gaztelumendi, Sebastian Lizaso eta Maddi Sarasua bertsolariak egingo dute emanaldia Amaia antzokian. Maite Berriozabalek egingo ditu gai-jartzaile lanak.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 20:30ean.

ARAMAIO Bertso jaialdia

Aramaio bertso eskolako kideek jaialdia egingo dute Unai Iturriaga, Xabier Silveira eta Paula Amilburuarekin. Gai-jartzaileak: Xabi Igoa eta Manex Agirre.

Abenduak 27, kultura etxean, 20:00etan.

BERGARA Bertso txapelketa

Bigarrenez, Bergarako Korta Zar tabernan, bailara mailako bertso txapelketa egingo dute. Aurretik, pintxo-poteoa egingo dute.

Abenduak 28, Korta Zar tabernan, arratsaldean.

OÑATI Finaleko bertsolarien saioa

Oñatiko bertso eskolako kideek emandako gaiei erantzunez, Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi, Sustrai Colina, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Amets Arzallus igoko dira oholtzara. Bertsolari txapelketako finala.

Urtarrilak 6, Zubikoa kiroldegian, 22:30ean.

ANTZERKIA**BERGARA 'Beldartso jatuna' antzezlana**

2-8 urte bitarteko haurrentzako antzezlana. Sarrerak, lau euro. Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.



goiena

2013-12-20

BUKATZEKO

Elkartasunak baduelako emaitza ona

- ▶ Markel Lopez urretxuarrak gupil-aulkia autora sartzeko malda erosiko du batutako diruarekin
- ▶ Oñatiko Txantxiku Ikastolako ikasleekin egon da, tapoiak biltzen dituztenei eskerrak emateko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Markel Lopez urretxuarrak *Epidemolisis bullosa* edo *Tximeleta azala* izenez ezagutzen den gaixotasuna du. Oñatiko Txantxiku Ikastolan egon da aste honetan, han legez, Euskal Herri osoan egiten dituzten tapoien bilketak beretzat duen garrantzia azaltzeko eta eskerrak emateko.

Adinekoen galderak

Adin askotariko ikasleei azaldu ziren bere gaixotasuna Markel Lopezek. Tarlean, bere adinekoak direnei, DBHko bigarren mailako ikasleei.

Ama, *Antxoa* eta *Gina* txakurrak eta beste bi lagun ondoan zituela erantzun zituen urretxuarrak ikasle oñatiarren galderak. Arretaz begiratzen zioten. Isilik. Dena entzun guran. Jakin gura zuten zer sintoma igarri zituen, zer arrasto utzi dizkion gaixotasunak, minik duen, medikaziorik hartzen duen... Idatzita eraman zituzten galderak, baina haren lasaitasuna, naturaltasuna, irribarrea ikusita, ohiko hizkeran egin zituzten galdera gehienak, paperean euskara batuan idatzita izan arren. Urretxuarraren gertutasunak adinekoen artean izan ohi dituzten galderak, kezkak,

Markel Lopez, *Gina* txakurrarekin ariketak egiten. | O.E.

Txantxiku Ikastolako DBHko 2. mailako ikasleak Markel Lopezekin. | O.E.

konpartitzera bultzatu zituen. Gaitzaren gaineko galderak alboratu eta elkarrizketan ari ziren gaztetxoek artekoak erantzun zituen Lopezek: "Tableta erabiltzen duzu? Joko elektronikoekin ibiltzen zara? Ile-apaindegian moztzen duzu ilea? Nolako arropa jantzen duzu? Nola irakatsi dizkiozu txakurrari lan horiek?".

Elkartasuna

Antxoa txakurra izaten du alboan Lopezek eguneroko zereginetan laguntzeko, Urtzi anaiaren laguntza ahaztu barik; *Antxoa*-k zabalitzen dio motxila liburuak ateratzeko, lokarriak askatzen dizkio eta segapotoa jasotzen dio lurretik. Hainbat adibide egin zituzten aretoan, eta aho zabalik jarraitu zituzten ikasleek.

Desplazamendu luzeetarako gupil-aulkia behar du, eta autoan sartzeko beharrezkoak duten malda erosiko dute tapoien bilketarekin lortutako diruarekin. "Ikaragarri harritzen nau jendearen elkartasunak, asko esker-tzen dizuet guztioi", adierazi zuen Lopezek. "Jendeak esaten digu tapoi bat gordetzen duen aldiro gure oroitzen bat duela, eta hori asko da guretako", adierazi zuen amak.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Hautsi da tabua

Asko idatzi da BECeko bertso saioaren gainean, batzuk apur bat gogaitzeraino. Lau urtez behingo ekitaldiek -Olinpiadek, esaterako- izaten dute plus bat hedabideetan, ezohikoak suertatzen direlako, seguruenik. Bertsolari Txapelketa Nagusiak (BTN), gainera, hilabete luzeko berotze lana izaten du aurretik eta egun handia iristen denean, goia jotzen du ikusminak eta eztanda egiten emozioak.

Oraingo honetan, ordea, tabu bat hautsi da. Hamarkadetan egon da bertso saioetan lerratze ideologiko nabarmena, jartzen ziren gaitetan, bertsoen edukian eta entzuleen txaloetan edo txistueta. Panorama horrekin ziur nago hainbat bertsolari ez duela beti esan sentitzen zuen guztia.

Bada, hain zuzen, tabu hori hautsi zen igandean. Nire akorduan lehen aldiz igaro ziren hainbat bertso *beste* aldera, eta hangoekin bat egin. Enpatia agertu zen. Eta, behin urratsa eginda, aukera guztiak geratu dira zabalik, lehengoak eta berriak. Bertsolaria libre da aurrerantzean.

Aitor Sarriegi edo Unai Iturriagak ozen aldarrikatu zuten min guztiak aitortu beharra, eta txalo handiak jaso bueltan. Agian Jonan Fernandezek bertsoan hasi behar luke.

R.P.S. Nº 146/10 LL.G.

Gure betaurreko guztiak azken bildumakoak dira

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Eguzkitako betaurreko POLARIZATUAK egurrezko LOOK-a

49€

Oparitu ezazu moda gabonetan...

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.